

Baliabide jarraituen katalogaziorako eskuliburua

2016ko abendua

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tel.: 945 01 94 70 - Faxe: 945 01 95 34
posta elektronikoa: liburutegi-zerbitzua@ej-gv.es



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
ESKULIBURU HONEN HELBURUA	5
APLIKAZIO-IRIZPIDEAK	7
ITURRIEN DESKRIBAPEN ETA LEHENTASUN-ORDENARAKO OINARRIAK	7
EREMU BAKOITZARI BURUZKO LAGUNTZA LORTZEA	8
PUNTUAZIOA	9
SARTU EREMU ERREPIKAKORRAK	9
MIKROFORMAK	10
BALIABIDE JARRAITU ELEKTRONIKOAK	11
ARGITALPEN SERIATU KONTRAJARRIAK	13
KATALOGAZIO-TAULAK:	14
AGINTARITZETARA JOTZEKO EREMUAK	16
DESKRIBAPEN BERRIA BEHARREZKO DUTEN ALDAKETAK	18
DESKRIBAPEN BERRIRIK BEHAR EZ DUTEN ALDAKETAK	20
ARGITALPEN SERIATUEN KATALOGAZIOA	ERROREA! LASTER-MARKA DEFINITU GABE.
ORRIBURUA (EE)	24
T001 KONTROL-ZENBAKIA (EE)	27
T003 KONTROL-ZENBAKIAREN (EE) IDENTIFIKATZAILEA	27
■ T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA (R)	28
■ T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA – BALIABIDE ELEKTRONIKOA (R)	29
■ T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA – MIKROFORMA (R)	33
008 LUZERA FINKOKO INFORMAZIO-KODEAK – BALIABIDE JARRAITUAK (NR)	36
T017 LEGE-GORDAILUAREN ZENBAKIA (E)	51
T022 ARGITALPEN SERIATUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA (ISSN) (E)	56
T035 SISTEMAREN KONTROL-ZENBAKIA (E)	58
T040 ZENTRO KATALOGATZAILEA (EE)	59
T041 HIZKUNTZA-KODEA (EE)	63
T080 SAILKAPEN HAMARTAR UNIBERTSALEKO ZENBAKIA (E)	65
T084 BESTE SAILKAPEN-ZENBAKI BAT (E)	68
T100 SARRERA NAGUSIA – PERTSONA-IZENA (EE)	69
T110 SARRERA NAGUSIA – KORPORAZIO-IZENA (EE)	70
T111 SARRERA NAGUSIA – KONGRESU-IZENA (EE)	71
T130 SARRERA NAGUSIA – IZENBURU HAUTATUA (EE)	72
T222 GAKO-IZENBURUA (E)	75
T240 IZENBURU HAUTATUA (EE)	78
T245 IZENBURUAREN AIPUA (EE)	80
T246 IZENBURUAREN ALDAERA (E)	92
T250 EDIZIOAREN AIPUA (EE)	98
T260 ARGITALPEN, BANAKETA, ETAB. (EE)	102
T300 DESKRIBAPEN FISIKOA (E)	108
T310 EGUNGO ALDIZKAKOTASUNA (E)	113
T321 LEHENAGOKO ALDIZKAKOTASUNA (E)	115
T362 ARGITALPEN-DATAK EDOTA IZENDAPEN SEKUENTZIALA (R)	116
T4XX SERIEAREN AIPUAREN EREMUAK	125
T490 SERIEAREN AIPUA (E)	126
T5XX OHARREN EREMUA – INFORMAZIO OROKORRA	129
T500 OHAR OROKORRA (E)	130

T515 ZENBAKETAREN BEREZITASUNEI BURUZKO OHARRA (E)	131
T516 ORDENAGAILUKO ARTXIBO EDO DATU MOTAREN OHARRA (E).....	133
T525 GEHIGARRIEI BURUZKO OHARRA (E)	134
T530 BESTELAKO EUSKARRI FISIKO ESKURAGARRIEI BURUZKO OHARRA (E)	135
T533 KOPIARI BURUZKO OHARRA (E).....	137
T534 JATORRIZKO BERTSIOARI BURUZKO OHARRA (E)	138
T035 SISTEMAREN XEHETASUNEI BURUZKO OHARRA (E).....	140
T546 HIZKUNTZARI BURUZKO OHARRA (E)	141
T550 KORPORAZIO ERANTZULEARI BURUZKO OHARRA (E)	144
T555 AURKIBIDE BATERATUEI EDO BESTE BALIABIDE BIBLIOGRAFIKO BATZUEI BURUZKO OHARRA (E)	146
T580 ERLAZIO KONPLEXUEI BURUZKO OHARRA (E)	148
T590 DESKRIBAPENEAN ERABILITAKO ITURRIARI BURUZKO OHARRA (E).....	152
T594 IZENBURUARI ETA ERANTZUKIZUN-AIPUARI BURUZKO OHARRA (E)	153
T595 EDIZIOARI ETA HISTORIA BIBLIOGRAFIKOARI BURUZKO OHARRA (E)	156
T596 ARGITALPENAREN EREMUARI BURUZKO OHARRA (E)	157
T597 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUARI BURUZKO OHARRA (E)	158
T600 GAIAREN SARRERA GEHIGARRIA – PERTSONA-IZENA (E)	162
T610 GAIAREN SARRERA GEHIGARRIA – ERAKUNDE KORPORATIBOAREN IZENA (E)	163
T611 GAIAREN SARRERA GEHIGARRIA – KONGRESUAREN IZENA (E).....	164
T630 GAIAREN SARRERA GEHIGARRIA – IZENBURU HAUTATUA (E)	165
T650 GAIAREN SARRERA GEHIGARRIA – GAIAREN IZENDAPENA (E).....	166
T651 GAIAREN SARRERA GEHIGARRIA – IZEN GEOGRAFIKOA (E)	167
T7XX SARRERA GEHIGARRIAK – INFORMAZIO OROKORRA	168
T700 SARRERA GEHIGARRIA – PERTSONA-IZENA (E).....	169
T710 SARRERA GEHIGARRIA – KORPORAZIO-IZENA (E).....	171
T711 SARRERA GEHIGARRIA – KONGRESU-IZENA (E).....	172
T730 SARRERA GEHIGARRIA – IZENBURU HAUTATUA (E)	173
T740 SARRERA GEHIGARRIA – KONTROLATU GABEKO IZENBURU ERLAZIONATU EDO ANALITIKOA (E)	174
T76X-78X – ERLAZIONATUTAKO EREMUAK – INFORMAZIO OROKORRA	175
T765 ESTEKA JATORRIZKO HIZKUNTZARA (E).....	178
T767 ESTEKA ITZULPEN BATERA (E).....	180
T770 ESTEKA GEHIGARRI/ZENBAKI BEREZI BATERA (E).....	182
T772 ESTEKA ARGITALPEN NAGUSIRA (E)	184
T773 ESTEKA ITURRI-DOKUMENTURA (E)	186
T774 ESTEKA UNITATE OSAGARRI BATERA (E)	186
T775 ESTEKA BESTE EDIZIO BATERA (E).....	190
T776 ESTEKA BESTELAKO EUSKARRI FISIKO BATERA (E).....	193
T777 ESTEKA “HONEKIN BATERA ARGITARATUA” ERREGISTRORA (E).....	196
T780 ESTEKA AURREKO IZENBURU BATERA (E).....	200
T785 ESTEKA HURRENGO IZENBURU BATERA (E).....	215
T787 BESTE LOTURA ZENBAIT (E)	228
T856 BALIABIDE ELEKTRONIKOEN KOKAPENA ETA ATZIPENA (E)	232
T9XX TOKIKO EREMUAK	235
T999 TOKIKO EREMUA (E)	236
NULL.....	238
LOTUTAKO BISTARATZEAK	239
OHAR BILTZEA	241

1. ERANSKINA ZENBAKI MONOGRAFIKOAK KATALOGATZEKO PROTOKOLOA _____	250
2. ERANSKINA KOMIKIAK KATALOGATZEKO PROTOKOLOA _____	252
KOMIKI MONOGRAFIKOA	252
KOMIKI SERIATUA	254
GENEROEN ZERRENDA JATORRIAREN ARABERA	254
GENEROEN ZERRENDA GAIAREN ARABERA.....	256
3. ERANSKINA KASU PRAKTIKOA: EUSKARRI-ALDAKETA, INPRIMATUTIK ELEKTRONIKORA ____	260
4. ERANSKINA HABE ERAKUNDEAREN SAILKAPEN-TAULAK _____	263
GLOSARIOA _____	275
BIBLIOGRAFIA _____	278


ESKULIBURU HONEN HELBURUA

Eskuliburu honen bidez, baliabide jarraituak katalogatzeko irizpide bateratuak ezarri nahi dira. Dokumentu-mota honen kasuistika oso zabala denez, oinarritzko ildo batzuk eta jarraibide orokor batzuk besterik ez dugu bildu. Zalantzarik izanez gero, bibliografian kontsultarako dauden eskuliburu edota materialetara joko da.

Katalogazioaren ondorioetarako, baliabide jarraituak bi eratarata tratatzen dira ISBD deskribapenean, editatzeko moduaren arabera: argitalpen seriatu modura edo baliabide integragarri modura. Faszikuluetan edo zati jarraituetan editatzen diren, zenbaketa bat duten eta argitalpen seriatu batekin zenbait ezaugarri partekatzen dituzten (esate baterako, izenburuaren maiztasuna) baina iraupen mugatua duten baliabideak (esate baterako, ekitaldi baten buletina) baliabide jarraituetarako erabiltzen diren zehaztapenak erabiliz katalogatzen dira. Baliabide integragarri mugatuak ere (adibidez, kanpaina politiko bateko webgunea) zehaztapen horiek erabiliz katalogatzen dira.

Behin baino gehiagotan zaila izango zaigu argitalpen bat monografia modura edo baliabide jarraitu modura tratatu behar dugun erabakitzea: zenbaki monografikoak dituzten serieak, urtekoaz gaundiko aldizkakotasuna duten memoriak, eta abar.

Modulu ezberdinen artean (monografiak, baliabide jarraituak, analitikoak, bideo-grabaketak, eta abar) dagoen harremana koadro honetan zehazten da:



Argitalpen seriatuan hauek aurki ditzakegu: ISSN zenbakia, zenbaki, alfabeto edo kronologiaren arabeko izendapena edota hitz adierazgarriak; esate baterako, "buletin", "urtekari", "koaderno", "eguneroko" eta "memoria".

Argitalpen seriatu modura tratatuko ditugu honako hauek:

- Programak: ikastaroei buruzkoak (EHUko Udakoa), festei buruzkoak, kontzertuei buruzkoak (Arabako Organoa), operei buruzkoak, antzerki jaialdietakoak (Gasteizko Nazioartekoa), kongresu edo mintegietakoak edo zinema astei buruzkoak, erakusketei buruzkoak (Artiumeko Agenda), eta abar.
- Unibertsitateko karreretako edozein mailatako ikastaroei edo graduondoko ikasketei buruzko programak edo irakaskuntza ematen den zentroek argitaratutako antzeko programak.
- Sail edo unibertsitateetako jarduera-memoriak edota probintzia edo autonomia erkidego jakin batean hezkuntzari dagokionez dagoen eskaintza jasotzen duten argitalpenak, kultura kontseilaritzak edo erakunde baliokideek argitaratuak.
- Sektoreko hitzarmen kolektiboak.
- Argitaletxeen, instituzioen edo administrazio publikoen argitalpen-katalogoak.
- Tokiko zerbitzuetako gidak (kale-izendegiak, Edyca, eta abar).

Eskuliburu honen amaieran, argitalpen seriatuekin lotutako kontzeptuen definizioak dituen glosario bat jasotzen da, edozein delarik ere argitaratzeko erabilitako euskarria.

Eskuliburu honetan eremurik ohikoenak azaltzen diren arren, argitalpen seriatuak euskarri fisiko desberdinetan daudenez, beharrezkoa da euskarri bakoitzari dagozkion eremu bereziak betetzea.

Bestalde, dokumentu mota hau katalogatzeko erreferentzia nagusiak Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia¹ eta Liburutegi Nazionala izango ditugu.

Aipatu beharrezkoa da, azkenik, katalogazio kooperatiboaren ildoari jarraituz, argitalpen seriatuak katalogatzen dituzten zentroek lankidetzan jardun beharko dutela, hartara erregistro bibliografikoak behar bezala isla ditzan Sarea osatzen duten funts guztiak, eta ez liburutegi jakin batekoak bakarrik².

Liburutegiei Tokiko Bildumako berezko argitalpen seriatuak mantentzea gomendatzen zaie, eta ez dira garbitu behar. Bildumok mantentzea ezinezkoa bazaie, Liburutegi Zerbitzua arduratuko da haiek gorde, tratamendu teknikoa eman eta mantentzeaz.

¹Euskadi. Ogasun eta Finantza Saila. Liburutegia. *Liburutegiaren katalogoa* [online]: http://www.bibliotekak.euskadi.net/cgi-bin_abnet16/abnetclop/O16945/ID1e214e62?ACC=101 [Kontsulta: 2013ko urtarrilak 10].

² Ikus **T590** Iturri-oharra, deskribapeneterako erabilia.

APLIKAZIO-IRIZPIDEAK

Iturrien deskribapen eta lehentasun-ordenarako oinarriak

Baliabidea, berez, orotariko materialen deskribapenerako oinarria da. Baliabide baten deskribapenean erabilitako informazioa lehenetsitako iturritik hartzen da, eta eremu bakoitzaren deskribapenerako informazioa, berriz, agindutako lehentasun-ordena batean ezarritako iturri jakin batzuetatik.

Argitalpen seriatuetarako:

Deskribapenerako oinarria lehen faszikulu edo zatia da, edo hura ez badago, eskuragarri dagoen faszikulu edo zati zaharrena. Oro har, lehen faszikulu edo zatia (edo eskuragarri dagoen zaharrena) lehenesten da baliabidera osorik lotutako edo faszikulu edo zati bat baino gehiagoz osatutako multzora lotutako iturri baten aurrean.

Baliabide integragarrietarako:

Deskribapenerako oinarria baliabide integragarriaren egungo iterazioa da, argitalpenaren hasiera-dataren kasurako izan ezik.

Baliabide jarraitu inprimatuak

ISBD deskribapenean ezartzen den moduan, baliabide jarraitu inprimatuen kasuan, **iturrien lehentasun-ordena** ataria edo atariaren ordezkoa da. Ataririk ez duen baliabide jarraitu baten atariaren ordezkoa hainbat iturritatik hartzen da, lehentasun-hurrenkera honen arabera:

- 1) Atari analitikoa, azala, goiburua, mantxeta, argitaldariaren orrialdea, kolofoa.
- 2) Beste zenbait atariko, nahiz zorroetan eta orrialde testudunaren goiko edo azpiko zatian agertzen den informazioa (esaterako, orri-ertzeko izenburua).
- 3) Baliabide jarraituaren gainerako elementuak: aitzinsolasak, hitzaurreak, laburpena, testua, gehigarriak, eta abar.
- 4) Baliabide jarraituaz apartekoak diren eta harekin lotzen ez diren erreferentziako iturriak (adibidez, bibliografiak, argitalpen-katalogoak).

Beti adieraziko dugu datuak zein iturritatik hartu ditugun ataririk ez dutenean.

Baliabide jarraitu elektronikoak

Baliabide elektroniko baten deskribapenean lehenetsitako informazio-iturria baliabide osoa da; horrek honako hau biltzen du:

- a) Baliabidea bera, iturrien lehentasun-ordena honekin:
 - i) Baliabidearen barneko iturriak. Esate baterako, izenburuaren pantailan, menu nagusia, programari buruzko aipamenak, lehen informazio-pantaila,

fitxategiaren goiburua "Gaia:" –lerroak barne–, hasiera-orrialdea eta informazio kodetua (adibidez, TEI goiburua, HTML izenburua).

ii) Euskarri fisikoa edo haren etiketak.

Baliabidea prozesatu gabe irakur ezin daitekeenean (esate baterako, konprimatua dagoenean), baliabidearen informazioa hartu ahal izateko, aldezturik, erabiltzeko moduan prozesatu behar da.

Iturri horietako informazioaren zehaztasuna aldakorra denean, informazio gehien edo osatuena ematen duen iturria lehenesten da.

b) Beste zenbait iturri, lehenetsun-ordena honen arabera:

i) Dokumentazio inprimatua edo on-line bidezkoa edo atxikitako beste material bat (esate baterako,

argitaratzailearen gutun bat).

ii) Argitaratzaile, ekoizle edo banatzaileak erabilitako ontzi batean inprimatutako informazioa.

Eremu bakoitzari buruzko laguntza lortzea




Programak aukera ematen du eremuetako edukiei buruzko laguntza lortzeko, baita haietan informazioa sartzeko moduari buruzkoa ere.

• Adierazleak

Adierazleak sartzea beharrezkoa da soilik aukera bat baino gehiago onartzen dutenean. Gainerako kasuetan, programak automatikoki jarriko ditu.

Sarrera nagusiaren (pertsonearen eta kongresuaren izena), Izenburuaren eta sarrera gehigarriaren (pertsonearen izena) kasuan, adierazleei dagokien informazioa adierazi behar dugu.






Adierazleak sartzeko, Lehen adierazlean edo Bigarren adierazlean sakatuko dugu eta, ondoren, adierazleak sartzeko modu ugari dago:

- Hemen  sakatuz, laguntza-pantaila bat agertuko da adierazleen zerrendarekin. 
- Sakatu  (F5)

• Azpieremuak

MARC formatuaren bidez, katalogazio-eremuetako zatiak bereizteko azpieremu-kode ezberdinak ezartzen dira. Hizkiak izaten dira ia beti. Programan kode horiek “«” eta “»” angeluarren artean kokatzen dira.

Azpieremu-kodeak idazteko, katalogazioaren editoreko testuaren zatian sakatu eta, ondoren, azpiero-kodeak sartzeko hainbat modu daude:

- Hemen  sakatuz, laguntza-pantaila bat agertuko da adierazleen zerrendarekin. 
- Sakatu  (F5)
- Dagoeneko interesatzen zaigun azpieroaren hizkia ezagutzen badugu:
 - Hemen  sakatuz, “«” eta “»” ikurra agertuko da.
 - (F3) sakatuta,  eta “»” ikurra agertuko da.

Puntuazioa

Kasu hauetan **ez** da beharrezkoa ISBD puntuazioa jartzea:

- Puntuazioa azpiero-kode bati dagokionean (programak badaki zein puntuazio-ikur jarri behar duen azpiero-kode bakoitzaren **aurretik**).
- Puntuazioak eremu osoa hartzen duenean (izenburu uniformeetan eta material motaren kortxeteak, eta bildumari dagozkion parentesiak).
- Eremuak bereizteko puntuazioa denean (puntu tartea marratxo tartea).

Puntuazioa eta haren aurreko tartea **jarri egin behar dira**:

- Sartzen den informazioaren arabera puntuazio ezberdina izan dezakeen azpiero-kode bati dagokionean:
 - “Izenburuaren aipua” izeneko T245 eremuko “Izenburuaren gainerakoak” izeneko \$b azpieroan azpi-izenburua edo pareko izenburua sar daiteke eta, horrenbestez, puntuazioa horrelakoa izan daiteke: : (bi puntu) edo = (berdin).


Azpieroak ez dira puntuazio-ikur batekin amaitzen, baldin eta azpieroaren azken hitza batekin amaitzen ez bada.

Era berean, T017 – “Lege Gordailua”, T020 – “ISBN” eta T022 – “ISSN” eremuetan, hurrenez hurren, ez dira D.L., ISBN eta ISSN ikurrak idatzi behar.

Sartu eremu errepikakorrak

Eremu errepikakor batean informazioa tartekatu behar badugu (adibidez, T017), urrats hauek emango ditugu:

1. Errepikapen berria sartu nahi dugun posizioaren ondorengo eremuan kokatuko gara.

2. “Menua zabaldu” sakatu  eta, ondoren, “Eremua gaineratu” aukeratuko dugu

Adibidea:

T017 eremu hauek ditugu gure katalogazioan:

T017 ## \$aSS 543-1994 (1993)

T017 ## \$aSS 938-1996 (1995)

1994. urteko memoria iristen bazaigu, dagoeneko alta egoeran ditugunekin tartekatuta behar dugu, katalogazioak liburukien hurrenkera kronologikoa mantentzeko:

T017 ## \$aSS 543-1994 (1993)

T017 ## \$aSS 823-1995 (1994)

T017 ## \$aSS 938-1996 (1995)

Mikroformak

Baliabide jarraituak mikrofitxa edo mikroforma euskarrian katalogatzeak etiketa espezifikoak erabiltzea eskatzen du. Esate baterako:

- **T007** – Deskribapen fisikoko eremu finkoa. Mikrofitxa edo mikroforma euskarrian dauden baliabide jarraituetarako erabiliko da.
- **T008** - Luzera finkoko informazio-kodeak. “23 Argitalpenaren forma” izeneko posizioan “b” mikrofitxa edo “a” mikrofilma kodea hautatuko da.
- **T245** - Izenburuaren aipua. \$h material mota azpideremua gaineratu beharko da:
 - o \$h [Mikroforma]
 - o \$h [Mikroforma]

Adibidea:

T007 he a|| b|a|

T008 151126c19809999sp zr p b o0 0a0baq c

T040 ## \$aO1000 \$bbaq \$cELS

T080 ## \$a34(460.15)(094.5)(043.2)

T080 ## \$a35(460.15)(094.5)(043.2)

T130 #0 \$aEuskal Herriko agintaritzaren aldizkaria (Mikrofitxa)

T245 10 \$aEuskal Herriko agintaritzaren aldizkaria [«h»Mikroforma] «b»= Euskal Herriko

Agintaritzaren Aldizkaria

T260 ## \$a[Gasteiz] : \$bEusko Jaurlaritzako Mikrofilm-Zerbitzua, \$c[1998?]-

T300 ## \$aMikrofitxak (977 fotogramak) : \$bnegatiboa ; \$c11 x 15 cm

Baliabide jarraitu elektronikoak

Baliabide jarraitu elektronikoen kasuan, eremu batzuk egokitu eta baliabide elektronikoei dagozkien zenbait etiketa bete beharko ditugu. Horiek betetzeko arauak eskuliburu honetan azaltzen dira eta euskarri digitalean argitalpen seriatuak katalogatzerakoan kontuan hartzeko eremuak **h** ikurrarekin adierazten dira.

Argitalpen seriatuak euskarri elektronikoan katalogatzeak etiketa espezifikoak erabiltzea eskatzen du. Esate baterako:

- **T007** – Deskribapen fisikoko eremu finkoa. Paper euskarrian ez dauden argitalpen seriatuen kasuan erabiliko da. *“00 Material mota”* eta *“01 Materialaren izendapen espezifikoa”* posizioak erabiliko ditugu soilik.
- **T008** - Luzera finkoko informazio-kodeak. *“23 Argitalpenaren forma”* posizioan **s** elektronikoa kodea hautatuko da. Kode horrek adierazten du dokumentua ordenagailu batekin erabiltzeko diseinaturik dagoela.
- **T080** - Saillapen Hamartar Unibertsaleko Zenbakia. Laguntzailea gaineratu beharko da (0.034)
- **T245** - Izenburuaren aipua. **h** material mota azpierzemua gaineratu beharko da:
 - o **h** [Recurso electrónico]
 - o **h** [Baliabide elektronikoa]
- **T256** - Ordenagailuko artxiboaren ezaugarriak.

Adibidea:

T256 ## \$aDatos
T256 ## \$aDatuak

- **T516** - Ordenagailuko artxibo edo datu motaren oharra.

Adibidea:

T516 ## \$aPrograma de ordenador
T516 ## \$aTexto

- **T538** - Sistemako xehetasunen oharra.

Adibidea:

T538 ## \$aProcesador Pentium multimedia o equivalente; resolución de pantalla 800 x 600; tarjeta gráfica a miles de colores; 64 Mb de RAM; sistema operativo Windows XP

Adibidea:

T017 ## \$aBI 2472-2005
T040 ## \$aO1000 \$bspa \$cELS
T080 1# \$a796(460.154Eibar)(0.034)
T245 00 \$aKiroldegi [**h**Recurso electrónico] /\$cClub Deportivo Eibar, Comisión Atletismo
T250 ## \$aEd. En CD-ROM
T256 ## \$aDatos

T260 ## \$aEibar : \$bClub Deportivo Eibar, Comisión Atletismo, \$c1982-1986
T300 ## \$a1 disco compacto (CD-ROM)
 T310 ## \$aAnual
 T362 0# \$aEn. 1982-n. 5 (feb. 1986) = 5 zk. (ots. 1986)
 T515 ## \$aVariaciones en la designación numérica
T516 ## \$aTexto
 T650 #1 \$aDeportes-\$zEibar
 T650 #4 \$aKirolak-\$zEibar
 T710 2# \$aClub Deportivo Eibar. \$bComisión Atletismo
 T911 2# \$aEibarko Klub Deportiboa. \$bAtletismo Taldea

Adibidea:

MARC bistaratzea

T080 ## \$a811.111.2:37.02-054.6)(0.034)
T084 ## \$aB5eng
T245 04 \$aThe Internet TESL journal [\$hRecurso electrónico] \$b: for teachers of English as a second language
T256 ## \$aDatos
T260 ## \$a[Toyota] : \$bInternet TESL Journal, \$c1995-2010
T300 ## \$av.
T310 ## \$aMensual
T362 0# \$aNov. 1995-v. 16, n. 11 (Nov. 2010)
T516 ## \$aTexto
T538 ## \$aInternet
T594 ## \$aTít. tomado de la pantalla inicial [consulta: 25 de agosto de 2011]
T650 #4 \$aIngelesa- \$vIkasketa eta irakaskuntza
T650 #1 \$aLengua inglesa-\$vEstudio y enseñanza
T830 #0 \$aLinguistics in the world
T856 40 \$uhttp://iteslj.org/ \$yInternet (Publicación)

Adibidea:

ISBD bistaratzea

Hummel, Kirsten M.
 The Internet TESL journal [**Recurso electrónico**] : for teachers of English as a second language. -- **Datos.** -- Nov. 1995-vol. 16, n. 11 (Nov. 2010). -- [Toyota] : Internet TESL Journal, 1995-2010

Texto

Modo de acceso: Internet

Tít. tomado de la pantalla inicial [consulta: 25 de agosto de 2011]

Ingelesa-Ikasketa eta irakaskuntza

Lengua inglesa-Estudio y enseñanza

811.111.2:37.02-054.6(0.034)

B5eng

Internet (Publicación)

Argitalpen seriatu kontrajarriak

Dokumentu kontrajarri edo irauliak berezko atari edota azala eta orrialde-zenbaketa dutenak dira. Gehienetan, dokumentu elebidunak dira, eta, haiek katalogatzeko, jarraibide hauei jarraituko diegu:

1. Katalogazio-hizkuntza: Katalogazio-hizkuntza hautatzeko, ezarritako jarraibideei jarraituko zaie.
2. T041 eremuan bi hizkuntzak adieraziko dira.
3. T245 eremuan bi izenburuak agertuko dira.

ISBD kontsolidatuan (1.1.4.2.2.) ezartzen denez, testu edota aurrez idatzitako informazio-iturriak bi hizkuntzatan edo estatus bereko idazkera ezberdinetan jasotzen dituzten baliabide kontrajarrien kasuan, zentro katalogatzailearen esku geratzen da izenburu nagusia hautatzea. **Izenburu nagusi modura hautatzen ez den izenburua pareko izenburu modura ematen da.** T594 ohar batean, baliabide kontrajarri bat dela azaldu beharko da.

Euskara/gaztelania lan kontrajarrien katalogazio-hizkuntza euskara izango da eta izenburu nagusia euskarazko izenburua izango da. Pareko izenburua (=), berriz, gaztelaniazko izenburua izango da.

4. T246 aterako da pareko izenburutik, adierazleak 1 eta 1.
5. T300 eremuan bi orrialde-zenbaketen orrialde kopurua adieraziko da, euskarazko zatiarekin hasita.
6. Oharrak. Dokumentu-mota horietan beti adieraziko dira ohar hauek:

T546 – Testua eta

Texto en y en

T594 – Badu, gainera, bere at. eta or. propioekin, testu bera behekoz gain (hizkuntza)

Contiene, además, con port. y pág. propias, texto contrapuesto en ... (idioma)

Adibidea:

T017 ## \$aBI 70-2001 (2000/2001)

T017 ## \$aBI 3000-2001 (2002/2004)

T040 ## \$aO1000 \$bbaq \$cELS

T041 1# \$abaq \$aspa

T080 1# \$a371.398(460.152Bilbo)

T080 1# \$a008(460.152Bilbo)

T245 00 \$aBilbao heziketa-gunea =\$bBilbao espacio educativo

T246 11 \$aBilbao espacio educativo

T260 ## \$aBilbao :\$bBilboko Udala, Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Saila = Ayto. de Bilbao, Área de Educación, Juventud y Deporte, \$cL.G. 2001

T300 ## \$a2 libk. :\$bir. ;\$c30 cm
T362 0# \$a2000/2001-2002/2004
T546 ## \$aTestua euskaraz eta gaztelaniaz
T594 ## \$alzenb. azaletik hartua
T594 ## \$aBadu, gainera, bere at. eta or. propioekin, testu bera behekoz gain gaztelaniaz
T650 #4 \$aEskolaz kanpoko ekintzak-\$zBilbo
T650 #1 \$aActividades extraescolares-\$zBilbao
T651 #4 \$aBilbo-\$xKultura
T651 #1 \$aBilbao-\$Cultura
T710 1# \$aBilbo. \$bHezkuntza, Gazteria eta Kirol Saila
T911 1# \$aBilbao. \$bÁrea de Educación, Juventud y Deporte


Bi argitalpen seriatu ezberdin dituen argitalpen iraulia:


Adibidea:

T017 ## \$aSS 422-2007
T022 ## \$a1959-7215
T040 ## \$aO1000\$bbaq \$cELS
T080 ## \$a379.8-053.81(460.15/.16+447.95)
T080 ## \$a323.22-053.81(460.15/.16+447.95)
T080 ## \$a78(460.15/.16+447.95)
T222 #0 \$aXirika KZ
T245 00 \$aXirika KZ. \$bXirika MSKL
T246 13 \$aXirika gazteon kazeta
T246 15 \$aXirika MSKL
T260 ## \$aSenpere (Lapurdi) :\$bOZezengorri, \$cL.G. 2007-
T300 ## \$alibk.: \$bir.; \$c30 cm
T310 ## \$aHilabetekaria
T362 0# \$a01 zk. (2007ko ots.)-
T594 ## \$alzenb. azaletik hartua
T594 ## \$aBadu, gainera, bere az. eta or. propioekin, aldizkari honen testu bera behekoz gain: Xirika MSKL
T650 #1 \$aJóvenes-\$xActividad recreativa-\$zEuskal Herria
T650 #4 \$aGazteak-\$xJolas-ekintza-\$zEuskal Herria
T650 #1 \$aJóvenes-\$xActividad política-\$zEuskal Herria
T650 #4 \$aGazteak-\$xPolitika jarduera-\$zEuskal Herria
T650 #1 \$aMúsica-\$zEuskal Herria
T650 #4 \$aMusika-\$zEuskal Herria
T780 01 \$t«LK_»Xirika«LK="232443".TITN.» \$x1765-4831

Katalogazio-taulak:

Programak aukera ematen du MARC eremuekin lotutako informazioa sortzeko, gerora erregistroetako katalogazioan erabiltzeko: katalogazio-hizkuntza, lanaren hizkuntza, hartzailea, material mota, eta abar. Hura lokalizatzeko etiketaren gainean eta

“Katalogoziorako laguntza” ikonoan  laguntza hori zehaztua duen azpieroan kokatuta egongo gara.



The screenshot shows a web application interface for a library catalog. At the top, there is a toolbar with several icons, one of which is circled in red. Below the toolbar is a table with columns for 'Eremua', '1go A.', '2. A.', and 'Azpieroak'. The table contains several rows of data, including record numbers like T008, T017, T020, T040, T041, T080, T084, T100, T245, T260, T300, T490, T521, T650, and T650. A dialog box titled 'absysNET Katalogoen taulak' is open in the foreground, displaying a table of language codes and their corresponding descriptions. The 'baq' code for 'Euskera' is highlighted. The dialog box has 'Onartu' and 'Ezeztatu' buttons at the bottom.

Kodea	Azalpena	Hautazko deskripzioa
alb	Albanés	Albaniera
amh	Amárico	Amharera
ara	Árabe	Arabiera
arc	Arameo	Aramera
arm	Armenio	Armeniera
ast	Asturiano	Asturiera
aze	Azerí / Azerbaijanés	Azerbaijanera
bam	Bámbara	Bambara
baq	Euskera	Euskara
ben	Bengalí	Bengalera

Agintaritzetara jotzeko eremuak

Katalogazioko zenbait eremuk AUTO katalogoan sortutako agintaritzetara eramango gaituzte.

Eskuliburu honetan eremu horiek koadro hau barneratzen dute:

Eremu honek Agintaritza batera eramango zaitu

Goiburu berri bat edo gai berri bat gaineratu aurretik AUTO eremuan bilaketa egin behar da, dagoeneko badagoen ikusteko.

Agintaritza hori ez badago, sortu egingo dugu.

Jarraian, gaiari dagozkion bigarren mailako goiburu motak eta AUTO eremuan duten ezarpen modua jasotzen dira.

	CATA	CATA- agintaritza elebiduna	AUTO
PAP-Pertsona-izena	T100	T900	T100
PAP-Erakunde korporatiboaren izena	T110	T901	T110
PAP-Kongresuaren izena	T111	T902	T111
PAP-Izenburu hautatua	T130	T903	T130
Izenburu hautatua	T240	T940	T130
Izenburu hautatu kolektiboa	T243	T941	T130
PAAM-Pertsona-izena	T600	T600	T100
PAAM-Erakunde korporatiboaren izena	T610	T610	T110
PAAM-Kongresuaren izena	T611	T611	T111
PAAM-Izenburu hautatua	T630	T630	T130
PAAM-Gaiaren izendapena	T650	T650	T150
PAAM-Izen geografikoa	T651	T651	T151
PAAM-Indexazioaren izendapena - Generoa / Forma	T655	T655	T155
PAA- Pertsona-izena	T700	T910	T100
PAA-Erakunde korporatiboaren izena	T710	T911	T110
PAA- Kongresuaren izena	T711	T912	T111
PAA- Izenburu hautatua	T730	T913	T130
PAAS-Pertsona-izena	T800	T942	T100
PAAS-Izenburu hautatua	T830	T943	T130

PAP -Sarrera Nagusia

PAP -Sarrera Gehigarria

PAAM -Gaiaren Sarrera Gehigarria
PAAS -Serieko Sarrera Gehigarria

Adibidea:
CATAn
T110 2# \$a Boluntariotzaren Euskal Kontseilua
T240 10 \$a Urteko memoria (Paperean argit.)
T245 10 \$a Urteko memoria / \$c Boluntariotzaren Euskal Kontseilua
T940 0# \$a Urteko memoria (Ed. impresa)
AUTOn
T110 2# \$a Boluntariotzaren Euskal Kontseilua
T710 24 \$aConsejo Vasco del Voluntariado
T130 #0 \$a Urteko memoria (Paperean argit.)
T730 04 \$aUrteko memoria (Ed. impresa)
T130 1 0 \$a Memoria (Ed. impresa)
T730 04 \$aUrteko memoria (Paperean argit.)

Deskribapen berria beharrezko duten aldaketak

Argitalpen seriatuen izenburu nagusian aldaketa handiak direnean. Argitalpen seriatuen kasuan, deskribapen berria beharrezkoa izango da izenburu nagusian aldaketak daudenean. Aldaketa handizat honako hauek joko dira:

1. Izenburuko lehen bost hitzetako bat (lehen sei hitzetako bat, izenburua artikulua batez hasten bada) aldatu, kendu, lekuz aldatu edo gehitzen denean.

Adibidea:

Energy policy and conservation biennial report

Hau bihurtu da: Energy policy and conservation report

2. Gehitzen, kentzen edo aldatzen den hitza lehen bost hitzen ondorengoa izanik (edo lehen sei hitzen ondorengoa, izenburua artikulua batez hasten bada), izenburuaren esanahia aldatu egiten denean edo beste gai-eremu bat adierazten duenean.

Adibidea:

The best bed & breakfasts in the world

Hau bihurtu da: The best bed & breakfasts in England, Scotland & Wales

Iruzkina: (Beste geografia-eremu bat adierazten du)

3. Izenburuan aipatutako korporazio bat aldatzen denean.

Adibidea:

Memoria anual del Banco de Bilbao

Hau bihurtu da: Memoria anual del Banco Bilbao Vizcaya

4. Izenburu nagusia generikoa izanik, korporazio erantzulearen izena aldatzen denean edota beste korporazio bat hasten denean argitalpen seriatua argitaratzen.

Adibidea:

Serie congresos / Sociedad Geológica de España

Hau bihurtu da: Serie congresos / Sociedad Geológica y Minera de España

5. Edizioaren aipua aldatu eta, ondorioz, aldaketa nabarmena dagoenean argitalpen seriatuaren irismen-esparruan.

Adibidea:

Qué fácil. -- Argit. Bizkaia

Hau bihurtu da: Qué fácil. -- Argit. Eskuinaldea

6. Euskarri fisikoa aldatzen denean.

Adibidea:

Directorio empresarial de Álava (CD-ROM)
--

<i>Hau bihurtu da:</i> Directorio empresarial de Álava (Memoria USB)
--

7. Menpekoa zen izenburu bat izenburu bereizi bihurtzen denean.

Adibidea:

Revista de ciencias. Serie A, Química básica
--

<i>Hau bihurtu da:</i> Oinarrizko kimika
--

8. Argitalpen seriatu berri bat sortzen denean argitalpen bi edo gehiago uztartuta.

Adibidea:

Coyuntura industrial regional

<i>eta</i> Utilización de la capacidad productiva regional
--

<i>Uztartu eta honako hau osatzen dute:</i> Boletín de coyuntura y estadística del País Vasco

9. Argitalpen seriatu bi edo gehiago sortzen direnean beste bat bereizita.

Adibidea:

Cuadernos de sección. Antropología, etnografía, prehistoria, arqueología
--

<i>Hauetan bereizita:</i> Cuadernos de sección. Antropología y etnografía;
--

<i>eta hauetan:</i> Cuadernos de sección. Prehistoria y arqueología

Deskribapen berririk behar ez duten aldaketak

Argitalpen seriatuen izenburuan aldaketa txikiak direnean. Argitalpen seriatu baten izenburu nagusian aldaketa txikiak gertatzen badira, ez da beharrezkoa izango deskribapen berririk egitea. Oro har, aldaketa txiki bat gertatzen denean, izenburu berria **T246** eremuan idatziko da eta, beharrezkoa dela iritziz gero, **T594** oharrean.

Aldaketa txikitzat honako hauek hartuko dira:

1. Hitz baten edo gehiagoren adierazpidea aldatzen denean. Adibidez:
 - a. Ortografia-aldaketak. Aldaketa tipografikoek ez dute deskribapen berria eskatuko.

Adibidea:	
	Labour history
<i>Hau bihurtu da:</i>	Labor history

- b. Batetik ikurrak, zeinuak edo laburtzapenak (adibidez, "&") daudenean eta bestetik forma osoak.

Adibideak:	
	Casa y jardín
<i>Hau bihurtu da:</i>	Casa & jardín
	Tolosa'ko zezenak
<i>Hau bihurtu da:</i>	Tolosako zezenak

- c. Batetik zenbaki arabiarrek daudenean eta bestetik erromatarrek.

Adibidea:	
	XXe siècle
<i>Hau bihurtu da:</i>	20e siècle

- d. Batetik zenbakiak edo datak daudenean eta bestetik hitzezko forma osoak.

Adibidea:	
	XX century
<i>Hau bihurtu da:</i>	Twentieth century

- e. Batetik hitzak marratxoarekin idatzita daudenean eta bestetik marratxorik gabe.

Adibidea:	
	Year-book of the ...
<i>Hau bihurtu da:</i>	Year book of the ...

- f. Batetik batera idatzitako hitz elkartuak daudenean eta bestetik bereizi idatzitakoak, marratxoarekin nahiz gabe.

Adibidea:	
	Openhouse
<i>Hau bihurtu da:</i>	Open house

2. Batetik akronimoak edo siglak daudenean eta bestetik forma osoa.

Adibidea:	
	Research in technological adaptation
<i>Hau bihurtu da:</i>	RITA

3. Hitz bat jokatzeko moduan aldaketa dagoenean (adibidez, singularretik pluralera).

Adibidea:	
	Fishery report
<i>Hau bihurtu da:</i>	Fisheries report
	Research studies
<i>Hau bihurtu da:</i>	Research study

Euskaraz hitzen jokia sarritan aldatzen denez (deklinabidea), arau hau oso kontuan hartzea komeni da.

Adibidea:	
	Eusko Legebiltzarrari txostena
<i>Hau bihurtu da:</i>	Eusko Legebiltzarrarentzako txostena

4. Izenburuaren edozein lekutan artikulua, preposizioak edo juntagailuak gehitzen, ezabatzen edo aldatzen direnean.

Adibideak:	
	El correo bibliotecario
<i>Hau bihurtu da:</i>	Correo bibliotecario
	Fiscal survey of the states
<i>Hau bihurtu da:</i>	The fiscal survey of states

5. Ageri den korporazioaren izena eta haren hierarkiako elementuena edota beren arteko lotura gramatikala izenburuaren edozein lekutan aldatzen denean (adibidez, korporazioaren izena gehitzea, ezabatzea edo beste leku batean jartzea, edo izenaren aldaera bat erabiltzea, izen laburtuak barne).

Adibideak:	
<i>Hau bihurtu da:</i>	Rapport de la Société canadienne de l’Eglise catholique Rapport / Société canadienne de l’Eglise catholique
<i>Hau bihurtu da:</i>	Views / Goodridge Area Historical Society Views from the Goodridge Area Historical Society Views from the GAHS

6. Izenburuaren edozein lekutan puntuazioa gehitzen, ezabatzen edo aldatzen denean; horien barruan sartzen dira puntuaz bereizitako akronimoak eta letrak eta punturik gabe idatzitakoak.

Adibidea:	
<i>Hau bihurtu da:</i>	GBB G.B.B.

7. Informazio-iturri nagusian izenburua hainbat hizkuntzatan azaltzen den kasuetan, izenburuak hurrenkeraz aldatzen direnean, betiere baldin eta lehen izenburu nagusizat hartu izan dena pareko izenburu gisa ageri bada.

Adibidea:	
<i>Hau bihurtu da:</i>	Lurralde datutegia: E.H.A.E.-ko bizitegi-lurzorua eta jarduera ekonomikoetarakoa = Banco de datos territoriales : suelo residencial y de actividades económicas de la C.A.P.V. Banco de datos territoriales : suelo residencial y de actividades económicas de la C.A.P.V. = Lurralde datutegia : E.H.A.E.-ko bizitegi-lurzorua eta jarduera ekonomikoetarakoa

Arau hau garrantzitsua da euskarazko eta gaztelaniazko pareko izenburuak dauden kasuetan; izan ere, askotan izenburua gaztelaniaz besterik ez da ageri, eta geroago bi hizkuntzetan, gaztelaniaz eta euskaraz (edo alderantziz). Kasuistika ugaria eta denetarikoa denez, koadro honetan araua nola aplikatzen den ikus daiteke:

1. izenb. gaztelaniaz	→	<i>Bi erregistro bibliografiko</i>
2. izenb. euskaraz = gaztelaniaz		
1. izenb. euskaraz = gaztelaniaz	→	<i>Bi erregistro bibliografiko</i>
2. izenb. gaztelaniaz		
1. izenb. gaztelaniaz = euskaraz	→	<i>Bi erregistro bibliografiko</i>
2. izenb. euskaraz		
1. izenb. gaztelaniaz	→	<i>Erregistro bibliografiko bakarra</i>
2. izenb. gaztelaniaz = euskaraz		

1. izenb. gaztelaniaz = euskaraz	→	Erregistro bibliografiko bakarra
2. izenb. euskaraz = gaztelaniaz		
1. izenb. gaztelaniaz = euskaraz	→	Erregistro bibliografiko bakarra
2. izenb. gaztelaniaz		

8. Izenburua zenbakiarekin lotzen duten hitzak gehitzen, ezabatzen edo aldatzen direnean izenburuaren edozein lekutan.

Adibidea:	
	Informe de situación de Osakidetza
<i>Hau bihurtu da:</i>	Informe de situación de Osakidetza en ...

9. Argitalpen seriatu baten faszikuluetan izenburu nagusi bi edo gehiago azaltzen direnean, aurrez ezarritako eredu bati jarraituz.

Adibidea:	
	Weekly labor market report
<i>Hileroko azken faszikuluaren izenburua:</i>	Monthly labor market report

10. Zerrenda bateko hitzak gehitzen, ezabatzen edo lekuz aldatzen direnean izenburuaren edozein lekutan, betiere gaiari aldaketa nabarmenik eragiten ez bazaio.

Adibidea:	
	Guía cultural de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa
<i>Hau bihurtu da:</i>	Guía cultural de Bizkaia, Gipuzkoa y Álava

11. Baliabide mota adierazten duten hitzak gehitzen edo ezabatzen direnean izenburuaren edozein lekutan, hala nola “aldizkaria”, “boletín”, “berripapera”, “hoja informativa”, “magazine”, “journal” edo “newsletter” edota beste hizkuntzetako baliokideak.

Adibideak:	
	Colección ciencias y técnicas
<i>Hau bihurtu da:</i>	Ciencias y técnicas
	Elkar aldizkaria
<i>Hau bihurtu da:</i>	Elkar

- **Baina baliabide mota adierazten duen hitza izenburuaren lehen bost hitzen barnean aldatzen bada, aldaketa handiago da.

Adibidea:	
	Link magazine
<i>Hau bihurtu da:</i>	Link journal

12. Zalantzarik izanez gero, izenburua aldatu gabe dagoela joko da.

ARGITALPEN SERIATUEN KATALOGAZIOA

ORRIBURUA (EE)

Erregistro bibliografikoaren lehen eremua da. Eremu finkoa da, erregistro bakoitzaren lehen 24 posizioak **(00-23)** hartzen ditu eta erregistroa prozesatzeko beharrezko den informazioa jasotzen du.

- Erregistro berrietarako, programak **“lehenetsita”** ematen dituen zenbaki edo balioek balio dute.
- **“Kontrol mota” hutsik** utzi behar da.
- **“Kodifikazio-maila” hutsik** utzi behar da.
- **“Erlazionatutako erregistroaren kodea” hutsik** utzi behar da.

Ondoren, posizio nagusiak azalduko dira.

Posizioak

05 Erregistroaren egoera

Erregistroaren eta fitxategiaren arteko erlazioa adierazten duen eta karaktere batekoa den kode alfabetikoa, hura mantentzeko.

n *Berria*

06 Erregistro-mota

Erregistroaren ezaugarri eta osagaiak zehazteko erabiltzen den eta karaktere batekoa den kode alfabetikoa. Baliabide jarraituen kasuan hau izango da:

a *Testu-materiala.* Eskuz idatzitakoa (paperekoa) ez den testu-materialerako erabilia, eta baita mikroforma eta baliabide elektronikoetarako ere.

07 Maila bibliografikoa

Erregistroaren maila bibliografikoa adierazten duen eta letra bakarrekoa den kode alfabetiko bat.

s *Argitalpen seriatua.* Hurrenez hurrengo zatitan argitaratzen den dokumentu bibliografikoa, zenbaki batez edo denborazko adierazpenez izendatua, jarraipen mugagabea izateko asmoa duena. Argitalpen seriatuetan sartzen dira: egunkariak, urteko argitalpenak (txostenak, urtekariak, eta abar), aldizkariak, sozietateetako akta eta memoriak, monografietakoa serie zenbakituak, eta abar.

08 Kontrol mota

Ez du dokumentu mota zehazten. Ez zaio inolako motarik aplikatzen deskribatzen den dokumentuari.

09 Karaktere-kodifikazioaren eskema

Erregistro batean erabilitako karaktereen kodifikazioaren sistema zein den zehazten du.

MARC-8. MARC21ean deskribatutako 8 bit-eko jokoa.

17 Kodifikazio-maila

Informazio bibliografikoaren zehaztasuna edota erregistro bibliografikoaren kodetze-maila adierazten duen kode alfanumeriko bat da, karaktere bakarrekoa.

Maila osoa. Alearen azterketa zuzenaren ondoriozko deskribapen osoa. Argitalpen seriatuen kasuan, dagokion argitalpenaren zenbaki bat gutxienez aztertu behar da.

18 Katalogazio deskriptiboa

Erregistroaren deskribapen-datuen ezaugarriak katalogazio-arauen arabera adierazten dituen kode alfanumeriko bat. Beti “**puntuaziorik gabeko ISBD**” baten alde egingo dugu, hori baita lehenetsita agertzen den aukera.

c **Puntuaziorik gabeko ISBD.** Erregistroan, deskribapenari dagokion zatian, ISBD deskribapenaren puntuazioari buruzko xedapenak daude. Dena den, ISBD puntuazioa ez da agertzen azpieroemu baten amaieran. Gure kasuan, kode hori **beti** erabiliko da.

19 Erlazionatutako erregistroaren kodea

Ez du behar erlazionatutako erregistrorik

Goiburua	Goiburua
Erregistroaren egoera	<input type="text" value="n"/>
Erregistro-mota	<input type="text" value="a"/>
Maila bibliografikoa	<input type="text" value="s"/>
Kontrol mota	<input type="text"/>
Karaktereen kodifikazio eskema	<input type="text"/>
Kodifikazio-maila	<input type="text"/>
Katalogazio deskriptiboaren forma	<input type="text" value="c"/>
Zati anitzeko baliabide baten erregistro-maila	<input type="text"/>

Goiburua	Goiburua	
Erregistroaren egoera	<input type="text" value="n"/>	
Erregistro-mota	<input type="text" value="a"/>	
Maila bibliografikoa	<input type="text" value="s"/>	
Kontrol mota	<input type="text"/>	
Karaktereen kodifikazio eskema	<input type="text" value="8"/>	
Kodifikazio-maila	<input type="text"/>	
Katalogazio deskriptiboaren forma	<input type="text" value="b"/>	
Zati anitzeko baliabide baten erregistro-maila	<input type="text"/>	

T001 KONTROL-ZENBAKIA (EE)

Sistemak automatikoki sortutako kontrol-zenbakia du. Bat dator izenburu-zenbakiarekin. Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

```
..T001:  
00769190
```

T003 KONTROL-ZENBAKIAREN (EE) IDENTIFIKATZAILEA

Zentro katalogatzaileari dagokion MARC kodea. Eremu hori sistemak sortzen du automatikoki. Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

Gure kasuan, hau da esleitutako MARC kodea:

ES-VgaRLPE

```
..T003:  
ES-VgaRLPE
```

T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA (R)

Dokumentu baten ezaugarri fisikoei buruz modu kodetuan emandako informazio berezia. Informazioak dokumentu osoari buruzkoak edo hartako atal bati buruzkoak izan daitezke; esate baterako, atxikitako materialarenak.

Eremu honetan ez dago adierazlerik, ezta azpieremu-koderik ere. Elementuak, posizioari dagokienez, material motaren arabera zehazten dira: mapa, baliabide elektronikoa, globoa, material ukigarria, proiektu daitekeen material grafikoa, film zinematografikoa, sorta, musika notaduna, teledetekzio-irudia, soinu-grabaketa, testua, bideo-grabazioa eta zehaztu gabea.


Soilik paper formatuan ez dauden baliabide jarraituen kasuan beteko da: mikroforma, baliabide elektronikoa (diskete, CD, DVD edota USB memoria formatuan), urruneko baliabidea, eta abar.

AbsysNet tresnak eremu honetan eskaintzen dituen aukeren artean, deskribatzen ari garen materialari (baliabide elektronikoa, mikroforma) ondoen egokitzen zaiona hautatuko dugu.

T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA – BALIABIDE ELEKTRONIKOA (R)


Ordenagailu bidez erabili edo prozesatzeko sortutako bitarteko bat egotea eskatzen du dokumentuak.

Pantailaren ezkerrealdeko zuhaitzean dagokion aukera hautatuko dugu.



The screenshot shows a software interface with a tree view on the left and a main data area. The tree view has a red box around the 'T007' item. The main area displays a table with columns: Aldizkakoak, Eremua, Igo A., 2. A., and Azpierenmuak. Below the table, there is a form for 'T007' with the title 'Deskribapen fisikoaren eremu finkoa Baliabide elektronikoa'. The form contains several input fields:

Material-mota	<input type="text" value="c"/>	Materialaren izendapen espezifikoa	<input type="text" value="r"/>
Kolorea	<input type="text" value="c"/>	Neurriak	<input type="text" value="n"/>
Soinua	<input type="text"/>	Irudiaren kolore sakontasuna	<input type="text" value=" "/>
Fitxategiaren formatuak	<input type="text" value="a"/>	Kalitate kontrolaren adierazleak	<input type="text"/>
Aurrekaria/Iturria	<input type="text"/>	Konpresio-maila	<input type="text"/>



This screenshot is similar to the one above but includes a tooltip over the 'T007' item in the tree view. The tooltip text reads: 'Deskribapen fisikoaren eremu finkoa Baliabide elektronikoa'. The main data area and form are identical to the previous screenshot.

POSIZIOAK

00- Material mota

Dokumentua baliabide elektronikoko material motarekin (esate baterako, programak, datu-artxiboak, irudi-artxiboak, audio-zintak eta bideo-zinta digitalizatuak, eta abar) bat datorrela adierazten duen kode alfabetikoa, hitz bakarrekoa. Oro har, ordenagailuz irakur daitezkeen datu digitalizatuak edota programa-kodeak dira, ordenagailu bidez sartu, prozesatu edo exekutatzekoak.

c	<i>Baliabide elektronikoa</i>
----------	--------------------------------------

01 – Materialaren izendapen espezifikoa

Dokumentu bat zein material mota zehatzi dagokion adierazteko.

j	<i>Disko magnetikoa.</i> Informazio digitala gordetzeko euskarria. Normalean material magnetiko batez estalitako Mylar disko txiki bat izaten da, datuak erregistratzea ahalbidetzen duena. Disko magnetikoak tamaina ugariak izaten dira. Disko malgu, disko zurrun, ordenagailuko diskete edo diskete malgu ere esaten zaie.
o	<i>Disko optikoa.</i> Datuak gorde ahal izateko grabazioko azalera berezi baten gainean laser bidez egindako zulo mikroskopiko batzuk (pit) erabiltzen dituen euskarria. Grabatutako datuak optikoki irakurtzen dira. Normalean, disko horiek irakurketarako euskarriak baino ez dira izaten. Hauek dira disko optikoen formatu ohikoenak: CD-A, CD-I, CD-R, CD-ROM, CD-ROM-XA, DVD-ROM eta Photo CD.
r	<i>Urrunekoa.</i> Urrunetik eskuratu, prozesatu edota exekutatu den baliabide elektronikoa. Kasu honetan baliabide elektronikoa ordenagailu bati elektronikoki konektatutako sarrera/irteera gailuekin erabiltzen da. Horrek, sarritan, sare bidezko konexioa eskatzen du.
z	Bestelakoa. Zehaztutako beste kodeak ez dira aplikagarriak.

03 – Kolorea

Kolorearen ezaugarriak.

a	<i>Monokromoa.</i> Irudiak beltza ez den kolore bakar batean ematen dira (esate baterako, arrosa eta zuria, marroia eta zuria). Irudiak zuri-beltzean badaude b kodea erabiltzen da.
b	<i>Zuri-beltza.</i> Irudiak zuri-beltzean ematen dira.
c	<i>Polikromoa.</i> Irudia kolore bat baino gehiagoan inprimatu edo exekutatu da.

m **Mistoa.** Lan edo bilduma kolorebakarra, zuri-beltza, polikromoa, eskuz koloreztatuak edota beste mota batekoak konbinatuz ematen da.

04 – Dimentsioak

Baliabide elektronikoa kodetzeko erabilitako euskarriaren dimentsioak.

Ohiko dimentsioak adierazten dira soilik. Sarritan, dimentsioak euskarri magnetiko edo optikoa duen ontzian aplikatzen dira. 007/04ean, soilik, deskribapen fisikoan emandako neurrien arabera dokumentuaren neurriekin zehaztasun osoz bat datozen kodeak erabili behar dira. Zehaztasun osoz bat ez badatoz, z kodea erabiltzen da.

a	3 ½ hazbete = 9 cm Euskarriaren diametroa 3 ½ hazbetekoa da. Normalean, disko magnetiko baten diametroari dagokio.
g	4 ¾ hazbete. = 12 cm. Euskarriaren diametroa 4 ¾ hazbetekoa da. Normalean, disko optikoen edo disko magnetiko-optikoen diametroari dagokio.
n	Ez da aplikatzekoa. Dimentsio fisikoak ez dira aplikatzen baliabide elektronikoen. Kode hau urruneko ordenagailu-artxiboetarako eta euskarri espezifiko aldakorrek baliabide elektronikoen erabiltzen da. (Urruneko artxiboak)
z	Bestelakoa. Zehaztutako beste kodeak ez dira aplikagarriak.

05 – Soinua

Soinuaren ekoizpena ordenagailu-artxiboari dagokion adierazten du.

#	Soinurik gabe (mutua). Ez du soinurik ateratzen.
a	Soinua. Digitalki kodetutako soinua dauka edo atera dezake.

06-08 – Irudiaren kolore-sakontasuna

| **Ez da erabiltzen.**

09 - Artxiboaren formatuak

Baliabide elektronikoak dituen artxiboak formatu edo mota berekoak diren adierazten du berriro modu digitalean formateatutako materialetarako. Balioek ez dute adierazten erregistroaren eremu aldakorretan sar daitezkeen artxibo-formatuen mota espezifikorik. Informazioak erabilitako artxibo-formatuen kopurua adierazten du.

a **Artxibo-formatu bat.** Baliabide elektronikoak dituen artxiboak mota edo formatu berekoak dira (esate baterako, guztiak .jpg; guztiak .tiff; guztiak .txt; guztiak .wav; guztiak .mpg; eta abar).

- m** **Artxibo-formatu ugari.** Baliabide elektronikoak dituen artxiboak, gutxienez, bi formatutakoak dira (esate baterako, jpg eta .tiff; .tiff eta .txt; .sgml eta .wav; eta abar)
- u** **Ezezaguna.** Baliabide elektronikoak dituen artxiboen formatua ezezaguna da.

10 – Kalitate-kontrolaren adierazleak

| **Ez da erabiltzen.**

12 – Ulermen-maila

| **Ez da erabiltzen.**

13 – Berriro formateatzearen kalitatea

| **Ez da erabiltzen.**

T007 eremuaren adibidea urruneko baliabide baterako [TITN: 793508]


Baliabide elektronikoa, urrunekoa, polikromoa, dimentsioak: ez da aplikatzekoa, soinurik gabe, formatu bakarra.

T007		Deskribapen fisikoaren eremu finkoa Baliabide elektronikoa	
Material-mota	<input type="text" value="c"/>	Materialaren izendapen espezifikoa	<input type="text" value="r"/>
Kolorea	<input type="text" value="c"/>	Neurriak	<input type="text" value="n"/>
Soinua	<input type="text"/>	Irudiaren kolore sakontasuna	<input type="text" value=" "/>
Fitxategiaren formatuak	<input type="text" value="a"/>	Kalitate kontrolaren adierazleak	<input type="text"/>
Aurrekaria/Iturria	<input type="text"/>	Konpresio-maila	<input type="text"/>
Birformateatzearen kalitatea	<input type="text"/>		

T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA – MIKROFORMA (R)

Dokumentua mikroforma bat da. Mikroforma mikroirudiak dituen edozein bitarteko – gardena edo opakua– izendatzeko erabiltzen den izen orokorra da. Mikroirudi bat testu-materialeko unitate bat da (esate baterako, orri bat), grafikoa edo ordenagailu bidez sortua, zulatutako txarteletan, mikrofitxetan, mikrofilmetan, mikroopaketan edo beste mikroformatu batzuetan dagoena eta handitu gabe irakur ezin daitekeena. Mikroformak izan daitezke aldez aurretik dauden testu-erreproduzio edo material grafikoak edo jatorrizko argitalpenak.

Pantailaren ezkerrealdeko zuhaitzean dagokion aukera hautatuko dugu.



POSIZIOAK

00- Material mota

Dokumentua mikroforma erako material motakoa dela adierazten duen kode alfabetikoa, hizki bakarrekoa.

h *Mikroforma*

01- Materialaren izendapen espezifikoa

Proiektu daitekeen material grafikoetan dokumentuari dagokion mota espezifikoa (esate baterako, mikroopaku bat).

d *Mikrofilm-harila*. Argazki-film baten zerrenda bat da, erlaitza (edo harila) duen euskarri ireki baten gainean kiribildua.

e	Mikrofitxa. Lauki-sare batean (zutabe eta lerroen seriea) ordenatutako mikroirudiak dituen argazki-film erako orri gardena, dokumentua identifikatzeko (begirada hutsez irakurtzeko moduko tamaina duen testu batean) informazioa ematen duen goiburu bat duena.
----------	---

03- Polaritatea

Mikroformaren polaritate positibo/negatiboa.

a	Positiboa. Lerroak eta karaktereak ilunak dira, atzealde argiaren gainean. Mikroopakuak beti a kodearekin adierazten dira.
b	Negatiboa. Lerroak eta karaktereak argiak dira, atzealde ilunaren gainean.

04- Dimentsioak

Mikroformaren dimentsioak adierazten ditu. Ez ditu irudiaren dimentsioak adierazten.

a	8 mm
d	16 mm
f	35 mm
g	70 mm
h	105 mm
l	3 x 5 hazbete edo 8 x 13 cm
m	4 x 6 hazbete edo 11 x 15 cm
o	6 x 9 hazbete edo 16 x 23 cm
p	3 ¼ x 7 3/8 edo 9 x 19 cm. Irekitze-txartel baten altuera eta zabalera hazbete edo zentimetrotan.
u	Ezezaguna. Dimentsioak ez dira ezagunak.

05 - Murriztapen-maila

Mikroforma baten murriztapen-maila.

l	Ez da erabiltzen
----------	-------------------------

06-08 - Murriztapenaren indizea

Hutsik utzi.

09- Kolorea

Irudiaren kolorea mikroformetan.

- | | |
|----------|---|
| b | Zuri-beltza. Irudia zuri-beltzean dago (normalean beltza eta gardena). |
| c | Polikromoa Kolore bat baino gehiago ditu. |
| m | Mistoa. Irudi koloredunen eta monokromodunen nahasketa. |

10 – Filmaren emultsioa

Filmaren material fotosentikor mota.

- | | |
|----------|-------------------------|
| | Ez da erabiltzen |
|----------|-------------------------|

11 – Belaunaldia

Mikroforma baten belaunaldi-maila.

- | | |
|----------|-------------------------------------|
| a | Lehen belaunaldia (masterra) |
| c | Erabilera-kopia |
| | Ez da erabiltzen |

12 – Filmaren oinarria

- | | |
|----------|-------------------------|
| | Ez da erabiltzen |
|----------|-------------------------|

T007 eremuaren adibidea mikroforma baterako [TITN: 786218]

Mikroforma, mikrofitxa, positiboa, 11 x 15 cm, zuri-beltza (monokromoa)

T007		Deskribapen fisikoaren eremu finkoa - Mikroforma	
Material-mota	<input type="text" value="h"/>	Materialaren izendapen espezifikoa	<input type="text" value="e"/>
Polaritatea	<input type="text" value="a"/>	Neurriak	<input type="text" value="m"/>
Murrizketa-maila	<input type="text" value=" "/>	Murrizketaren indizea	<input type="text"/>
Kolorea	<input type="text" value="b"/>	Filmaren emultsioa	<input type="text" value=" "/>
Sorkuntza	<input type="text" value="c"/>	Filmaren oinarria	<input type="text" value=" "/>

008 LUZERA FINKOKO INFORMAZIO-KODEAK – BALIABIDE JARRAITUAK (NR)

Eremu honek **karaktereen 40 posizio** hartzen ditu (00-39), eta erregistro osoari buruzko informazio kodetua eta katalogatu beharreko dokumentuaren ezaugarri bibliografiko bereziak jasotzen dira bertan.

Kode alfabetikoak hizki xehez idatziko dira.

OSO GARRANTZITSUA DA EREMU HAU ZUZEN BETETZEA, DATU KODETUAK BALIAGARRIAK IZAN BAITAITEZKE ERREGISTROAK BERRESKURATZEKO ETA ADMINISTRAZIO-LANETARAKO.

Posizioak

00-05 - Sarrera-data fitxategian

Sistemak sortutako sei zenbaki-karaktere, erregistroa sortu zen eguna zehaztekoak, *uuhee* patroiarekin (esate baterako: 120510- 2012ko maiatzak 10).

Erregistro berri bat gaineratzen den aldiro edo datu-base batetik hartzen den bakoitzean, sistemak alta ematen zaion egunaren data esleituko dio automatikoki.

Aldaketen data eta ordua T005 eremuan geratzen dira erregistratuta automatikoki (azken transakzioaren data eta ordua). Editatu ezin den eremu bat da: Update formatuan ikus daiteke soilik.

06 – Data mota / argitalpenaren egoera

T008/07-10 (Lehen data) eta **T008/11-14**(Bigarren data) posizioetan emandako data zein kategoriari dagokion adierazteko kode alfabetiko hizki bakarrekoa. Halaber, argitalpenaren egoera ere adierazten du.

Erregistro gehien kasuan, informazio hori T362 eremuan (Argitalpen-datak edota sekuentziaren izendapena) jasotzen den datatik dator.

008/07-10 posizioak argitalpenaren hasiera-data du (izendapen kronologikoa), eta 008/11-14 posizioak, argitalpen-amaierari dagokiona. Argitalpen seriatuetako erreproduzio eta berrinprimatzeetarako posizio horietan jatorrizkoari dagozkion hasiera- eta amaiera-datak ipintzen dira.

c	<i>Argitalpena abian duen baliabide jarraitua (Lehenetsita)</i>
d	<i>Argitalpen itxia</i>
u	<i>Egoera ezezaguna</i>

Adibidea:

Tipo de fecha: **c**

Primera fecha: **1992**

Segunda fecha: **9999**

T260 ## \$aElorrio : **\$b**Eroski, **\$c**1992-

Abian den argitalpen baten kasuan edota noiz amaitzen den jakiten ez denean.

Adibidea:

Tipo de fecha: **c**

Primera fecha: **1953**

Segunda fecha: **9999**

T260 ## \$aBilbao : **\$b**Ayuntamiento, **\$c**1953

T362 1# \$aComenzó en: 1953

Adibidea:

Tipo de fecha: **c**

Primera fecha: **19uu**

Segunda fecha: **9999**

T260 ## \$aSan Sebastián : **\$b**Cementos Rezola, **\$c**[1960?]-

T590 8# \$aDescripción basada en: 1962

Lehen zenbakiari dagokion data ez da ezaguna eta ezin daiteke deduzitu

Adibidea:

Tipo de fecha: **d**

Primera fecha: **1974**

Segunda fecha: **1997**

T260 ## \$aElorrio : **\$b**Eroski, **\$c**[1974]-1997

Adibidea:

Tipo de fecha: **u**

Primera fecha: **1948**

Segunda fecha: **uuuu**

T362 0# \$a1948-

Adibidea:

Tipo de fecha: **u**

Primera fecha: **19uu**

Segunda fecha: **uuuu**

T590 8# \$a Descripción basada en: 1983

Adibidea:

Tipo de fecha: **u**

Primera fecha: **1uuu**

Segunda fecha: **uuuu**

Erregistroaren iturrian ez dago informaziorik

07-10 – Lehen data

Lau zifraz adierazten da; bakarren bat ezezaguna bada, haren ordez **u** jar daiteke. **Lau zuriuneak bete behar dira beti.**

Lehen data argitalpen-datari dagokio edo argitalpen baten hasierari. Data hori T260 eremuko \$c\$ azpieroarekin dago lotuta. Bi datak bat ez badatoz, programak gorritz azpimarratuko ditu.

Argitalpen-urte zehatza ezagutzen ez bada, hamarkada edo mende hurbilekoena adieraziko da, ezagutzen ez den karaktere bakoitzaren ordez **u** hizkia ipinita.

Datak **argitalpenaren hasiera adierazten du**, eta ez liburutegian dagoen bildumarena.

1-9	<i>Dataren digituak</i>
u	<i>Data osoa edo zati bat ezezaguna da</i>

Kopia faksimileen kasuan, jatorrizko argitalpenaren hasiera-data jarriko da, eta ez kopiarena.

Soilik urte bati dagokion memoria badugu (esate baterako, 1997) eta argitalpen seriatu irekia bada, adibide honi jarraituko zaio:

Adibidea:
T008 Primera fecha "199u", Segunda fecha "9999"
T260 [1997?]-
T590 1997

Data hori da programak kontuan hartzen duena argitalpen-dataren arabera bilaketa bat egiteko.

11-14 – Bigarren data

Lau zifraz adierazten da; bakarren bat ezezaguna bada, haren ordez **u** jar daiteke. **Lau zuriuneak bete behar dira beti.**

Datak **argitalpenaren amaiera adierazten du (d kodea)**, eta ez liburutegian dagoen bildumarena. Argitalpena abian bada (**c**) edo amaitu ote den jakiterik ez bada (**u**), **9999** idatziko da.

Kopia faksimileen kasuan, jatorrizko argitalpenaren amaiera-data jarriko da, eta ez kopiarena.

1-9	<i>Dataren digituak</i>
#	<i>Data elementua ez da aplikagarria</i>

u

Data osoa edo zati bat ezezaguna da
15-17 – Lana argitaratu, ekoitzi edo burutu den lekua

Bi edo hiru karaktereko kode alfabetikoa da, eta lana non argitaratu, ekoitzi edo burutu den adierazten du. Kodearen iturria hau da: *Marc Code List for Countries*.

Herrialdearen kodeak eskuragarri dagoen azken alearen argitalpen-lekua adierazten du. Gerora erregistroa eguneratu eta lekua aldatu bada, argitalpen-lekuaren kodea eguneratu egiten da.

AbsysNet tresnak “sp” ematen du berez Espainiaren kasuan. Aldatu nahi badugu, F5 funtzio-teklarekin edo laguntza-ikonoarekin, herrialde bakoitzari esleitutako kodeak eskura ditzakegu.

Bi karaktereko kodeak ezkerrera agertzen dira eta erabiltzen ez den posizioa zuriune batekin betetzen da (#).

Informazio hori da programak kontuan hartzen duena HERRIALDEAREN araberrako bilaketak egiteko.

18.- Aldizkakotasuna

Letra bakarreko kode alfabetikoa da eta dokumentuaren egungo aldizkakotasuna adierazten du. Elementu horrek 310 eremuan (Egungo aldizkakotasuna) agertzen den informazioa hartzen du oinarritzat.

#	Aldizkakotasun zehaztugabea (Irregularra). Jakina denean aldizkakotasuna berariaz irregularra dela.
a	Urtekoa. Urtean behin argitaratu edo eguneratzen da.
b	Bi hilabete behingoa. Bi hilabete behin argitaratu edo eguneratzen da. Urtean sei, zazpi edo zortzi aleko aldizkakotasuna duten argitalpenak sartzen dira.
c	Astean bi aldiz. Astean bitan argitaratu edo eguneratzen da.
d	Egunero. Egunean behin argitaratu edo eguneratzen da. Larunbata eta igandea barne izan ditzake.
e	Bi astean behingoa. Bi astean behin argitaratu edo eguneratzen da.
f	Seihilekoa. Urtean bitan argitaratu edo eguneratzen da. Urtean bi aleko aldizkakotasuna duten argitalpen guztiak sartzen dira.
g	Bi urtean behingoa. Bi urtean behin argitaratu edo eguneratzen da.
h	Hiru urtez behingoa. Hiru urtean behin argitaratu edo eguneratzen da.
i	Astean hiru aldiz. Astean hirutan argitaratu edo eguneratzen da.
j	Hilean hiru aldiz. Hilean hirutan argitaratu edo eguneratzen da.

k	Modu jarraituan eguneratua. Egunean behin baino gehiagoko maiztasunez eguneratzen da.
m	Hilekoa. Hilero argitaratu edo eguneratzen da. Urtean bederatzi, hamar, hamaika edo hamabi aleko aldizkakotasuneko argitalpenak sartzen dira.
q	Hiru hilean behingoa. Hiru hilean behin argitaratu edo eguneratzen da. Urtean lau aleko aldizkakotasuna duten argitalpenak sartzen dira.
s	Hamabostean behingoa. Hilean bi aldiz argitaratu edo eguneratzen da.
l	Lau hilean behingoa. Lau hilean behin argitaratu edo eguneratzen da. Urtean hiru aleko aldizkakotasuna duten argitalpenak sartzen dira.
u	Ezezaguna (Lehenetsita). Argitalpenaren egungo aldizkakotasuna ez da ezezaguna. Posizio honetan u kodea erabiltzen bada, 008/19 posizioan ere (Erregulartasuna) erabili egin behar da.
w	Astean behingoa. Astean behin argitaratu edo eguneratzen da.
z	Bestelakoa. Zehaztutako kodeak ez dira aplikagarriak.
 	Ez da erabiltzen

Batzuetan, aldizkakotasun-kodeek ez dute zehaztasun osoz adierazten aldizkakotasuna **T310** eremuan (Egungo aldizkakotasuna) agertzen den bezala; adibidez, aldizkakotasuna urteko aleen arabera adierazten denean. Halakoetan, ahalik eta aldizkakotasunik hurbilekoena erabiliko da, horretarako honako taula honi jarraituz, eta **T008/19** posizioa (Erregulartasuna) **x** kode bidez adierazten da.

Aldizkakotasuna	Aldizkakotasun-kodea
Bi ale urteko	f (seihilabetekaria)
Lau ale urteko	q (hiruhilabetekaria)
Bost ale urteko	q (hiruhilabetekaria)
Sei ale urteko	b (bihilabetekaria)
Zazpi ale urteko	b (bihilabetekaria)
Zortzi ale urteko	b (bihilabetekaria)
Bederatzi ale urteko	m (hilabetekaria)
Hamar ale urteko	m (hilabetekaria)
Hamaika ale urteko	m (hilabetekaria)
Hamabi ale urteko	m (hilabetekaria)

Ale bakarra argitaratu ondotik argitalpen bat bertan behera geratzen bada, eman nahi zitzaion aldizkakotasuna (eta erregulartasuna) adierazten da, baldin eta ezaguna bada. Datu hori ezagutzen ez bada, bietan u kodea (ezezaguna) ipintzen da.

Adibidea:
T008/18 a T008/19 r T300 ## \$a1 v. ; \$c18 cm T310 ## \$aAnnual T362 0# \$a1984

Argitalpen bat aldizkakotasun jakin bati jarraituz argitaratzen bada eta bateratutako aleen aldizkakotasuna ezberdina bada, bateratutako aleen aldizkakotasuna kontuan hartu gabe kodetzen da aldizkakotasuna (eta erregulartasuna).

Adibidea:
T008/18 b T008/19 r T310 ## \$aBimestral, con acumulaciones anuales

Berrinprimatze edo fotokopia baten kasuan, berrinprimatze edo fotokopiaren aldizkakotasun eta erregulartasunaren arabera kodetzen da, ez jatorrizkoa kontuan hartuz. Kasu gehienetan, aldizkakotasuna eta erregulartasuna **u** hizkiz kodetzen dira.

19 – Erregulartasuna

Letra bakarreko kode alfabetikoa da eta argitalpen seriatu bati aurreikusten zaion aldizkakotasuna adierazten du.

n	<i>Irregulartasun normalizatu.</i> Argitalpen seriatua guztiz erregularra ez dela esan nahi du; hau da, irregulartasuna aurreikus daitekeela. Horixe erabiltzen da, adibidez, argitalpen-eredua nahita aldentzen bada eredu normalizatutik (adibidez, hilabetekaria (uzt. eta ab. izan ezik)), edo T310 eremuan zehazten bada, banakako zenbakiez gain, aldizka edizio bateratuak argitaratzen direla (adibidez, urtekaria, bost urteko argitalpenen edizio bateratuak dituen).
r	<i>Erregularra.</i> Argitalpena erregulartasunez argitaratzen dela adierazten du. Hori dokumentuko informazio baten arabera edo argitalpenaren patroia behatuz zehaztu daiteke. Horregatik, dokumentu batean bi hilean behin argitaratuko dela ezartzen bada, erregulartasuna r kodearekin adierazten da, nahiz eta gauza jakina izan zenbaitetan aldizkakotasuna ezberdina dela edizio-arazoak direla medio.

u	Ezezaguna. Argitalpenaren erregulartasuna ezaguna ez denean (<i>Lehenetsita</i>). Posizio honetan u kodea erabiltzen bada, 008/18 posizioan ere (Aldizkakotasuna) u kodea erabili behar da.
x	Guztiz irregularra. Gauza jakina denean aldizkakotasuna berariaz irregularra dela edo T310 eremuan aldizkakotasuna urteko aleen arabera adierazten dela.
 	Ez da erabiltzen

21 – Baliabide jarraitu mota

Letra bakarreko kode alfabetikoa da, baliabide jarraitu mota adierazten duena. Posizio hori ezagutzen ez denean, karaktere betegarri bat jarriko da (|).

#	Hauetako bat ere ez. Urtekarietan eta urteko memoriatan erabiltzen da.
d	Egunera daitezkeen datu-basea. Elkarri logikoki lotuta dauden eta informatika-artxibo batean edo gehiagotan elkarrekin gordetzen diren datuen bilduma; datuok, normalean, datu-baseak kudeatzeko sistema baten bidez sortu eta kudeatuak dira.
l	Egunera daitezkeen orri solteak. Oinarri-bolumen batez edo gehiagoz osatutako baliabide bibliografikoa; sartu, ezeztatu edota ordeztu daitezkeen orri indibidualekin eguneratuta egon behar dute bolumenok.
m	Serie monografikoa. Serie bat den edozein izenbururekin erabiltzen da, edozein izanik ere haren tratamendua. Modu indibidualean deskriba daitezkeen dokumentuz osatutako multzo bat da, hau da, dokumentu bakoitzak bere izenburu bereizgarria dauka, eta elkarren artean izenburu kolektibo batekin lotzen dira. Dokumentu indibidualak zenbakituta egon daitezke edo ez.
n	Egunkaria. Informazio-iturri oinarritzkoa izateko diseinatuta dagoen argitalpena, esparru jakin batera mugatu gabe, arazo publikoekin zerikusia duten egungo gertaerez diharduena.
p	Aldizkaria. Amaiera-mugarik gabe aldian-aldian eta erregulartasunez –oro har urtean behin baino gehiagotan– agertzen den edo agertu nahi duen argitalpena, elkarren artean loturarik ez duten artikuluz osatua. Halaber, kode hau erabiliko da ale monografikoak soilik dituzten argitalpen seriatuetarako (<i>Lehenetsita</i>).
w	Egunera daitezkeen webgunea. Eguneratu egiten den webgunea, baina aurrez adierazitako kategoria bakar batekin (aldizkariak, egunkariak edo datu-baseak) bat ez datorrena.
 	Ez da erabiltzen

Adibidea:
T008/21 # T245 00 \$a Memoria de actividades / \$cl berdrola

Adibidea:
T008/21 d T245 00 \$a MEDLINE on Silver [\$h Recurso electrónico]

Adibidea:
T008/21 l T245 00 \$a Servicio periódico de información legal

Adibidea:
T008/21 m T245 00 \$a Informes sectoriales de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Adibidea:
T008/21 n T245 00 \$a Gara

Adibidea:
T008/21 p T245 00 \$a Kontzejupetik

Adibidea:
T008/21 w T245 00 \$a CNN.com [\$h Recurso electrónico]

22 – Jatorrizko argitalpenaren forma

Letra bakarreko kode alfabetikoa da eta dokumentuaren jatorrizko forma zein den adierazten du. Dokumentua forma batean baino gehiagotan argitaratzen denean aldi berean, edo jatorrizko forma zein den zehaztea zaila denean, lehendabizi jasotako dokumentua edo datu-basean lehendabizi sartutakoa hartzen da jatorrizko forma fisikotzat.

#	Hauetako bat ere ez
a	Mikrofilma. Film-zerrenda, oro har testu inprimatu nahiz eskuz idatzitako baten mikroirudiak dituen sekuentzia linealean antolatua.

b	Mikrofitxa. Film-xafla laua, testu inprimatu nahiz eskuz idatzitako batetik hartutako mikroirudiak dituena. Irudiok neurri berekoak dira eta horizontalean eta bertikalean jarrita egoten dira. Goiburuan, lehen begiratu batean irakurtzeko moduan, kopiatutako testua identifikatzeko beharrezko diren datuak inprimatuta izan ohi ditu.
c	Mikroopakua. Paperezko orria, edo kartoi mehezkoa, edo gardena ez den zeinahi materialez egina, testu inprimatu nahiz eskuz idatzitako baten mikroirudiak dituena. Irudiok neurri berekoak dira eta horizontalean eta bertikalean jarrita egoten dira. Goiburuan, lehen begiratu batean irakurtzeko moduan, kopiatutako testua identifikatzeko beharrezko diren datuak inprimatuak izan ohi ditu.
d	Karaktere handiak
e	Kazeta-formatua
f	Braillea
o	Linean. Baliabidera sartzeko, hardware bat eta software bat komunikazio-sare batera konektatu behar dira. Baliabide elektronikoen moten artean bereiztea beharrezkoa ez bada, s kode orokorra erabiliko da.
q	Zuzeneko sarbidearen elektronika. Zuzeneko sarbidea duen grabaketa-euskarri fisiko batean (esate baterako, diskoa, zinta, playaway, flash memoria, disko gogor eramangarria, eta abar) gordetako, eta lehen begiratuan irakurtzeko modukoa. Baliabide elektronikoen moten artean bereiztea beharrezkoa ez bada, s kode orokorra erabiliko da.
s	Elektronikoa. Ordenagailuarekin erabiltzeko diseinatuta dagoen dokumentua dela adierazten du. Dokumentua zuzeneko nahiz urruneko sarbidea duen euskarri batean barnera daiteke, eta zenbaitetan gailu periferikoak erabili behar izaten dira. Kode hau ez da erabiltzen ordenagailua erabiltzea eskatzen ez duten dokumentuetarako (esate baterako, disko trinkoak, bideo-diskoak). Kode orokor modura erabil daiteke baliabide elektronikoen edozein motatarako. Zuzeneko sarbideko baliabidea eta urruneko sarbideko baliabidea bereizirik identifikatzea beharrezkoa bada, o eta q kodeak erabil daitezke.
l	Ez da erabiltzen

■ 23 – Argitalpenaren forma

Letra bakarreko kode alfabetikoa da, deskribatzen den dokumentuaren forma zehaztekoa.

#	Hauetako bat ere ez
a	Mikrofilma
b	Mikrofitxa

c	Mikroopakua
d	Karaktere handiak
e	Kazeta-formatua
f	Braillea
o	Online (■)
r	Karaktere arruntak dituen kopia. Lehen begiratuan irakurtzeko moduko kopia dela adierazten du.
s	Elektronikoa. (■) Ordenagailuarekin erabiltzeko diseinatuta dagoen dokumentua dela adierazten du. Dokumentu elektronikoen kasuan erabiliko da.
l	Ez da erabiltzen

24 – Lanaren izaera, oro har

Letra bakarreko kode alfabetikoa da eta dokumentuaren izaera adierazten du, baldin eta material jakin bakar batekoa bada. Argitalpenaren forma deskribatzeko erabiltzen da, eta ez edukia. Kasurik argienetan soilik erabiliko da.

#	Zehaztugabea
a	Laburpenak. Dokumentua beste dokumentu batzuen laburpenez osatuta dagoela adierazten du. Kode hau ez da erabiltzen argitalpen batek bere edukiaren laburpen bat jasotzen duenean.
b	Bibliografiak. Dokumentu osoak nahiz zati handi batek bibliografia bat edo gehiago biltzen duela adierazten du (esate baterako, liburuen katalogoak).
c	Katalogoak. Bilduma bateko dokumentuen zerrenda; esate baterako, liburu-bilduma batekoa edo objektu artistikoko bilduma batekoa (zigiluak, monetak, eta abar).
d	Hiztegiak
e	Entziklopediak
f	Eskuliburuak
g	Lege-gaiei buruzko artikulua. Dokumentuak izaera juridikoko gai garrantzitsuei buruzko artikulua dituela adierazten du; esate baterako, zuzenbideko fakultateetako ikasketetan argitaratuak.
h	Biografia Material biografikoa. Izan daitezke autobiografiak, iografia indibidualak edo biografia kolektiboak. Genealogia ez da biografia modura kodetzen.

i	Aurkibideak. Dokumentua argitalpena bera hartzen ez duen material bibliografikoen aurkibidea dela adierazten du (esate baterako, aurkibideen aldizkari bat).
k	Diskografiak. Diskografiak edo soinu-grabaketan bestelako bibliografikoak (esate baterako, soinu-grabaketan katalogoak) adierazteko.
l	Legeria. Organo legegileen promulgazioen testuak, zati bat edo testu osoa, lege nahiz kode gisa argitaratuak.
m	Tesia
n	Gai baten inguruko auziaren egoera. Gai baten inguruan argitaratutakoaren laburpena eginez hainbat egilek egindako txostenak jasotzen ditu argitalpenak.
o	Aipamenak. Argitalpen seriatu osoa argitaratu diren beste lan batzuei buruzko aipamen kritikoz osatuta dagoela adierazten du.
p	Programatutako testuak
q	Filmografiak Dokumentuaren zati handi bat filmografia bat edo mugimenduan diren irudien bestelako bibliografia bat denean. Filmografiak erregistro bibliografikoan aipatzeko moduko garrantzia duenean erabiltzen da soilik. Aldi berean katalogoak diren filmografiaren kasuan, q eta c kodeak, biak, erabiltzen dira (esate baterako, film-katalogoak).
r	Direktorioak. Pertsona edo erakundearen direktorio edo erregistroak. Hiztegi biografiko seriatuak biografia modura kodetzen dira (h kodea).
s	Estatistikak
t	Txosten teknikoak. Ikerketa zientifikoaren ondorioz sortutako dokumentuak dira, komunitate zientifikoan zabaltzeko behar bezala aurkeztuak.
u	Arauk/Zehaztapenak. Nazioarteko arauak, nazionalak edo industrialak sartzen dira hemen, baita prozesu edo zerbitzu baten betekizunei buruzko azalpen zehatza eskaintzen duten zehaztapenak ere.
v	Jurisprudentzia iruzkinduna. Argitalpen seriatu osoa lege-kasuen eztabaidez osatuta dagoela adierazten du; kasuok auzitegien edo administrazio-erakundeek ebatzitakoak nahiz ebatzi zain daudenak izan daitezke.
w	Epaiak eta ebazpenak. Auzitegien epaiak eta administrazio-erakundearen ebazpenak jasotzen dituzten dokumentuak sartzen dira hemen. Lana epai horien bilduma batekin osatzen denean ere erabiltzen da.
y	Urtekariak. Urtero edo maiztasun gutxiagoz argitaratzen diren erreferentziako dokumentuak, diziplina zehatz baten edo lan-esparru baten barnean urte jakin batean izandako lorpen edo ekitaldiak laburtzeko artikulak dituena. Administrazioaren alorrari dagokionez erakunde baten ikuspegi orokor bat eskaintzen duten urteko txostenak ez dira sartzen hemen

	.
z	Tratatuak. Gatazka bat ebatzi, harremanak finkatu edota eskubideak bermatzeko bi alde edo gehiagoren artean negoziatutako tratatu edo akordioa.
6	Komikiak/Eleberrri grafikoak
 	Ez da erabiltzen

25-27 – Edukiaren izaera

Argitalpenak material mota bat baino gehiago nabarmenki biltzen dituela adierazten du. **Gehienez hiru kode erabil daitezke, hurrenkera alfabetikoan. 24.** posizioan erabili beharreko kode berberak dira.

28 – Argitalpen ofiziala

Letra bakarreko kode alfabetikoa da, dokumentua erakunde ofizial batek argitaratu duen adieraztekoa.

“o” kodea erabiliko dugu, besterik zehaztu gabe.

Erakundea ez da derrigorrean goiburu nagusi edo bigarren mailako modura azaldu behar, baina argitaratzaile modura agertu behar da edo dokumentua argitaratzearen arduradun izan beharko da.

#	Ez da argitalpen ofiziala
0	Argitalpen ofiziala – zehaztugabeko maila

29 – Biltzarrak

Zifra bakarreko zenbaki-kodea da eta dokumentuak biltzar baten aktak, txostenak edota laburpenak biltzen dituen adierazten du.

0	Ez da biltzarra (Lehenetsita)
1	Biltzarra da.

30-32 – Zehaztugabeak

Hiru posizio horiek zehaztu gabe daude. Bakoitzak zuriune bat dauka (#).

33 – Izenburuaren jatorrizko alfabetoa

Hizki bakarreko kode alfabetikoa, izenburu gakoaren oinarri den iturri-dokumentuko izenburuaren jatorrizko alfabetoa adieraztekoa (222. eremua). Izenburu gakorik ez badago, izenburu nagusia erabiltzen da (245. eremua). Nahitaezkoa da ISSNa duten erregistroetarako. ISSNrik ez duten erregistroetarako aukerakoa da.

#	<i>Ez da alfabetoa adierazten/ez dago izenburu gakorik</i>
a	<i>Oinarrizko latina.</i> Hauek dira, normalean, a kodearekin lotzen diren hizkuntzak: euskara, ingelesa, latina, galesa eta Afrika erdialde eta hegoaldeko hainbat hizkuntza. Horietan ez da ikur diakritikorik sartzten, ezta karaktere berezirik ere.
b	<i>Latin hedatua (Lehenetsita).</i> Ikur diakritikoak eta karaktere bereziak ere sartzten dira. Hizkuntzak diakritikoak dituen erabiltzen da, katalogatzen den izenburuak ez izan arren.
c	<i>Zirilikoa</i>
d	<i>Japoniera</i>
e	<i>Txinera</i>
f	<i>Arabiera</i>
g	<i>Greziara</i>
h	<i>Hebreera</i>
i	<i>Thailandiera</i>
j	<i>Devanagariera</i>
k	<i>Koreera</i>
l	<i>Tamilera</i>
u	<i>Ezezaguna</i>
z	<i>Bestelakoa.</i> Zehaztutako beste kodeak ez dira egokiak. Halaber, izenburuak alfabeto edo idazketa bat baino gehiago dituen erabiltzen da.
	<i>Ez da erabiltzen</i>

34 – Hurrengo sarrera / azken sarrera

Zifra bakarreko zenbaki-kodea, argitalpena hurrengo sarrerako, azken sarrerako edo sarrera integratuko katalogo-ohituren arabera katalogatu den adieraztekoa.

Beti hurrengo sarrerako (0) kodea esleituko digu.

0 Hurrengo sarrera (*Lehenetsita*).**35-37 – Hizkuntza**


Hiru karaktereko kode alfabetikoa da, dokumentuaren hizkuntza adieraztekoa. Kodearen iturria da: *MARC Code list languages*. Kodea aukeratzeko orduan, dokumentuan nagusi den hizkuntza hartuko da kontuan.

Posizio hauetatik, online katalogoan HIZKUNTZAREN araberrako bilaketa egiteko informazioa hartzen da.

Hizkuntza batean baino gehiagotan dauden lanak:

- Hizkuntza bi edo gehiagoko lanetan (gehienez ere sei) hizkuntza nagusiaren kodea jarriko da, eta nagusitzen denik ez badago, lehenengoarena.
- “mul” kodea soilik sei hizkuntzatik gorako lanetarako erabiliko da.

Gainera, **T041** etiketan (*Hizkuntzaren kodea*) eta **T546** hizkuntza-oharrean (*Hizkuntza-oharra*) jarriko dira .

F5 funtzio-teklaren edo laguntza-ikonoaren  bidez hizkuntza bakoitzaren kodeak kontsultatzeko eta atzemateko aukera daukagu. Sistemak lehenetsita dakar gaztelaniari dagokion kodea (“spa”).

30 – Aldatutako erregistroa

Karaktere bakarreko kodea da, erregistro bibliografikoko datu jakin batekin katalogatutako dokumentuan agertzen zen informazioa aldatzen ote den adieraztekoa. Zuriunea utziko da (#).

39 – Katalogazio-iturria

Hizki bakarreko kodea, erregistroaren jatorrizko katalogazio-iturria adieraztekoa. Gure kasuan, katalogazio-programa partekatu bat dugunez, BETI c kodea idatziko dugu.

Katalogazio-iturria ere **T040** eremuaren **\$a** azpieremuan zehaztuko da, horretarako Liburutegi Zerbitzuak ezarritako kodeak erabiliz (ikus **T040** eremua).

c **Katalogazio kooperatiboko programa.** Erregistroaren sortzailea katalogazio kooperatiboko programa bateko kidea da. (Lehenetsita)

Adibidea:

Fuente de catalogación: c

T040 ## \$aO1000 \$bbaq \$cELS

Lege-gordailu bidez katalogatutako erregistroa

T008 Informazio-kodeak - Aldizkakoak			
Sarrera-eguna	151126	Data-mota/argitalpenaren egoera	c
Lehenengo data	1980	Bigarren data	9999
Argitalpenaren herrialdea	sp	Maiztasuna	z
Erregularitasuna	r	Aldizkako argitalpen-mota	p
Jatorrizko argitalpenaren forma		Dokumentuaren forma	b
Obra osoaren izaera		Edukiaren izaera	
Argitalpen ofiziala	o	Biltzarrak	0
Tituluaren jatorrizko idazkera	a	Hurrenez hurreneko sarrera/Azken sarrera	0
Hizkuntza	baq	Erregistro aldatua	
Katalogazioaren iturriak	c		

T008 posizioarekin lotutako bilaketak:

T008 Informazio-kodeak - Aldizkakoak			
Sarrera-eguna	151126	Data-mota/argitalpenaren egoera	c
Lehenengo data	1980	Bigarren data	9999
Argitalpenaren herrialdea	sp	Maiztasuna	z
Erregularitasuna	r	Aldizkako argitalpen-mota	p
Jatorrizko argitalpenaren forma		Dokumentuaren forma	b
Obra osoaren izaera		Edukiaren izaera	
Argitalpen ofiziala	o	Biltzarrak	0
Tituluaren jatorrizko idazkera	a	Hurrenez hurreneko sarrera/Azken sarrera	0
Hizkuntza	baq	Erregistro aldatua	
Katalogazioaren iturriak	c		

HIZKU

T017 LEGE-GORDAILUAREN ZENBAKIA (E)

Agentzia bakoitzak esleitzen duen lege-gordailuaren zenbakia da, eta derrigorrean bete behar da lege-gordailuaren eta euskal bibliografiaren kasuan.

Adierazleak

Lehena	# <i>Zehaztugabea</i>
Bigarren	# <i>Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia</i>
a	8 <i>Ez du lotutako bistaratzetik sortzen</i>

Azpiheremuko kodeak

- §a *Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia (E)*
- §z *Ezeztatu/indargabetutako Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia (E)*

Funtsezko elementua da eta behar beste aldiz bete behar da.

Lotutako bistaratzea

Etiketa honek aurrez zehaztua du bere lotutako bistaratzea, hots, ez da beharrezkoa hitzez hitz idaztea; izan ere, programak automatikoki sortzen du dagokion katalogazio-hizkuntza, betiere **T040** eremuko **§b** azpiheremua behar bezala betetzen bada.

<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
D.L.	L.G.

§a – Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia

Copyright erregistro-zenbakia edo lege-gordailuaren zenbakia.

§z – Ezeztatu/indargabetutako copyright edo lege-gordailuaren zenbakia

Honela jarri behar da:

- Probintzia adierazteko hizkiak hizki larritan idatziko dira, eta ez dira elkarren artean bereiziko, ez puntu bidez ezta zuriune bidez ere.
- Ez da punturik erabiliko zenbakien edo urteen milako zifretan.
- Zenbakien bigarren multzoa, urteari dagokiona, lau digitukoa izango da beti, nahiz eta dokumentuan bi digiturekin azaldu. Uniformetasun horren helburua da informazio hori katalogo automatizatu batean behar bezala eskuratu ahal izatea.
- Zenbakiaren eta urtearen artean marratxo bat jarriko dugu.
- Zenbakiaren ezkerretara inprimatuta ager daitezkeen zeroak ez dira kontuan hartuko (esate baterako, dokumentuan VI 0124-1995 agertzen bada, VI 124-1995 idatziko da).

- Batzuetan, litekeena da dokumentuan, lege-gordailuaren zenbakia, hizkia edota urtea okerrekoak izatea (adibidez, SS 2548-1998 ordez D 2548-1998). Kasu horietan, **\$z** azpierzemua erabiliko dugu oker dagoenaren kasuan, eta zuzena **\$a** azpierzemuan idatziko da. **EZ DA (OKERRA) IDATZI BEHAR.**

Adibidea:

T017 ## \$aSS 1356-1996 \$zD 1356-1996

- Lege-gordailua argitalpenaren ale jakin bati dagokionean, iturrian datorren bezalaxe idatziko da datua (zenbaki arabiarrek edo erromatarrek). Laburdura normalizatuak erabiliko dira, hizki xehez eta puntuazioaren atzetik zuriunerik gabe.
- Lege-gordailuak argitalpenen zenbaki edota urtearen hurrenkeraren arabera jasoko dira.
- Ahal dela, beste iturri batzuen bidez ezagutzen ditugun lege-gordailuak jaso egingo dira, nahiz eta dagozkien faszikuluak edo atalak eskura izan ez.
- Lege-gordailuaren zenbakia parentesi artean jasotzean, hobe datak erabiltzea, eta ez zenbakiak. Edonola ere, datak aski esanguratsuak ez badira, zenbakiak jasoko dira.
- Argitalpen batean urtea zenbaki erromatarrez adierazten bada, zenbaki erromatar horiek zenbaki arabiar bilakatuko ditugu baliokidetasun-taula hau kontuan hartuz, eta oker modura sartuko dugu:

I	1958
II	1959
III	1960
IV	...

HTBIBL formatuan bistaratzeko, soilik Lege-gordailu zuzena agertuko da. **\$z**-n jasotako lege-gordailuak noiznahi eskuratzeko aukera izango da eta MARC eta UPDATE formatuetan bistaratu dira.

Kasurik ohikoenak

- Lege-gordailua argitalpenaren zenbaki jakin bati dagokionean, iturrian datorren bezalaxe idatziko da zenbakia (zenbaki arabiarrek edo erromatarrek). Aurkezpen-forma (zenbakia, tomoa, liburukia, eta abar) aipatu beharra dagoenean, laburdurak erabiliko dira (zk.³, t., libk.⁴, eta abar), eta zuriunerik gabe. Ahal den heinean, laburdura normalizatuak erabiliko dira gainerako hitzetan ere. Laburdura horiek letra xehez idatziko dira, eta gainerako datuetatik bereizteko zuriunerik utzi gabe.

³ Euskarazko katalogioetan, **zk.** laburdura erabiliko dugu (IVAPek gomendatua), eta ez zenb. edo besteren batzuk.

⁴ **v.** laburdura erabiliko dugu zenbaki arabiarrek ditugunean, eta **vol.** zenbaki erromatarrek ditugunean (gaztelaniaz).

Argitalpenaren aurkezpen forma azaltzen ez bada, zenbakia bakarrik jarriko dugu, iturrian agertzen den bezalaxe.

Adibideak:
<p>T017 ## \$aBI 2258-1987 (1) T017 ## \$aSS 568-1985 (I)</p> <p>T017 ## \$aSS 1356-1996 (n.1) T017## \$aVI 258-2001 (18.zk.)</p> <p>T017 ## \$aBI 528-2001 (t.I) T017 ## \$aBI 279-2001 (I.t.)</p> <p>T017 ## \$aSS 729-2002 (v.3) T017## \$aSS 988-2002 (3.libk.)</p> <p>T017 ## \$aVI 447-2003 (vol.I) T017 ## \$aV1 591-2003 (I.libk.)</p>

- Zenbakiak urte naturalarekin bat ez datorren urtebeteko epealdia hartzen duenean, edota deskribatu beharreko unitateak urtebete baino gehiagoko epealdia hartzen duenean, data adierazteko, barra (/) erabiliko da.

Adibidea:
T017 ## \$aBI 528-2001 (2001/2002)

- Iturrian edonola agerturik ere, dagokion urtea osorik idatziko da parentesien artean. Inoiz ez da taktik erabiliko falta diren digituak osatzeko.

Adibideak:
<p>T017 ## \$aBI 528-2001 (2001) → (Iturrian: 01) T017 ## \$aVI 664-2002 (2002) → (Iturrian: fasz. zenbakigabea)</p>

- Lege-gordailuaren zenbakia urtebete baino gehiagori edota hurrenez hurreneko zenbait zenbakiri dagokienean, sekuentzia bereizteko, marratxoa (-) jarriko dugu. Halakorik ez bada, koma batez (,) bereiziko dugu. **Sekuentzia horren elementuen artean ez dugu zuriunerik utziko.**

Adibideak:
<p>T017 ## \$aBI 528-2001 (2001-2005) T017 ## \$aSS 1103-1996 (24,31-33)</p>

- Argitalpenaren sekuentzia zenbaki edo data bidez adierazten ez denean, bertan erabilitako adierazpidea erabiliko da zenbaketa adierazteko. Halakoetan, elementuen arteko zuriuneak jaso egingo dira.

Adibidea:

T017 ## \$aBI 1521-2005 (A entrega- H entrega)

- Argitalpenaren zenbakia dataren zati bat denean, lehendabizi urtea jarriko dugu eta, ondoren, aurkezpen forma, halakorik badago, dagokion laburdura normalizatuaren bidez eta, azkenik, zenbakia, iturrian ageri den bezala.

Adibideak:

T017 ## \$aBI 528-2001 (2001,t.I)

T017 ## \$aVI 1254-1998 (1998,II.libk.)

T017 ## \$aSS 2889-1985 (1985,t.I-II)

T017 ## \$aBI 2546-1997 (1997,I-II.libk.)

T017 ## \$aVI 113-1989 (1988,n.1)

T017 ## \$aSS 25-2000 (1999,2)

Argitalpen seriatuaren jatorrizko lege-gordailu berreskuratua

- Baldin eta argitalpen seriatu batek lehendabiziko aldiz inprimatu zeneko lege-gordailua berreskuratzen badu, parentesien artean adieraziko dugu, honela: lehenik, lege-gordailu hori eraman zuen lehen argitalpenaren zenbakia; ondoren, koma batez bereizirik, lege-gordailu hori berreskuratu zuen zenbakia, eta, azkenik, marratxo jarriarik, zenbaki horretatik aurrera argitalpen horrek lege-gordailu hori izan duela adieraziko dugu.

Adibidea:

T017 ## \$aBI 156-1997 (15,25-)

- Berreskuratutako zenbakia iturrian oker ageri bada, ez da eremu berean \$z azpian jasoko, oker ageri den zenbakiari loturik baizik.

Adibideak:

T017 ## \$aSS 156-1997 (15,25-)**T017 ## \$aSS 156-1997 (25) \$zD 156-1197**

- Zenbaki bakarreko argitalpen seriatuen kasuan, ez da ezer jaso beharrik izango parentesien artean.

T022 ARGITALPEN SERIATUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA (ISSN) (E)

Eremu honetan, *Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua* (ISSN), baliabide jarraituen identifikaziorako zenbaki bakarra, edota okerra edo ezeztatua den edozein ISSN jasotzen da. Dokumentuan ISSN zenbakia agertzen bada edo zenbakia okerra bada, katalogatzailea zenbaki zuzena asmatzen ahaleginduko da. Horretarako, beharrezkoak diren erreperitorio bibliografikoak erabiliko ditu.

HTBIBL formatuan bistaratzean, soilik ISSN zuzena agertuko da **\$y** azpian jasotako ISSN zenbakiak noiznahi eskuratzeko aukera izango da eta MARC eta UPDATE formatuetan bistaratuko dira.

Adierazleak

Lehena # *Ez du maila zehazten*

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpieremuko kodeak

\$a *Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (EE)*

\$l *ISSN-L (EE)*

\$m *ISSN-L ezeztatua (E)*

\$y *ISSN okerra (E)*

\$z *ISSN ezeztatua (E)*

Lotutako bistaratzea

Etiketa honek aurrez zehaztua du bere lotutako bistaratzea, hots, ez da beharrezkoa hitzez hitz idaztea; izan ere, programak automatikoki sortzen du dagokion katalogazio-hizkuntza, betiere **T040** eremuko **\$b** azpieremua behar bezala betetzen bada.

Gaztelania

ISSN

Euskara

ISSN

\$a – Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua

Baliabide jarraitu baterako balekoa den ISSN zenbakia du.

Adibidea:

T022 ## \$a1138-347X

\$l - ISSN-L

Baliabide jarraitu baten formatu ezberdinetako bertsioak erlazionatzen dituen ISSN zenbaki bat hartzen du.

Adibidea:
T022 ## \$a1234-1231 \$l1234-1231

\$m - ISSN-L ezeztatua

ISSN-L ezeztatu bat hartzen du, baliabideari lotua egon dena. Ezeztatutako ISSN-L bakoitza bere \$m azpierzemuan jasoko da.

Adibidea:
T022 ## \$a1560-1560 \$l1234-1231 \$m1560-1560

\$y - ISSN okerra

Baliabide jarraituarekin lotuta egon den ISSN zenbaki okerra hartzen du. Okerreko ISSN bakoitza \$y azpierzemu batean jasoko da.

Azpierzemu hau erabiliko da deskribatzen ari garen argitalpen seriatuan oker inprimatuta ageri den ISSN zenbakia jasotzeko. Ondoren, ez da "okerra" hitza jarri beharko parentesi artean. ISSN zuzena zein den bilatzea gomendatzen da, horretarako Internet bidez eskura daitezkeen errepertorio bibliografikoak kontsultatuz.

Adibidea:
T022 ## \$a1115-8800 \$y1125-8800

\$z - ISSN ezeztatua

Baliabide jarraituarekin lotzen den ISSN zenbaki ezeztatu bat hartzen du. Ezeztatutako ISSN bakoitza bere \$z azpierzemuan jasoko da.

Adibidea:
T022 ## \$a00145-0808 \$z0361-7106
T022 ## \$z0027-3473

T035 SISTEMAREN KONTROL-ZENBAKIA (E)

Katalogoak uztartu ondoren migratutako erregistroetarako jatorrizko sistemaren kontrol-zenbakia hartzen du.

OCLC zenbakia ere hartzen du, WorldCat katalogorako beharrezkoa baita.

Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

Adibidea:

T035 ## \$a(OCOLC)864103543

T040 ZENTRO KATALOGATZAILEA (EE)

Jatorrizko erregistro bibliografikoa sortu, MARC edukien identifikatzaileak esleitu eta erregistroa transkribatu edo aldatu zuen erakundearen MARC kode edo zenbakia.

Gure kasuan, Liburutegi Zerbitzuak zentro bakoitzarentzat ezarritako kodeak erabiliko dira.

Adierazleak

Lehena	#	<i>Zehaztugabea</i>
Bigarrena	#	<i>Zehaztugabea</i>

Azpieremuko kodeak

- \$a** *Jatorrizko zentro katalogatzailea (EE)*
- \$b** *Katalogazio-hizkuntza (EE)*
- \$c** *Zentro transkribatzailea (EE)*
- \$d** *Zentro aldatzailea (E)*

Derrigorrezkoa da \$a, \$b eta \$c azpieremuak betetzea, bestela programak gorriz azpimarratuko ditu.

\$a – Jatorrizko zentro katalogatzailea

Liburutegi Zerbitzuak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi bakoitzerako ezarritako kodeak, “EIPS sarearen liburutegietako datuak” dokumentuan kontsulta daitezkeenak.

\$b – Katalogazio-hizkuntza

Erregistroaren katalogazio-hizkuntzari dagokion MARC kodea. Gure kasuan euskara (**baq**) edo gaztelania (**spa**) izango da.

Oso garrantzitsua da katalogazio-hizkuntza zuzen adieraztea **\$b** azpieremuan, bertan ezarritako balioak erabakiko baitu lotura bidez bistaratzeko testuen hizkuntza.

Adibidea:

MARC bistaratzea:

T040 ## \$aO1000 \$b_{spa} \$cELS

T245 00 \$aIsturitz : \$bcuadernos de prehistoria-arqueología / \$cEusko Ikaskuntza

T780 00 \$tCuadernos de sección. Prehistoria y arqueología \$x0213-3024



Adibidea:
<i>ISBD bistaratzea:</i>
<p>Isturitz : cuadernos de prehistoria-arqueología / Eusko Ikaskuntza. -- 7 (1997)-. -- Donostia : Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, D.L. 1997- v. : il. ; 24 cm</p> <p>Irregular</p> <p>Continúa la numeración de: Cuadernos de sección. Prehistoria y arqueología</p> <p>Interrumpida la publicación en 1998 y 2000</p> <p>Se publican números monográficos siguiendo la numeración de la serie</p> <p>Los n. 8 y 9 se editaron además en un CD-ROM conjunto y están disponibles en Internet</p> <p>Texto en castellano, euskera y francés, con resúmenes en castellano, euskera, francés e inglés</p> <p>Tít. tomado de la cub.</p> <p>El n. 7 acompañado de un disquete</p> <p>D.L. BI 407-1997 (7-)</p> <p>ISSN 1137-4489 = Isturitz (Donostia)</p> <p>Es continuación de: <u>Cuadernos de sección. Prehistoria y arqueología</u> = ISSN 0213-3024</p>

Adibidea:
<i>MARC bistaratzea:</i>
<p>T040 ## \$aO1000 \$bbaq \$cELS</p> <p>T245 00 \$aLurralde datutegia \$b : E.H.A.E.-ko bizitegi-lurzorua eta iharduera ekonomikoetarakoa = Banco de datos territoriales : suelo residencial y de actividades económicas de la C.A.P.V</p> <p>T785 00 \$tGeografía informazioko sistema eta lurralde datutegia : EAE-ko bizitegi eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua</p>



Adibidea:
<i>ISBD bistaratzea:</i>
<p>Lurralde datutegia : E.H.A.E.-ko bizitegi-lurzorua eta iharduera ekonomikoetarakoa = Banco de datos territoriales : suelo residencial y de actividades económicas de la C.A.P.V. -- [1994]-2003. -- Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritza, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila = Gobierno Vasco, Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, 1994-2003</p> <p>4 libk. ; 30 cm + planoak</p> <p>Hirurtekaria</p>

1. eta 2. libk. zenbakirik gabe
Pareko testua euskaraz eta gaztelaniaz
Argitaratzailea <[1997]->: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
L.G. BI 2104-1994 (1994)
L.G. NA 2673-1997 (1997)
L.G. BI 2704-2000 (1999)
L.G. VI 333-2003 (2003)

Honek jarraitu dio: Geografia informazioko sistema eta lurralde datutegia : EAE-ko bizitegi eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua

§c – Zentro transkribatzailea

MARC kodea edo erregistroa ordenagailuz irakurtzeko moduan transkribatu zuen erakundearen izena. Katalogatutako erregistro berriak identifikatu ahal izateko, Liburutegi Zerbitzuak ezarritako ildoei jarraikiz, **§c** azpian **ELS** idatziko dugu.

Adibidea:

T040 ## \$aB0116\$bbaq\$§cELS

[Getxoko Liburutegiak euskaraz katalogatutako erregistroa, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak ezarritako prozeduraren arabera balioztatua]


§d – Zentro aldatzailea

Erregistroa aldatu eta balioztatu zuen zentroaren MARC kodea. **ELS** kodea erabiliko da. Aldaketatzat joko da erregistro batean edozein zuzenketa egitea, bai eta katalogazioan, edukiaren identifikatzaileetan edota transkripzioan aldaketak egitea ere, baina ez aleen kokapenari buruzko informazioa sartzea.

Adibidea:

T040 ## \$aB0116 \$bbaq \$cB0116 \$dELS

[Getxoko Liburutegiak euskaraz katalogatu eta transkribatutako erregistroa, eta Euskadiko Irakurketa Liburutegi Sareko zenbait liburutegik balioztatua]

Azpieremu bakoitzak bere katalogazio-taula dauka aurrez zehaztua. “Katalogaziorako Laguntza” botoia sakatuta, dauden aukera bakarrak ikusiko ditugu 

LABURPENA

Datu-basean erregistro **berriak** egiteko → Katalogoan lan berri bat sartzen dugunean.

\$a Katalogatzen duen liburutegia

\$b Katalogazio-hizkuntza

\$c ELS

Adibidea:

T040 ## \$aA0005 \$bbaq \$cELS

Erregistro bat **aldatzen** dugunean → Kasu bat baino gehiago daude:

- Egungo erregistroak -- Berriki katalogatutako erregistroak, ELS bat dutenak dagoeneko, baina aldatu egin behar ditugunak.
T040 eremuan ez dugu ezer aldatu eta gaineratuko.

Adibidea:

T040 ## \$aG0251 \$bbaq \$cELS

Lezoko Liburutegiak katalogatutako erregistroa; ez dugu ezer gaineratuko

- Erregistro zaharrak – katalogoak uztartu aurretikoak, \$a eremuan baino ez dira datuak ageri.
 - \$a Lana katalogatu zuen lehen liburutegia
 - \$b Katalogazio-hizkuntza
 - \$c Lana katalogatu zuen lehen liburutegia
 - \$d ELS

Adibidea:

Katalogoak uztartu aurretiko erregistroa. Soilik \$a eremuan ageri dira datuak.

T040 ## \$aO1000

Lege-gordailuz katalogatutako erregistroa; Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen prozeduraren arabera aldatu eta baliozkotuko dugu.

T040 ## \$aO1000 \$bbaq \$cO1000 \$dELS

Eskurapenen datu-basetik ekarritako erregistroetarako → CATA basera erregistro bat ekartzen dugunean, eskurapenen datu-basean (ADQT) aurrez katalogatua, lana aurrez katalogatu zuen liburutegiaren kodea mantenduko dugu \$a eta \$c azpierenmuetan, eta \$d azpierenmuan ELS adieraziko dugu.

- \$a Lana katalogatu zuen lehen liburutegia
- \$b Katalogazio-hizkuntza
- \$c Lana katalogatu zuen lehen liburutegia
- \$d ELS

T041 HIZKUNTZA-KODEA (EE)

Dokumentuarekin lotutako MARC hizkuntza-kodeak jasotzen ditu, erregistroaren **008/35-37** eremuan agertzen den hizkuntza-kodea ez denean aski informazio guztia emateko.

Kode horien iturria arau hau da: *ISO 639-1 – Codes for the representation of names of languages.*

Adierazleak

	# Ez dago informaziorik
	0 Dokumentua ez da itzulpena eta ez du itzulpenik jasotzen. Material gehigarria ez da kontuan hartuko dokumentua itzulpena den ala ez erabakitzeke.
Lehena	1 Dokumentua itzulpena da edo itzulpen bat jasotzen du. Lana jatorrizko hizkuntzan argitaratuta dagoen kontuan hartu gabe erabiliko da. Edonola ere, itzulitako lanak ez badu jatorrizkoaren sarrera bera –adibidez, itzulpenaz gain moldaketa ere badelako–, dokumentua ez da itzulpentzat hartuko eta lehen adierazlea 0 izango da.

Bigarrena # *MARC hizkuntza-kodea*

Azpieremuko kodeak

- \$a *Testuaren hizkuntza-kodea (E)*
- \$b *Laburpenaren hizkuntza-kodea (E).*
- \$h *Jatorrizko hizkuntza-kodea (E)*

Eremu hau honako baldintza hauetakoren bat edo batzuk betetzen direnean erabiliko da:

- Dokumentua hizkuntza batean baino gehiagotan badago eta hizkuntzetako bat zeinu-hizkuntza izan badaiteke.
- Dokumentua bera itzulpena bada edota itzulpenen bat badauka.
- Aurkibideen, laburpenen edo material gehigarrien hizkuntza ez bada dokumentu nagusiaren hizkuntza bera.
- Edukien aurkibidearen hizkuntza ez bada dokumentu nagusiaren hizkuntza bera.

Hizkuntza-kode guztiak karaktere alfabetikoz erregistratzen dira, hizki larriz idatzita.

ETIKETA HAU BETETZEN DEN BAKOITZEAN OHARREAN ADIERAZI BEHARKO DA

(T546, T594, eta abar).

§a - Testuaren hizkuntza-kodea

§a azpierzemuko lehen hizkuntza-kodea ere **T008/35-37** eremuan kodetzen da, non eta **T008/35-37** eremuak zuriunerik (###) ez duen.

Lan eleaniztunetan, testuaren hizkuntza-kodeak testuan duten lehentasunaren arabera kodetzen dira. Hizkuntzen artean nabarmentzen denik ez badago, kodeak hurrenkera alfabetikoz kodetuko dira. Arrazoi praktikoengatik, sei hizkuntza baino gehiago baldin badaude, izenburuaren kodea (edo lehen izenburuarena, bat baino gehiago badago) eta **mul** kodea (hizkuntza anitz) kodetuko dira.

Baliabide jarraituetan, testuaren hizkuntza denbora-tarte baten ondoren aldatu egiten bada, hizkuntza guztien kodeak jarriko dira.

§b - Laburpenaren hizkuntza-kodea

Laburpenen hizkuntzen kodeak jasotzen ditu, betiere testuan erabilitako bera ez bada. Hurrenkera alfabetikoan kodetzen dira.

§h - Jatorrizko hizkuntzaren kodea

Jatorrizko hizkuntzaren edota lan baten tarteko itzulpenen hizkuntzen kodeak. Tarteko itzulpenen kodeak jatorrizkoaren kodeen aurretik kodetzen dira.

Adibideak:

T008/35-37 eng


T041 0# \$aeng \$bger \$bspa (*Testua ingelesez dago, frantsesez, alemanez eta espainieraz idatzitako laburpenekin*)

T008/35-37 baq

T041 0# \$abaq \$bspa (*Testua euskaraz eta gaztelaniaz dago*)

T008/35-37 spa

T041 1# \$aspa \$heng (*Testua gaztelaniazko itzulpen bat da, jatorriz ingelesez argitaratutako testu batena*)

Azpieremu bakoitzak bere katalogazio-taula dauka aurrez zehaztua, “Katalogaziorako Laguntza” botoia sakatuta dauden aukera bakarrak ikusiko ditugu 

T080 SAILKAPEN HAMARTAR UNIBERTSALEKO ZENBAKIA (E)

Eremu honetan Sailkapen Hamartar Unibertsaleko (SHU) notazio bat jasotzen da. SHU sailkapenaren 2. edizioa erabili beharko da sailkapenari dagozkion irizpideak homogeneizatzeko.

Adierazleak**Lehena****0 Osoa.** Zenbakia edizio oso batetik hartzen da.**Bigarrena****1 Laburtua.** Zenbakia edizio laburtu batetik hartzen da.
(Lehenetsita)**# Zehaztugabea****Azpieremuko kodeak****§a Sailkapen Hamartar Unibertsaleko Zenbakia (EE)**

§a - Sailkapen Hamartar Unibertsaleko Zenbakia

Eremu honetan ez dira erabiliko argitalpen seriatuei eta aldizkakoei dagozkien forma-lagunak hauek: (05), (051), eta abar.

Lotutako notazioen hurrenkera ez da alderantzikatuko.

Adibidea:

T080 1# §a94(460.15)**T080 1# §a331.108.62:669.1**

(Eta ez: §a331.108.62:669.1
§a669.1:331.108.62)

Notazioaren hurrenkerari buruz zalantza izanez gero, behatu SHU sailkapeneko sarrerako 3. irudia.

Hizkiak dituzten notazioen kasuan (hirien izenak, egileenak, eta abar.), zuriunerik gabe idatziko dira eta jarraian zenbakiak adierazita.

Adibidea:

T080 1# §a811.361'282(460.154Eibar)

(Eta ez:
§a811.361'282(460.154 Eibar)

Ordenagailu bidez irakur daitezkeen dokumentuen kasuan, laguntzailearen forma espeziifikoa erabiliko dugu beti (0.034).

Adibidea:

T080 1# \$a502.4(0.034)

T080 1# \$a94(460.15)(0.034)

Bideo-grabaketen kasuan, (0.086) laguntzailea erabiliko da.

Adibidea:

T080 1# \$a598(0.086)

T080 1# \$a720(460.15)(0.086)


Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria hartzen dituen kokapen geografikoa adierazteko, lekuari dagokion laguntzaile hau erabiliko dugu:

Adibidea:

<i>Euskal-Herria</i>

(460.15/16+447.9)

Koadro honen kasuan, bada laguntza bat  “SHU atzematea” izeneko botoia sakatuta.



The screenshot shows a web-based library catalog interface. On the left, a list of subjects is displayed under the heading 'Monografiak'. The subjects are listed as follows:

- Goiburua
- T003
- T008
- T017
- T020
- T040
- T080**
- T082
- T083
- T084
- T086
- T100
- T110
- T111
- T130
- T240
- T243
- T245
- T246
- T250
- T260
- T300
- T490
- T500
- T501
- T502
- T504
- T505
- T507
- T508
- T511

The 'T080' subject is highlighted with a red box. A pop-up window titled 'absysNET HSO hartu' is open, displaying a list of literature subjects under the heading '80 - Literatura':

- 821.111 - Ingeleseko literatura
- 821.112.2 - Alemanezko literatura
- 821.112.5 - Nederlanderazko literatura
- 821.113.4 - Danierazko literatura
- 821.113.5 - Norvegierazko literatura
- 821.113.6 - Suedierazko literatura
- 821.124 - Latinezko literatura
- 821.131.1 - Italierazko literatura
- 821.133.1 - Frantsesezko literatura
- 821.134.1 - Katalanezko literatura
- 821.134.2 - Gaztelaniazko literatura
- 821.134.3 - Portugesezko literatura
- 821.134.4 - Galegozko literatura
- 821.14 - Grekozko literatura
- 821.161.1 - Errusierazko literatura
- 821.162.1 - Polonierazko literatura
- 821.162.3 - Txekierazko literatura
- 821.163.2 - Bulgariarazko literatura
- 821.163.41 - Serbierazko literatura
- 821.214 - Indiako literatura

At the bottom of the pop-up window, there are two buttons: 'Hartu' and 'Ezeztatu'. The browser's address bar shows the URL: http://www.test.katalogoak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/abnetcl/X8241/IDade8bb84/NT647/

T084 BESTE SAILKAPEN-ZENBAKI BAT (E)

Beste eremuetan agertzen ez den eskema batetik hartutako sailkapen-zenbakia.

Adierazleak

Lehena	#
	Zehaztugabea
Bigarrena	#
	Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

§a Sailkapen-zenbakia (E)

§a – Sailkapen-zenbakia

Eremu honetan liburutegi batzuen sailkapen espezifikoak adieraziko ditugu. Esate baterako:

- Haurren sekziarako Donostiako Liburutegi Publikoen Sailkapena
Haur eta gazte literaturako fikziozko lanetarako erabiltzen den sailkapena
(V. "Haurrentzako liburuen sailkapen-taula")

Adibidea:

T084 ## §a82-35

- Ikasmaterial eta Hizkuntzalaritza Aplikaturako HABE erakundearen sailkapen zehatza.

Adibidea:

T084 ## §aB30

T100 SARRERA NAGUSIA – PERTSONA-IZENA (EE)

Erregistro bibliografiko batean sarrera nagusi modura erabilitako pertsona-izena. Oro har, arduradun nagusia.

Katalogazio-arauetan ezarritako moduan idatziko dira.

Eremu honek Agintaritza batera eramango zaitu

(V. Agintaritzak)

Adierazleak:

	0 Izena
Lehena	1 Abizenak
	3 Familia-izena
Bigarren a	# Zehaztugabea

Ikus “Monografiak eta Agintaritzak” azpieremuei buruzko informazioa jasotzeko.

Adibidea:

T100 1 # \$aBodegas, Javier

T245 1 0 \$aAnuario ciclista = **\$b**Urtekaria / **\$c**Javier Bodegas

T110 SARRERA NAGUSIA – KORPORAZIO-IZENA (EE)

Eremu honetan sarrera nagusirako aukeratutako korporazio-izena jasotzen da. Sarrera nagusirako korporazioa aukeratuko da baldin eta lanak korporazio baten pentsaera islatzen badu (adib., urtekariak, memoriak, informazio-buletinak etab.).

Eremu honek Agintaritzza batera eramango zaitu

(Ikus. Agintaritzak)

Adierazleak

Lehena	<p>0 Izena alderantzizko hurrenkeran.</p> <p>1 Jurisdikzio-izena</p> <p>2 Izena hurrenkerazuzenean</p>
Bigarrena	# Zehaztugabea

Ikus "Monografiak eta Agintaritzak" azpieremuei buruzko informazioa jasotzeko.

Agintaritzza elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sor daitezkeenak), katalogatzerakoan eremu honetan dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari dagokion agintaritzza hautatuko da (T040 eremuan hautatutako bera).

Adibideak:

<p>T110 2# \$aArquitectos Sin Fronteras T245 10 \$aMemoria anual / \$cArquitectos Sin Fronteras</p> <p>T110 1# \$aEuskadi.Jaurlaritzza T245 10 \$aEusko Jaurlaritzaren liburuen zerrenda = \$bCatálogo de publicaciones del Gobierno Vasco</p> <p>T110 2# \$aGuggenheim Bilbao Museoa T240 10 \$aMemoria (Gaztelaniazko eta euskarazko argit.) T245 10 \$aMemoria / \$cGuggenheim Bilbao</p>
--

Agintaritzza elebiduna T901 eremuan islatuta geratuko da (Sarrera Nagusia-Korporazio-izena (elebiduna)).

Adibidea:

<p>T110 1# \$aAraba.\$bForu Aldundia T901 1# \$aÁlava.\$bDiputación Foral</p>

T111 SARRERA NAGUSIA – KONGRESU-IZENA (EE)

Erregistro bibliografiko batean sarrera nagusi modura erabilitako kongresu- edo konferentzia-izena. Kongresurako goiburu nagusia aukeratzen da jaialdi, kontzertu, kongresu, erakusketa edota udako ikastaroetarako.

Eremu honek Agintaritza batera eramango zaitu

(V. Agintaritzak)

Adierazleak**Lehena****0 Izena alderantzizko hurrenkeran****2 Izena hurrenkera zuzenean****Bigarrena****# Zehaztugabea**

Ikus "Agintaritzak" azpieremuei buruzko informazioa jasotzeko.

Agintaritza elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sor daitezkeenak), katalogatzerakoan eremu honetan dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari dagokion agintaritza hautatuko da (T040 eremuan hautatutako bera).

Adibideak:**T111 2# \$aBegibistan (\$cAmurrio)****T111 2# \$aNazioarteko Txotxongilo Jaialdia (\$cTolosa)****T111 2# \$aMendi Film Festival (\$cGasteiz)**

Agintaritza elebiduna T902 eremuan islatuta geratuko da (Sarrera Nagusia-Kongresu-izena (elebiduna)).

Adibidea:**T111 2# \$aEuskal Zinema Astea (\$cGasteiz)****T902 2# \$aSemana de Cine Vasco (\$cVitoria)**

T130 SARRERA NAGUSIA – IZENBURU HAUTATUA (EE)

Erregistro bibliografiko batean sarrera nagusi modura erabiltzen den izenburu hautatua. Izenburu bera izanik beste hizkuntza, euskarri edota edizio batean argitaratu diren edota beste erakunde batzuek argitaratu dituzten argitalpen seriatuak bereizteko erabiliko dugu.

T130 eremua duten erregistroetan ezin da egon **T100**, **T110** edo **T111** eremurik. Etiketa honetan parentesi artean kualifikatzaileei buruz sartzen den informazioa katalogazio-hizkuntzaren arabera idatziko da.

Eremu honek Agintaritza batera eramango zaitu

(V. Agintaritzak)

Adierazleak

- Lehena** **0-9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko, kontuan hartzen ez diren karaktereak** Izenburu baten hasieran artikulua mugatu edo mugagabe batekin lotzen den karaktere kopurua, indexazio eta alfabetizazio prozesuetan baztertu egiten dena (adibidez: El, The, Der), eta edozein diakritiko edo karaktere berezi (ç, i, [)
- Bigarrena** # **Zehaztugabea**

Ikus "Agintaritzak" azpieremuei buruzko informazioa jasotzeko.

Agintaritza elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sor daitezkeenak), katalogatzerakoan eremu honetan dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari dagokion agintaritza hautatuko da (T040 eremuan hautatutako bera).

Adibideak:

T130 0# \$aAnuario (Álava Agencia de Desarrollo)

T130 0# \$aEstudios de arqueología alavesa (Ed. impresa)

T130 0# \$aEstudios de arqueología alavesa (CD-ROM)

T130 0# \$aBasque enterprise (Ed. en español)

T130 0# \$aBasque enterprise (Ed. en inglés)

T130 0# \$aAsmoz ta jakitez (Euskarazko argit.)

T130 0# \$aEconomía vasca (Mondragón. Ed. extensa)

T130 0# \$aEconomía vasca (Mondragón. Ed. abreviada)

T130 0# \$aIndustri sektorearen kontuak (Argit. zabala)

T130 0# \$aEl Mundo del siglo veintiuno del País Vasco (Ed. Gipuzkoa. Ed. impresa)

T130 0# \$aEconomía vasca (Vitoria)

T130 0# \$aHermes (Bilbao. 2001)
T130 0# \$aEconomía vasca (Gasteiz)
T130 0# \$aHermes (Bilbo. 2001)

Agintaritza elebiduna T903 eremuan islatuta geratuko da (Sarrera Nagusia-Izenburu hautatuaren izena (elebiduna)).

Adibidea:

T130 0# \$aKontzejupetik (Soraluze)
T903 0# \$aKontzejupetik (Placencia de las Armas)

Izenburu hautatuetan, parentesi artean zehaztutako edizio-hizkuntzak idazteko orduan, **T245** (Izenburuaren aipua) eremuan izenburuen hizkuntzak aipatzeko erabilitako hurrenkera bera erabiliko dugu, eta hala egin ezin bada ez dagoelako izenbururik hizkuntza batean baino gehiagotan, dokumentuan azaltzen den hizkuntza-hurrenkera erabiliko dugu.

Hau da parentesi barneko elementuen hurrenkera: **(Lekua. Urtea. Euskarria/Dimentsioa/Edizioa)**

Adibidea:

T130 0# \$aKoiunturaz (Euskarazko eta gaztelaniazko argit.)
T245 10 \$aKoiunturaz
(Azala eta testua kontrajarrita euskaraz eta gaztelaniaz)
T130 0# \$aEmakunde (Paperean argit.)
T130 0# \$aEmakunde (Internet)
T245 10 \$aEmakunde [\$hBaliabide elektronikoa]
T130 0# \$aEguna (Bilbo. 1937. Argit. faks.)
T130 0# \$aYakintza (Ed. facs.)
T130 0# \$aEntre mayores (2008. Ed. País Vasco)
T245 10 \$aEntre mayores :\$bEM

Kualifikatzaileen taula:

Ed. impresa	<i>Paperean argit.</i>
Ed. facs.	<i>Argit. faks.</i>
Disquete	<i>Disketea</i>
CD-ROM	<i>CD-ROM</i>
DVD	<i>DVD</i>

Memoria USB	<i>USB memoria</i>
Internet	<i>Internet</i>
Ed. diaria	<i>Eguneroko argit.</i>
Ed. semanal	<i>Asteroko argit.</i>
Ed. mensual	<i>Hileroko argit.</i>
Ed. bimestral	<i>Bihilabeteroko argit.</i>
Ed. trimestral	<i>Hiruhileroko argit.</i>
Ed. anual	<i>Urteroko argit.</i>
Ed. abreviada	<i>Argit. laburtua</i>
Ed. extensa	<i>Argit. zabala</i>
Ed. Gipuzkoa	<i>Gipuzkoako argit.</i>
Ed. en euskera	<i>Euskarazko argit.</i>
Ed. en español	<i>Gaztelaniazko argit.</i>
Ed. en inglés	<i>Ingelesezko argit.</i>
Ed. en portugués	<i>Portugesezko argit.</i>
Ed. en italiano	<i>Italianozko argit.</i>
Ed. en euskera y español	<i>Euskarazko eta gaztelaniazko argit.</i>
Ed. en euskera, español y francés	<i>Euskarazko, gaztelaniazko eta frantsesezko argit.</i>
Ed. en español e inglés	<i>Gaztelaniazko eta ingelesezko argit.</i>
Ed. en español y portugués	<i>Gaztelaniazko eta portugesezko argit.</i>
Ed. en español, inglés y euskera	<i>Euskarazko, ingelesezko eta gaztelaniazko argit.</i>
Ed. en francés e inglés	<i>Frantsesezko eta ingelesezko argit.</i>

Zenbait kasutan ISSN zenbakitik hartutako gako-izenburuaren kualifikatzailea ez dator bat HAEE erakundearen itzulpen-zerbitzuak baliozkotu duenarekin. Hura erabiltzea gomendatzen da, baldin eta badago; bestela, HAEE erakundeak adierazitakoa erabiliko dugu.

Adibidea:
<i>ISSN zenbakiaren arabera:</i> T130 0# \$a Euskararen berripapera (Argit. euskaraz) <i>Gako-izenbururik ez balego, honela idatziko genuke:</i> T130 0# \$a Euskararen berripapera (Euskarazko argit.)

T222 GAKO-IZENBURUA (E)

Eremu honetan jasotzen da baliabide jarraitu bati Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatuarekin batera (ISSN), zeina **T022** eremuan jasotzen baita, ezartzen zaion izenburu bakarra. Gako-izenburua eratzeko, argitalpen seriatuen faszikulu batetik transkribatutako izenburuari buruzko informazioa hartzen da; horretarako, kalifikatzaileak erabiltzen dira bakarra izan dadin hala behar denerako. Gako-izenburua ISSN sarearen baitako zentro nazionalak soilik ezar dezakete. ISSN zenbakian adierazitako moduan idatziko da, ez da itzuliko.

Sistemak, **T022** eta **T222** eremuen informaziotik abiatuta, lotutako bistaratzeak sortuko ditu, eduki bi horiek erlazionatuz.

Adierazleak

Lehena # *Zehaztugabea*

Bigarrena *0-9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko, kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua*

Azpieremuko kodeak

\$a *Gako-izenburua (EE)*

\$b *Informazio gehigarria (EE)*

\$a – Gako-izenburua

Argitalpenari dagokion ISSN zenbakia jaso denean soilik jarriko da.⁵ Argitalpen seriatuaren izenburu nagusia berbera denean ere, adierazi egingo da. **Transkribatzeko orduan, argitalpen horiek deskribatzeko agindutako informazio-iturrietan edota kontsultatutako errepertorioetan ezarritakoari jarraituko zaio.**

Adibidea:

T222 #0 \$a7 baietz!

T245 00 \$a7 baietz! : **\$b**unibertsitarion aldizkaria

Adibidea:

MARC formatua:

T022 ## \$a0213-0289

⁵ Gako-izenburua deskribapenaren xede den argitalpenean agertzen ez bada, bibliografia nazionaletara edo beste errepertorio bibliografiko batzuetara joko da hura hautemateko. Adibidez: <<http://www.bne.es>>

T222 #0 \$aCuadernos de sección. Medios de comunicación
T245 00 \$aCuadernos de sección. **\$p**Medios de comunicación



Adibidea:

Bistaratzearen formatua:

ISSN 0213-0289 = Cuadernos de sección. Medios de comunicación

\$b – Informazio gehigarria

Izenburua kalifikatzen duen informazioa, hura berdingabe bilakatzeko. Sistemak sortutako parentesi artean ipintzen da.

Adibidea:

T222 #0 \$aLikken (**\$b**Lasarte-Oria, Gipuzkoa)
T245 00 \$aLikken

Adibidea:

T110 2# \$alberdrola
T222 #0 \$aUrteko txostena (**\$b**lberdrola)
T245 10 \$aUrteko txostena / **\$c**lberdrola

Adibidea:

T222 #0 \$aPrevención (**\$b**Trimestral)
T245 00 \$aPrevección

Adibidea:

T222 #0 \$aInguruak (**\$b**Bilbao. Boletín)
T245 00 \$aInguruak

Adibidea:

T222 #3 \$aEl Mundo del siglo veintiuno del País Vasco (**\$b**Ed. Bizkaia)
T245 03 \$aEl Mundo del siglo veintiuno del País Vasco
T250 ## \$aEd. Bizkaia

Adibidea:

MARC formatua:

T222 #0 \$aAnkulegi (**\$b**Donostia)
T245 00 \$aAnkulegi : **\$b**gizarte antropologia aldizkaria = revista de antropología social



Adibidea:

Bistaratzearen formatua:
ISSN 1138-347X = Ankulegi (Donostia)

Adibidea:

MARC formatua:
T222 #3 \$aEl Nervión (**\$b**Bilbao. 2014)
T245 03 \$aEl Nervión : **\$b**diario de información general



Adibidea:

Bistaratzearen formatua:
ISSN 2387-1199 = El Nervión (Bilbo. 2014)

T240 IZENBURU HAUTATUA (EE)

Lan baten izenburu hautatua deskribapen bibliografikoaren sarrera nagusia pertsona-, korporazio- edo kongresu-izena duen eremu bat duenean.

Oro har, izenburu bera izanik beste hizkuntza, euskarri eta abar batzuetan argitaratu diren argitalpen seriatuak bereizteko erabiliko dugu. Lanean agertzen den izenburua **T245** eremuan erregistratzen da.

Erregistroan **T130** eremua dagoenean ez da **T240** eremua erabiliko.

Eremu honek Agintaritzak batera eramango zaitu

(Ikus. Agintaritzak)

Adierazleak

Lehena	0 Ez da inprimatzen, ez bistaritzen
	1 Inprimatu edo bistaratu egiten da
Bigarrena	0-9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko, kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua

Azpieremuko kodeak

\$a	Izenburu hautatua (EE)
\$l	Lanaren hizkuntza (EE)

Ikus "Agintaritzak" azpieremuei buruzko informazioa jasotzeko.

Adibideak:

T110 2# \$a Remar Internacional
T240 10 \$a Memoria (Ed. en español)
T110 2# \$a Remar Internacional
T240 10 \$a Memoria (Ed. en portugués)
T110 2# \$a Autoridad Portuaria de Pasajes
T240 10 \$a Memoria (Ed. impresa)
T245 10 \$a Memoria / \$c Autoridad Portuaria de Pasajes
T110 2# \$a Autoridad Portuaria de Pasajes
T240 10 \$a Memoria (CD-ROM)
T245 10 \$a Memoria [\$h Recurso electrónico] / \$c Pasaiaiko Portuko Agintaritzak = Autoridad Portuaria de Pasajes

Izenburu hautatuetan, parentesi artean zehaztutako edizio-hizkuntzak idazteko orduan, **T245** (Izenburuaren aipua) eremuan izenburuen hizkuntzak aipatzeko erabilitako hurrenkera bera erabiliko dugu, eta hala egin ezin bada ez dagoelako izenbururik hizkuntza batean baino gehiagotan, dokumentuan azaltzen den hizkuntza-hurrenkera erabiliko dugu.

Adibideak:**T110 2# \$a**Mondragón Corporación Cooperativa**T240 10 \$a**Modelo de gestión corporativo (Gaztelaniazko eta euskarazko argit. CD-ROM)**T245 10 \$a**Modelo de gestión corporativo [**\$h**Baliabide elektronikoa] = **\$b**Gestio eredu kooperatiboa / **\$c**Mondragón Corporación Cooperativa**T110 2# \$a**Museo Guggenheim Bilbao**T240 10 \$a**Memoria (Ed. en español e inglés)**T245 10 \$a**Memoria = **\$b**Biennial report / **\$c**Guggenheim Bilbao

Agintaritza elebiduna T940 eremuan islatuta geratuko da (Izenburu hautatua (elebiduna)).

T245 IZENBURUAREN AIPUA (EE)

Obraren deskribapen bibliografikoaren izenburua eta erantzukizunaren aipua jasotzeko eremua. Eremuan izenburu nagusia jasotzen da. Halaber, materialaren izendapen orokorra, izenburuaren gainerakoak, izenburuari buruzko informazio osagarria eta erantzukizunaren aipua ere jaso daitezke. Izenburu nagusiaren barruan sartzen dira izenburua laburtua eta izenburu alternatiboa, zatiaren edo atalaren zenbakia eta azken horren izena.

Adierazleak

Lehena	0	<i>Ez dago sarrera gehigarrik</i>
	1	<i>Sarrera gehigarria dago</i>
Bigarrena	0-9	<i>Alfabetoaren arabera ordenatzeko, kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua</i>

Azpieremuko kodeak

\$a	<i>Izenburua (EE)</i>
\$b	<i>Izenburuaren gainerakoak (EE)</i>
\$c	<i>Erantzukizunaren aipua (EE)</i>
\$h	<i>Material-mota (EE)</i>
\$n	<i>Lanaren zatiaren edo atalaren zenbakia (E)</i>
\$p	<i>Lanaren zatiaren edo atalaren izena (E)</i>

Izenburu nagusia idazteko orduan, arau orokor hauek hartuko dira kontuan:

- Izenburu baten hasieran dauden artikulua, mugatuak nahiz mugagabeak, ez dira alfabeto bidez adierazten.
- Izenburua sarrera nagusia denean alfabeto bidez adierazteko lehen hitza hizki xeheez emango da, baldin eta akats ortografikoa betetzen ez bada.
- Izenburua zenbaki batekin hasten denean **T246** etiketan haren transkripzio alfabetikoa adierazi beharko da.

Adibidea:

T245 00 \$a20 minutos . \$pBilbao : \$bel primer diario que no se vende

T246 3# \$aVeinte minutos. \$pBilbao

- Artikulu batekin hasten ez den izenburuaren hasieran agertzen diren diakritiko edo karaktere bereziak [ç, i, “, i !, eta abar] agertzen diren moduan idatziko dira, (...) “etenpuntuak” salbuetsita, horiek honela transkribatuko baitira: __ (2 azpiko marratxo zuriunerik gabe). Karaktere horiek EZ DUTE HURRENKERA ALFABETIKORIK.

Adibidea:

T245 02 \$a __Eta kitto! : \$b Eibarko aldizkaria

- Informazioa errazago bilatu eta berreskuratze aldera, izenburu edota erantzukizunaren aipu batean puntuz bereizitako inzialak agertzen badira, inzialen artean zuriuneak erabiliko ditugu (AUTOn egiten den moduan).

Inizialek punturik gabeko akronimoa osatzen badute, inzial horiek ez ditugu zuriune bidez bereiziko.

Adibidea:

T245 10 \$a Revista Fundación Estadio S. D. / \$c Fundación Estadio S. D. Fundazioa

T245 10 \$a Uk : \$b Urbe Kostako aldizkaria
--

\$a – Izenburua

Izenburu nagusia, zatiaren zenbaki edo izena salbu, eta edozein izenburu alternatibo jasotzen dira. Lehen ISBN puntuazio-zeinura arte azaltzen den informazio guztia jasotzen da.

Izenburu nagusia atarian azaltzen den bezalaxe transkribatuko da, hizki larriak edo puntuazioa nahitaez errespetatu beharrik gabe; edozein kasutan, hizkuntza bakoitzaren ortografia-arauak errespetatu egin behar dira. Esate baterako, alemanezko lanen kasuan substantiboak hizki larriz adieraziko dira.

Adibidea:

T245 0 0 \$a Tandem Neuigkeiten
--

T594 oharrean adieraziko da izenburu nagusiaren iturria:

- a) Paperezko dokumentuetan ataririk ez dagoenean.
- b) Baliabide elektronikoen kasuan, beti adieraziko da oharrean izenburu nagusiaren iturria.

Kasurik ohikoenak:

- Baliabide **kontrajarrien** kasuan, T245 eremuan **bi izenburuak** agertuko dira. **Izenburu nagusi modura hautatzen ez den izenburua pareko izenburu modura ematen da.** (*ISBD kontsolidatuan* ezartzen den moduan).

Adibidea:

T245 10 \$a Jasangarritasunaren txostena / \$c SPRI = Memoria de sostenibilidad / SPRI
--

T246 11 \$a Memoria de sostenibilidad
--

T594 ## \$a Badu, gainera, bere az. eta or. propioekin, testu bera behekoz gain gaztelaniaz
--

- Egilearen izena edo erantzukizunaren beste aipuren bat izenburuaren atal bereizezin modura agertzen bada, iturriaren asmoa errespetatu egingo da eta **\$a** eremuan transkribatuko da.

Adibidea:

T245 10 \$aBoletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo

- Oro har juntagailu hautakariz bereizten diren izenburu alternatiboen kasuan, biak adieraziko dira **\$a** eremuan, baina bigarren izenburuaren lehen hitza hizki larriz hasiko da.

Adibidea:

03 \$aEl Panderero o Heraldico jocoserio

- Egile beraren hainbat izenburu badaude, lehenengoa **\$a** azpieren eremuan transkribatuko da eta gainerakoak **\$b** azpieren eremuan ostean, aurretik zuriunea eta puntu eta koma (;) ipinita. **\$b** azpieren bakararra jarriko da. Gainerako izenburuen bigarren mailako sarrerak idatziko dira, horretarako behar adina **T740** erabilita.

Adibideak:

T110 2# \$aUniversidad de Deusto

T245 10 \$aMemoria académica ; **\$b**Apertura del curso / **\$c**Universidad de Deusto

T740 02 \$aApertura del curso

- Hainbat izenburu jasotzen dituen baliabide jarraituen kasuan, izenburu bakoitza puntu bidez bereiziko da, baldin eta erantzukizunen-aipurik ez badu.

Adibidea:

T245 00 \$aEnortuella.com. **\$b**Enabantozierbena.com. Enmuskiz.com. Entrapagaran.com

T740 02 \$aEn Abanto Zierbena punto com

T740 02 \$aEn Muskiz punto com

T740 02 \$aEn Trapagaran punto com

- Izenburu kolektiboa duten lanen kasuan, mendeko izenburuak T530 ohar batean idatziko dira.

Adibidea:

T245 00 \$aRevista Deusto [**\$h**Recurso electrónico]

T530 ## \$aEd. acumulativa en CD-ROM de: U.D. (Bilbao. 1944); Noticias (Universidad de Deusto); UD noticias; Universidad de Deusto; y: Deusto

Argitalpen seriatuen kasuan, izenburu nagusiak hainbat formatan azal daitezke. Halakoetan, informazioa berreskuratu ahal izateko, izenburu nagusiaren aldaera guztiak jaso beharko dira **T246** eremuan.

Izenburu nagusiaren formak

1. Termino orokor batez edo batzuez osatuta egotea gerta daiteke.

Adibidea:
T245 00 \$aBoletín / \$cColegio Oficial de Delineantes y T.S. Projectistas de Gipuzkoa
T245 00 \$aTxostena / \$cGarapen
T245 00 \$ainforme / \$cAmnistía Internacional
T245 00 \$aEgitaraua / \$cArabako Antzinako Musika Astea
T245 00 \$aPrograma / \$cInstituto de Teología y Pastoral

2. +, x, &, ., @ moduko zeinuak izan ditzake; halakoak informazio-iturri nagusian datozen bezalaxe transkribatuko dira. Kasu horretan T246 eremua bete egingo da, informazioa behar bezala berreskuratze aldera.

Adibideak:
T245 00 \$aA + t
T246 3# \$aA gehi t
T245 00 \$aRS+
T246 3# \$aReal Sociedad gehi
T246 3# \$aReal Sociedad plus
T246 3# \$aReal Sociedad positiboa
T245 00 \$a20 x 40
T246 3# \$a20 bider 40
T245 00 \$aClío & crimen
T246 3# \$aClío eta crimen
T246 3# \$aClío and crimen
T245 00 \$aEducación 3.0
T246 3# \$aEducación hiru puntu zero
T245 00 \$a@rroba
T246 3# \$aArroba

3. Pertsona baten edo korporazio baten izena izan daiteke, atarian izen hori beste izenbururik ez datorrenean.

Adibidea:
T245 00 \$aPoliclínica Gipuzkoa

4. Atarian tipografikoki nabarmenduta azaltzen den inisial-multzo bat, akronimo bat edo logotipo bat ager daiteke.

Adibideak:
T245 00 \$aANPE Guipúzcoa

T245 00 \$aClub CCC
T246 3# \$aClub Centro de Cultura por Correspondencia

T245 00 \$aSXF
T246 3# \$aSíndrome X Frágil

T245 00 \$a7k zazpika
T246 3# \$a7k
T246 30 \$aZazpi k zazpika

Izenburuaren forma osoa eta, harekin batera, inzialak edo akronimoa ere azaltzen direnean, forma osoa aukeratuko da izenburu nagusirako, eta atarian ageri diren inzialak edo akronimoa izenburuaren informazio osagarri gisa jasoko dira. Izenburu nagusirako hartu ez den forma **\$b** azpieremuan jasoko da, bai eta **T246** eremuan ere.

Adibidea:

T245 00 \$aCultural Álava : \$bCA
T246 30 \$aCA

Izenburu nagusia sigla edo akronimo bat denean, eta forma osoa atariaz bestelako iturri batean ageri denean, forma osoa **T246** eremuan jasoko da.

Adibidea:

T245 00 \$aCollection CAP
T246 13 \$aCollection clés de l'amélioration personnelle

5. Zenbakiak edo hizkiak izan ditzake.

Adibideak:

T245 00 \$a7 baietz!
T246 3# \$aZazpi baietz!
T245 00 \$aD : \$bherri-ekonomiaz = economía pública

6. Izenburuaren hasieran puntuazio-zeinuak egon daitezke –hala nola ¿, ?, “, i, ! etab.–, eta datozen bezala transkribatuko dira. (...) zeinua, aldiz, __ transkribatuko da (bi behe-marra, zuriunerik gabe). Sinbolo horiek EZ DUTE HURRENKERA ALFABETIKORIK.

Adibidea:

T245 01 \$aiM! : \$bmujeres con voz = emakumeen ahotsa

7. Izenburuan faszikulu batetik edo faszikuluaren zati batetik bestera aldatzen diren data, izen edota zenbakiak izan ditzake; azken horiek ez dira adierazi behar. Urtekari, memoria edo balantzeetan gertatu ohi dira halakoak.

Adibidea:

T245 00 \$a Temporada de ópera (*Opera denboraldia 2000/2001, Opera denboraldia 2001/2002 eta abar adierazi beharrear.*)

8. Erantzukizun-aipu bat, argitaratzailearen izena edo beste elementu deskribatzaile batzuei buruzko xehetasunak izan ditzake (adibidez, edizioaren aipua), betiere baldin eta informazio hori izenburuaren zati integrala bada.

Adibidea:

T245 00 \$aBoletín informativo del Club Vasco de Camping

9. Izenburu ohikoa eta mendeko izenburu-izendapen bat edota mendeko izenburu bat izan dezake: sekzioak, gehigarriak, eta abar.

Adibideak:

T245 00 \$aCuadernos de sección. **\$p**Medios de comunicación

T245 00 \$aGeographical abstracts. **\$n C, \$p**Economic geography

Izenburu nagusiaren transkripzioa

1. Izenburu nagusia atarian azaltzen den bezalaxe transkribatuko da, hizki larriak edo puntuazioa nahitaez errespetatu beharrik gabe; edozein kasutan, hizkuntza bakoitzaren ortografia-arauak errespetatu egin behar dira. Esate baterako, alemanezko lanen kasuan substantiboak hizki larriz adieraziko dira.

Adibidea:

T245 00 \$aTandem Neuigkeiten

2. Agerikoak diren akats tipografikoak izenburu nagusia transkribatzean zuzenduko dira (T245), eta T246 eremuan izenburu okerra adieraziko da. Hitz baten edo batzuen kasuan ortografia zuzena zein den zalantzarik izanez gero, ageri den bezalaxe transkribatuko dira.

Adibidea:

T245 00 \$aEuro[r]región en cifras (*akats zuzendua*)

T246 13 \$aEuroregión en cifras (*iturri nagusian agertzen den bezalaxe*)

T246 13 \$aEuroregión en cifras (*izenburu zuzendua, aurreko faszikulu batean agertua*)

Izenburuan akatsen bat dagoenean, normalean, hurrengo faszikuluetan edo zatietan zuzendu egiten da, eta, beraz, akats horren berri oharrean ematea iruditzen zaigu egokiena.

3. Salbuespen gisa, izenburu nagusia luzeegia denean, laburtu egin daiteke, betiere baldin eta laburtuz gero izenburuaren esanahia aldatzen ez bada, informazio garrantzitsurik galtzen ez bada edo akats gramatikalik sortzen ez bada. Izenburua laburtzen denean hutsune-markak (...) erabiliko dira; ez dira inoiz kenduko izenburu nagusiaren lehen bost hitzak (lehen seiak, baldin eta lehen hitza artikulua bada).
4. Izenburu nagusian lehenagoko izenburuei, bereganatutako argitalpenei eta abarrei erreferentzia egiten dien aipurik badago, izenburuaren gainerakoei gramatikalki lotuak nahiz lotu gabe, aipu horiek ez dira izenburuaren zati gisa transkribatuko. Hutsune-markarik ere ez da jarriko. **T580** oharrean beste argitalpen seriatuekiko erlazioak adieraziko dira, eta erlazionatutako sarrerek egingo zaizkie (**T76X-78X**).
5. Izenburuaren lehen hitzaren ondoren gertatzen bada, hutsune-marka (...) erabiliko da. Marka horren aurretik eta atzetik tarte bat jarriko da, betiere baldin eta ondoren punturik, harridura-markarik edo galdera-ikurrik ez badago.

■ \$h - Material mota

Material mota adierazteko terminoa. Kortxete artean adierazten da. Soilik kasu hauetan erabiliko dugu \$h azpierzemua:

- Baliabide jarraituak euskarri elektronikoan
Termino hau erabiliko dugu: [**Recurso electrónico**] edo [**Baliabide elektronikoa**]
- Baliabide jarraituak mikrofitxa- edo mikrofilma-euskarrian
[**Microforma**] edo [**Mikroforma**] terminoa erabiliko dugu

Izenburu nagusiaren (**\$a**, **\$n**, **\$p**) ondoren jartzen da beti eta izenburuaren gainerakoen (**\$b**) edota erantzukizun-aipuaren (**\$c**) aurretik. Kasu honetan \$b bat \$h baten atzetik dagoenean \$b horren puntuazioa ez da aurrez ipintzen (“:” “=” beti \$b-aren atzetik)

ISBD kontsolidatuan ezartzen den moduan, izendatzailea hizki larriz hasiko da.

Adibideak:


T245 13 \$aEl correo del norte [**\$hBaliabide elektronikoa**] **\$b**: diario regional tradicionalista

T245 00 \$aGizarte-erantzukizun korporatiboaren txostena [**\$hBaliabide elektronikoa**]

\$b= Memoria de responsabilidad social corporativa

T245 10 \$aEuskal Herriko agintaritzaren aldizkaria [**\$hMikroforma**] **\$b**= Boletín oficial del País Vasco

<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
Recurso electrónico	Baliabide elektronikoa
Microforma	Mikroforma

Azpieremu honek katalogazio-taula bat dauka aurrez zehaztua, “Katalogaziorako Laguntza” botoia sakatuta dauden aukera bakarrak ikusiko ditugu 

\$b – Izenburuaren gainerakoak

\$b azpiereemuan izenburuaren gainerakoak sartzen dira, hots, azpiizenburua, pareko izenburuak edota izenburuari buruzko informazio osagarria. **\$b** azpiereemua ezin da errepikatu; beraz, beharrezkoa bada, dagokion zeinua errepikatuko da (; : =). Era berean, **\$b** azpiereemuaren aurretik jartzen diren puntuazio-zeinuak **katalogatzaileak bete beharko ditu**, aldatu egin baitaitezke (; : =).

Izenburu aizunak

Informazio-iturrietan adierazten ez den azalpenen bat behar duten izenburuen kasuan, izenburu aizun bat erabiliko da. Izenburu aizun hori kortxete artean idatziko da beti, dokumentuaren hizkuntzan, izenburu nagusitik bi punturekin (:) bereizita eta **\$b** azpiereemuaren ostean.

Adibideak:

T245 00 \$aElciego : **\$b[programa oficial de fiestas]**
T245 00 \$aMendi Film Festival : **\$b[egitaraua]**

Azpiizenburua eta pareko izenburua

Azpiizenburua beti hizki xehez hasiko da, ponte-izenak ez badira.

Informazio-iturri nagusian agertzen ez diren azpiizenburua edota izenburuari buruzko informazio osagarria ohar bidez transkribatuko dira normalean, baldin eta beharrezkotzat jotzen ez badira dokumentua identifikatzeko edo deskribapena behar bezala ulertzeko. (Adib.: Gipuzkoa : [errepideak]).

Ahal dela, dokumentuan agertzen diren pareko izenburu guztiak idatziko dira. Izenburu asko agertzen badira, eremu honetan kodetzen ez direnak **T246** eremuan kodetuko dira, 1 3 adierazleekin. Eremu honetan transkribatzen diren pareko izenburuak erregistro bibliografikoan jasoko dira **T246** eremua erabiliz 1 1 adierazleekin eta, beharrezkoa balitz, **T594** ohar bat idatziko da (esate baterako, zenbaki edo data batetik abiatuz aldaketak daudenean).

Adibidea:

T245 03 \$aUn mundo, muchas miradas = **\$b**Mundo bat, begirada anitz
T246 11 \$aMundo bat, begirada anitz
T246 13 \$aUn mondo, molti sguardi
T246 13 \$aEine Welt - viele Sitchweisenárabe
T594 ## \$aPareko izenburuak hizkuntza ugaritan

Gainera, geroagoko faszikulu edo zatietan pareko izenburu bat gehitzen, kentzen edo aldatzen bada, **T594** oharra idatziko da gorabehera horien berri emanez, eta, horretarako, **T246** eremua erabiliko da.

Adibideak:
T245 10 \$a Memoria anual del puerto / \$c Puerto de Pasajes
T246 13 \$a Annual report Port of Pasajes
T594 ## \$a A partir de 1983, tít. paralelo en inglés: Annual report Port of Pasajes
T245 03 \$a AILA review = \$b Revue de l'AILA
T246 11 \$a Revue de l'AILA
T594 ## \$a A partir del n. 10 (1993) desaparece el tít. paralelo

Izenbururako emandako araei jarraituko zaie izenburuei buruzko informazio osagarri luzeegi bat laburtzeko, edo datak, zenbakiak eta abar aipatu gabe uzteko, bai eta akats tipografiko nabarmenak transkribatzeko orduan ere.

Pareko izenburuaren ondoren ageri diren erantzukizun-aipuak eta izenburuaren elementuak ez dira azpideremuetan kodetzen.

Azpiizenburuen kasuan, ez da beharrezkoa izango 246 eremu batean adieraztea, baina bai 594 eremuan.

Kasurik ohikoenak:

- Pareko izenburu asko eta azpiizenburu baterako bat dagoenean, azken hori amaieran transkribatuko da.

Adibidea:
T245 10 \$a Komunikazioaren gidaliburua = \$b Guía de la comunicación : Euskadi

- Hizkuntza ugaritan agertzen diren izenburu eta azpiizenburuak dituzten dokumentuen kasuan, izenburu bakoitza transkribatu ondoren dagokion azpiizenburua eta pareko izenburua idatziko dira.

Adibidea:
T245 00 \$a Los ríos de Gipuzkoa : \$b estaciones de aforo y calidad = Gipuzkoako ibaiak : ur emari eta kalitatearen aforalekuak

- Baterako izenburua eta beste hizkuntza batzuetan idatzitako azpiizenburua duten dokumentuen kasuan, horrela transkribatuko da:

Adibidea:
T245 00 \$a Adoz : boletín del Centro de Documentación en Ocio = Aisiatzko Dokumentazio Zentroaren boletina

§c – Erantzukizun-aipua, eta abar.

Lehen erantzukizun-aipua edota beste azpieremuetan kodetzen ez den eremuko gainerako informazioa.

Pertsona- edota -korporazio izenak informazio-iturri nagusian agertzen diren moduan transkribatuko dira. Barraren osteko lehen hizkia xehea izango da, baldin eta akats ortografikoa betetzen ez bada.

Aplikazio-irizpideak

- Erantzukizun-aipua dagokio deskribatu beharreko baliabide jarraituaren eduki intelektual edo artistikoaren sorreran edo egikeran esku hartu duen edozein korporaziori (norbanako egilea edo erakunde korporatiboa). Soilik erantzukizun nagusia duten norbanako egileen eta korporazioen aipua jasoko dira. Beste erantzukizun-aipu batzuk ere jaso daitezke, baldin eta baliabide jarraitua identifikatzeko beharrezkoak badira edota katalogoaren erabiltzaileentzat interesgarriak badira.
- Behin §c azpieremua betetakoan, ezin izango da **T245** eremuko beste azpieremurik erabili.
- Erantzukizun-aipuan ez da jasoko argitalpen seriatuen zuzendarien izena. Erantzukizun hori adierazi beharra dagoela uste bada, ohar batean jarriko da.

Adibidea:

T245 00 \$aAnuario de Euskal-Herria
T594 ## \$aDirector, Francisco Javier Marcos Real

- Korporazio baten izena atarian ageri bada izenburu nagusiaren barruan, pareko izenburuaren barruan edo informazio osagarriaren barruan laburtuta edota akronimo nahiz sigla-multzo baten bidez emana, haren forma garatua errepikatzea gomendatzen da erantzukizun-aipu gisa.

Adibidea:

T245 00 \$aSPRIL : **\$b**prevención y salud la boral / **\$c**Servicios de Prevención en Riesgos Laborales

- Izenburu nagusia korporazio baten izena denean eta atarian laburturik bakarrik datorrenean, forma garatua jaso behar da erantzukizunaren aipu gisa.

Adibidea:

T245 00 \$aACTA / **\$c**Autores Científico-Técnicos y Académicos

- Korporazioen kasuan, erantzukizun-aiuari dagozkion aldaketak **T550** oharrean jaso behar dira.

Adibidea:

T245 00 \$aAzpeitiko euskalgintzaren aldizkaria / **\$c**Baite Azpeitiko Euskara Elkarte
T550 ## \$aKorporazio erantzulea <2004>: Uztarria

\$n – Lanaren zati baten edo atal baten zenbakia

Izenburuan azaltzen den lan-zati edo lan-atal baten zenbaki bat. “Zenbakikuntza” da edozein eratako sekuentziaren adierazpena, beti **\$a** ondoren idazten da eta aurretik puntua (.) ipinita, eta iturrian erabilitako terminologiari jarraituz jasoko da: I seriea, A eranskina, eta abar.

Zati edo atal baten zenbaki alternatibo ugari daudenean, **\$n** azpiero bakar batean jasoko dira.

Adibidea:

T245 00 \$aAnales de química .**\$n**Serie A

\$p – Lanaren zati baten edo atal baten izena

Izenburuan azaltzen da lan-zati edo lan-atal baten izena. **\$p** azpieroaren aurretik beti puntua (.) ipintzen da, baldin eta **\$a** eremuaren edo beste **\$p** azpiero baten ostean agertzen bada. Aurretik **\$n** azpiero badago, koma (,) erabiliko da puntuazio-zeinu modura.

Adibideak:

T245 00 \$aAutrement. **\$p**Série Monde
T245 00 \$aContrastes. **\$p**Hors série
T245 00 \$aBibliografía española. **\$p**Monografías. **\$p**Índices acumulativos
T245 00 \$aAl día. **\$n**Serie 2 , **\$p**Congresos, conferencias...

\$n eta **\$p** azpieroak errepikatu egiten dira soilik **\$a**, **\$b**, **\$n** edo **\$p** azpiero baten ondotik agertzen direnean. **\$c** azpieroan idatzitako izenburuan zati edota atal baten izena edota zenbakia jasotzen bada, elementu horiek ez dira aparteko azpieroetan kodetzen.

Adibidea:

T245 00 \$aUdal-adierazleak. **\$p**Serie estatistikoak [**\$h**Baliabide elektronikoa] **\$b**=
 Indicadores socioeconómicos. **\$p**Series estadísticas

T245 00 \$aAnnual report of the Minister of Supply and Service Canada under the
 Coporations and Labour Unions Returns Act. **\$n**Part II, **\$p**Labour unions =**\$b**Rapport
 annuel du ministre des approvisionnements et services Canada presente sous l’empire
 et des syndicats ouvriers. **\$n**Parte II, **\$p**Syndicats ouvriers

T245 10 \$aInternationale Strassenkarte. **\$p**Europe 1:2.5 Mio. :**\$b**mit Registrer =
 International road map. **\$p**Europe 1:2.5 mio : with index / **\$c**RV Reise- und
 Verkehrsverlag

Argitalpen seriatuetan maiz gertatu ohi da izenburu nagusia izenburu baterakoak eta mendeko izenburuak osatuta egotea.

Katalogazio-arauen arabera, izenburu nagusia baterako izenburuak eta mendeko beste izenburu batek osatzen dutenean, informazio osagarriari buruzko azpiizenburu edo aipu bakoitza dagokion atalaren (baterako izenburua, mendeko izenburua edo biak uztartzen dituen) atzetik ipini beharko da. Modu horretan, erlazionatutako atal edo lan bakoitza (gehigarriak, eguneratzeak, jarraipenak, osagarriak, aurkibideak, eta abar) aparte erregistratuko da. **“Erlazionatutako lan”** modura ulertzen dugu: *beste lan batzuekin erlazionatutako edukia duen argitalpena, nahiz eta aparte edo modu independentean argitaratu.*

Mendeko izenburua 246 atalean idatziko da, adibidean agertzen den moduan:

Adibideak:

T245 00 \$aDocumentos de trabajo economia aplicada. **\$p**Serie economía matemática

T246 30 \$aSerie economía matemática

T245 00 \$aEl Público. **\$p**Cuaderno

T246 30 \$aCuaderno

T245 00 \$aCarta tributaria. **\$p**Suplemento autonómico y fiscal

T246 30 \$aSuplemento autonómico y fiscal

T245 00 \$aBitopus fiscal CD. **\$p**Bizkaia

T246 30 \$aBizkaia

T246 IZENBURUAREN ALDAERA (E)

Dokumentuaren ataletan edo izenburu nagusiaren berezko atal modura agertzen diren izenburuaren aldaerak, edo izenburuaren forma alternatibo modura agertzen direnak forma hura **T245** eremuko izenburuarekin alderatuz oso ezberdina denean eta, gainera, berau hobeto identifikatzea ahalbidetzen dutenean baina bertan ezinbestean azaldu behar ez direlarik.

Izenburu-aldaera horiek **T246** eremuan jartzen dira soilik **T245** eremuan aipatutako izenburuarekin alderatuta nabarmen desberdinak badira.

Ohar gisa bistaratzen/inprimatzen direnean, izenburu-aldaeren aurretik sarrerako termino edo esaldi bat azaldu ohi da, bigarren adierazlearen balioarekiko lotura bidez bistaratzen dena. Erregistro bibliografikoan dagokien hizkuntzan bistaratzen/inprimatzen dira, **T040** eremuaren **\$b** azpieremuan zehaztutako katalogazio-hizkuntzan hain zuzen.

Adierazleak

Lehena

1 Oharra, sarrera gehigarria dago (Lehenetsita). Adierazle hau erabiliko dugu baldin eta, edozein arrazoirengatik, informazioa erregistro bibliografikoan bistaratzea edo inprimaturik agertzea nahi badugu.

3 Ez dago oharrik, sarrera gehigarria dago. Adierazle hau erabiliko dugu baldin eta, edozein arrazoirengatik, ez badugu nahi informazioa sarrera bibliografikoan bistaratzea edo inprimaturik agertzea, adibidez, beste eremuren batean jasota dagoelako.

Bigarrena

ADIERAZLE HAUEK BAINO EZ DITUGU ERABILIKO:

Ez da zehazten. Izenburu-motari buruzko informaziorik ez dela ematen adierazten du.

- **(\$a)** izenburua zenbakiz hasten denean edo **@** zeinua daukanean
- Izenburuak **(\$a)** akatsen bat daukanean
- Izenburuan **(+, x, &)** zeinuak ageri direnean
- Hitzez hitz emandako lanen gaztelaniazko eta euskarazko izenburuetarako

0 Izenburu-zatia. Kasu hauetan:

- Argitalpenak bere bizitzan zehar izan dituen izenburuak aipatzeko (Aldaketa txikiak izenburu nagusian)
- Izenburu "laburtuak" daudenean
- **T245** eremuaren (**\$b**) azpierzemua izenburu nagusitzat hartzen ez diren izenburuaren inizialez edo haren forma osoz osatzen denean.
- Izenburu alternatiboa (edo juntagailuaz bereziak) (**\$a**)
- Zatien edota atalen izenburuak (**\$p**)

1 Pareko izenburua. Izenburua beste hizkuntza batean. Lana eman den hizkuntza bakoitzeko T246 bat erabiliko da. (Lehenetsita). Dokumentu kontrajarrien kasuan ere erabiliko da.

3 Beste izenburu bat. Dokumentuan agertzen den baina bigarren adierazleko beste balioek baldintzatuta ez dagoen beste izenburu bat; esate baterako, atariko beste izenburu bat. Batez ere honako kasu hauetan erabiliko dugu:

- Izenburu osoetarako
- Alderantzizko azaletatik hartutako izenburuetarako
- **T245** eremuan kodetu ez diren pareko izenburuetarako
- Argitaldarien markako izenbururako
- Atari-aurreko edo sasiatariko izenbururako
- Koadernaketako izenbururako
- Azken oharreko izenbururako
- Atarian agertzen den beste izenburu baterako.

4 Azaleko izenburua. Azala informazio-iturri nagusia **ez denean**. Ez da nahasi behar "Izenburua azaletik hartua" oharrarekin; ohar hori azala informazio-iturri nagusiaren ordezt hartzen denean erabiltzen baita.

5 Atariko izenburu gehigarria. Beste hizkuntza batean emandako izenburua, iturri nagusi modura erabilitako azalaren aurreko edo osteko azalean agertzen dena. Elebidunak ez diren alderantzizko dokumentuetarako ere erabiliko da.

6 Orriburuko izenburua. Testuaren lehen orriaren hasieran agertzen da (kazetetan eta azalik edo ataririk gabeko bestelako argitalpen seriatuetan ageri ohi da).

7 Orri-ertzeko izenburua. Argitalpenaren orrialde bakoitzaren goiko edo beheko ertzean inprimatutako izenburua da.

8 Bizkarreko izenburua. Editorearen izenburua, ez koadernatzailearena.

Azpieremuko kodeak

- \$a** *Izenburu nagusia/Izenburu laburtua (EE)*
- \$b** *Izenburuaren gainerakoak (EE)*
- \$f** *Data edo izendapen sekuentziala (NR)*
- \$n** *Lanaren zatiaren edo atalaren zenbakia (E)*
- \$p** *Lanaren zatiaren edo atalaren izena (E)*

Lotutako bistaratzea

Etiketa honek aurrez zehaztua du bere lotutako bistaratzea, hots, ez da beharrezkoa hitzez hitz idaztea; izan ere, programak automatikoki sortzen du dagokion katalogazio-hizkuntza, betiere **T040** eremuko **\$b** azpieremua behar bezala betetzen bada.

2. esparrua	Gaztelania	Euskara
2	Título distintivo	Izenburu bereizgarria:
3	Otro título:	Beste izenburu bat:
4	Tít. de la cub.:	Azaleko izenb.:
5	Tít. de la port. adicional:	Atari gehigarriko izenb.:
6	Tít. de la cabecera:	Orriburuko izenb.:
7	“Titulillo”, tít. de margen:	Orri-ertzeko izenb.:
8	Tít. del lomo:	Bizkarreko izenb.:

Aplikazio-irizpideak

- Hauek adierazteko erabiliko dugu:
- Pareko izenburuak (azpiizenburuz edo gabe)
 - Izenburu alternatiboak
 - Kontrajarritako izenburuak
 - 3 Izenburu-aldaera.
 - Besteak beste, bizkarreko edota azaleko izenburuak.
 - Zenbaki edo zeinuekin hasten diren izenburuak (+, x, @, eta abar)
- Eremu hau ez da erabiliko pareko azpiizenburuak dituen izenburu bakarria denean (adib., Ankulegi : gizarte antropologia aldizkaria = revista de antropología social), edo azpiizenburua besterik ez denean aldatzen, halakoetan aldaketok adierazteko **T594** oharra erabiliko baita.
- Hasierako artikulua (adibidez, El, La, eta abar.) normalean ez dira eremu honetan jasotzen, baldin eta hurrenkera alfabetikoa artikulua araberakoa izatea nahi ez

bada; izan ere, **T246** eremuko adierazleek ez dute aukerarik ematen sistemak artikuluok automatikoki ken ditzan.

T245 eremuan (Izenburuaren aipua) \$a, \$b, \$h, \$n eta Sp azpieren inguruko xehetasuneko deskribapenak ematen dira, adibideekin eta aplikazio-irizpideekin. Jarraian, gainerako azpierenak deskribatzen dira:

\$f – Data edo izendapen sekuentziala (NR)

Izenburu-aldiera erregistroarekin lotzeko bolumenaren eta faszikuluaren datak edo zenbakiak sartzen dira hemen. Azpieren hori ez da erabiltzen 2. adierazlearen balioa 0 edo 1 denean.

Adibidea:
T246 13 \$a Resumen del informe anual al Parlamento Vasco \$f 2007,2011

ADIERAZLEAK ZUZEN ERABILTZEKO TAULA

T246 eremu bat baino gehiago dagoenean, bigarren adierazleak ezartzen du aipamenaren hurrenkera. Bigarren adierazlea berdina denean, lehen adierazleak ezarriko du hurrenkera.

1. ESP ARR UA	2. ESPA RRUA	KASUAK	ADIBIDEAK
3	#	(\$a) izenburua zenbakiz hasten denean edo @ zeinua daukanean	<i>T245 0 0 \$a21 agenda</i> <i>T246 3 # \$aHogei ta bat agenda</i> <i>T245 0 0 \$aSyn@psis</i> <i>T246 3 # \$aSynopsis</i>
		Izenburuak (\$a) akatsen bat daukanean	<i>T245 0 0 \$aEuro[r]región en cifras</i> <i>T246 3 # \$aEuroregión en cifras</i>
		"Aldaera" ortografikoak, adibidez zeinuak (+, x, &) (gehi, bider, eta), ageri direnean	<i>T245 0 0 \$aMicasa + práctica</i> <i>T246 3 # \$aMicasa más práctica</i> <i>T245 0 0 \$a20 x 40</i> <i>T246 3 # \$a20 bider 40</i> <i>T245 0 0 \$aConstrucción, productos & novedades</i> <i>T246 3 # \$aConstrucción, productos y novedades</i>
1	0	Argitalpenak bere bizitzan zehar izandako izenburuak aipatzeko. (Aldaketa txikiak izenburu nagusian)	<i>T245 0 1 \$aEusko Legebiltzarrari txostena</i> <i>T246 1 0 \$aEusko Legebiltzarrarentzako txostena</i>
		Izenburu " laburtuak " daudenean	<i>T245 0 0 \$aDroguería y perfumería</i> <i>T246 1 0 \$aD y P</i>
3	0	Zatien edo atalen izenburuak (\$p)	<i>T245 0 0 \$aCuadernos de sección .SpCiencias naturales / \$cEusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos</i> <i>T246 3 0 \$aCiencias naturales</i>
		Izenburu alternatiboak (\$a) (edo juntagailuz bereziak)	<i>T245 1 0 \$aMercurio literario o Memorias sobre todo género de ciencias y artes ...</i> <i>T246 3 0 \$aMemorias sobre todo género de ciencias y artes ...</i>
		T245 eremuaren \$b azpieremua izenburu nagusitzat hartzen ez diren inizialez osatuta dagoenean	<i>T245 0 0 \$aLetras de Deusto : \$bLD</i> <i>T246 3 0 \$aLD</i>
		Topografia erabiliz nolabait (hizki larriak, hizki lodia, tamaina ezberdinak, eta abar) nabarmendutako izenburuaren atala	<i>T245 0 0 \$aDescubrir el arte</i> <i>T246 3 0 \$aArte (Arte oso modu nabarian agertzen da topografikoki)</i>
1	1	Pareko izenburuen kasuan	<i>T245 0 0 \$aKultura eta politika = \$bCultura y política = Culture et politique</i> <i>T246 1 1 \$aCultura y política</i> <i>T246 1 1 \$aCulture et politique</i>

1	3	Dokumentuan azaltzen diren izenburu garatuetarako edo beste izenburu batzuetarako	T245 0 0 \$a Boletín DUP T246 1 3 \$a Boletín Disponibilidad Universal de Publicaciones
		Alderantzizko azaletako izenburuetarako	
		T245 eremuan kodetu ez diren pareko izenburuetarako	
		Argitaldaria ren markako izenbururako	
		Atari-aurreko edo sasiatariko izenbururako	
		Koadernaketako izenbururako	
		Azken oharreko izenbururako	
		T245 eremuan kodetu ez diren azaleko beste izenburu batzuetarako	
		Dokumentuan agertu arren bigarren adierazleko beste balioekin deskribatu ezin den edozein izenburu	
1	4	Azaleko izenburua jasotzeko	
1	5	Atari gehigarriko izenburua jasotzeko	T245 10 \$a Kmon city T246 15 \$a Kmon country T594 ## \$a Badu, gainera, bere az. eta or. propioekin, aldizkari honen testua: Kmon country
1	6	Orriburuko izenbururako	
1	7	Orri-ertzeko izenburua jasotzeko	
1	8	Bizkarreko izenbururako	

T250 EDIZIOAREN AIPUA (EE)

Lan baten edizioari lotutako informazioa jasotzen da.

Adierazleak

Lehena # *Zehaztugabea*

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpieremuko kodeak

\$a *Edizioaren aipua (EE)*

\$b *Edizioaren aipuaren gainerakoak (EE)*. Azpiero honetan erantzukizun-aipu bat ipiniko da, eta pareko edizioaren aipu bat izan dezake.

\$a – Edizioaren aipua

Edizioaren aipua, oro har zenbakiz nahiz karaktere alfabetikoz bai eta horiekin batera ageri diren hitzez edota laburdurez ere osatzen dena. Edizioaren aipua hizkuntza batean baino gehiagotan dagoenean, lehena bakarrik jasotzen da **\$a** azpieroan.

Baliabide elektronikoetan “bertsioa”, “maila”, “argitalpena” edo “eguneratua” terminoak ager daitezke, edizioaren aipu bat adieraztekoak; haatik, zenbaitetan aldaketa handi edo txikiak adierazteko erabiltzen dira eta, horrenbestez, litekeena da edizio berri bat dela nabarmentzeko adierazpen bat ez izatea.

\$b – Edizioaren aipuaren gainerakoak

Normalean, erantzukizun-aipu pertsonal edo korporatibo bat izaten da, edota pareko edizioaren aipu bat.

\$b azpieroan lehen zeinuaren (=) edo barraren (/) osteko datu guztiak sartzen dira. Behin **\$b** azpiero bat gaineratu denean, ezin izango da beste azpieroerik kodetu T250 eremuan.

Honako zehaztapen hauek hartuko dira kontuan:

- **Edizioaren aipua dokumentuan agertzen den moduan adieraziko da beti eta argitalpen-hizkuntzan**, ahal denean laburdurak erabiliz. Zenbakien transkripzioan zenbaki arabiar arruntak erabiliko dira.
- Laburduran ez da punturik jarriko (ed., hand. ber., eta abar) eremuaren azken elementua denean, baldin eta kortxete artean agertzen ez bada; izan ere, bestela esparruaren amaierako puntua biderkatu egingo genuke, hori sistemak ematen baitu automatikoki (Ez dugu *ISBD kontsolidatuko* gomendioa aintzatetsiko).
- Edizioaren aipu bat hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan agertzen denean, hizkuntza guztietan jasoko da. Lehenik eta behin, izenburuaren hizkuntza

edota idazkera berean dagoena hartuko da. Irizpide hori aplikatu ezin bada, lehendabizi agertzen dena transkribatuko da.

- Pareko edizioaren aipuak agerraraziko dira informazio-iturri nagusian edizioaren aipu bat hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan agertzen denean.

Adibidea:

T250 ## \$a Argit. ofiziala = \$b Ed. oficial

- **\$b** azpierzemurako aurrez idatzitako puntuazioa katalogatzaileak jarri beharko du.
- Ondorengo faszikulu edo ataletan edizioaren aipua gaineratu, desagertu edo aldatzen bada, T595 eremuan ohartarazi beharko da aldaketa hori, baldin eta gaineratze, ezabatze edo aldaketa hori ez bada deskribapen berria eskatzen duen aldaketa handiago baten ondorioa.

Ondoren zenbait edizio mota zerrendatzen dira:

- Izenak eta/edo zenbakiak dituen aipu bat, argitalpen seriatuen berrargitalpen bat edo berrikuspen orokor bat adierazten duten aipuak.

Adibideak:

T250 ## \$a Ed. rev

T250 ## \$a 2ª ed

T250 ## \$a Joint ed

- Toki edo eremu geografikoei dagozkien edizioaren aipuak.

Adibidea:

T250 ## \$a Ed. para Álava

T250 ## \$a Ed. Euskadi y Navarra
--

T250 ## \$a Ed. internacional

T250 ## \$a Ed. española

- Edizioaren hizkuntzari buruzko aipuak.

Adibidea:

T250 ## \$a Euskarazko argit

T250 ## \$a Ed. en español

T250 ## \$a Ed. en inglés

- Interes espezifikoko edizioaren aipuak.

Adibideak:

T250 ## \$a Ed. especial para clientes Atlas

T250 ## \$aEnpresa bazkideentzako ed. eksklusiboa
T250 ## \$aEd. panadería y pastelería
T250 ## \$aEd. aula
T250 ## \$aEd. general
T250 ## \$a[Ed. extensa]
T250 ## \$aArgit. laburtua = \$bEd. reducida

- Argitalpen zaharren edo agortuen edizio faksimileen aipuak.

Adibideak:

T250 ## \$aEd. facs
T250 ## \$a[Ed. facs.]

- Aldizkakotasunari buruzko edizioaren aipuak

Adibidea:

T250 ## \$aEd. mensual

- Argitalpen seriatuan tarteki bat edo gehigarri bat txertatu dela adierazten duten aipuak.

Adibidea:

T250 ## \$a[Con suplementos] en cuatro idiomas

- Itxura fisikoari edo formatu bereziei buruzko aipuak.

Adibidea:

T250 ## \$aEd. en braille

- Erantzukizun-aipu pertsonal edo korporatiboa.

Adibidea:

T250 ## \$aEd. facs. de la revista publicada en los años 1910 a 1914 /\$b introducción histórica, Enrique Moral Sandoval ; índices generales, Aurelio Martín Nájera

Hona hemen **edizioaren aipu gisa transkribatzen ez diren aipu mota batzuk:**

- *Liburukiaren zenbakiari, izendapenari edota hartzen duen denboraldiari buruzko edizioaren aipu sekuentzialak* (adibidez, 1st ed., 1ª ed., 1916 ed.). Aipu horiek **T362** eremuan jasotzen dira.

Adibidea:

T245 10 \$aPlano industrial de Álava
T362 0# \$a1ª (19/992000)

- *Material mota orokorraren edo espezifikokoaren aipuak, atarian azaltzen ez direnean.* Material mota izenburuaren eta erantzukizun-aipuaren eremuan (**T245**) adierazten da materialaren izendapen orokor gisa, edota deskribapen fisikoaren eremuan (**T300**) materialaren izendapen espezifikoko gisa.

Adibidea:

T245 10 \$aBoletín oficial del Estado [**\$**Recurso electrónico]

T250 ## \$aEd. en DVD

Edizioaren aipua informazio-iturri nagusian agertzen da.

- *Berrikuspen erregularren edo aldizkako eguneratzeen aipuak (adibidez, argitalpen berrikusia, sei hilabetez behin argitaratua).* Hobe da T515 batean edizioaren aiputzat ez, baizik maiztasunari buruzko informaziotzat hartzea, eta ohar batean adieraztea.

T260 ARGITALPENA, BANAKETA, ETAB. (EE)

Lan baten argitalpenari, inprimatzeari, banaketari, agerpenari edo ekoizpenari buruzko informazioa jasotzen da.

Argitaratzailea eta banatzailea bereizi egin behar dira, argitalpenean bertan hala azaltzen direnean. Banatzailearen funtzioa oso argi ez dagoenean, nahi izanez gero, hori argitzeko hitz edo esaldi bat jar daiteke kortxete artean.

Adierazleak

Lehena # Ezin da aplikatu

Bigarrena # Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

- \$a Argitalpen-lekua, banaketa-lekua, etab. (E)
- \$b Editorearen izena, banatzaile-izena, etab. (E)
- \$c Argitalpen-data, banaketa-data, etab. (E)
- \$e Fabrikazio-lekua (E)
- \$f Fabrikatzailea (E)
- \$g Fabrikazio-data (E)

ISBD kontsolidatuan ezartzen den moduan, eremu bereko elementu bakoitza bere kortxete pare bakoitzaren barruan doa [S.l.] : [s.n.].

\$e fabrikazio-lekua eta \$f fabrikatzaile-izena azpieremuetako adierazleak argitalpen-lekua eta editorearen izena ezagutzen ez direnean soilik idatziko dira.

Datak osorik transkribatuko dira, hau da, **4 digituekin**, 1980-1985 eta ez 1980-85 Ezagutzen ez badugu, gutxi gorabeherako data bat erabiliko dugu kortxete artean.

Laburdurak puntuaren ostean zuriunerik gabe emango dira, hau da, [s.n.] eta ez [s. n.]

\$a - Argitalpen-lekua, banaketa-lekua, etab.

- Bi argitalpen-leku edo gehiago dituzten lanen kasuan, lehenik eta behin tipografikoki nabarmenduen agertzen dena transkribatuko da edo, halakorik ez badago, lehendabizi agertzen dena, ondoren [etab.] ipinita. Haatik, bigarren argitalpen-lekua edo hurrengoena Euskal Autonomia Erkidegoa bada, beti adieraziko dira. Leku bakoitza \$a azpieremu batean erregistratzen da.

Adibidea:

T260 ## \$ aVitoria-Gasteiz [etc.]

- Argitaralekua zein den jakiterik ez dagoenean, “S.I.” laburdura jarriko da kortxete artean.
- Informazio-iturrian elementu horrek ortografiari eta gramatikari dagokienez duen aurkezpena errespetatuz transkribatu beharko da, baina haren alboan dauden eta argitalpen-lekuaren izen bereziari ez dagozkion terminoak ezabatuz.

Adibidea:

T260 ## \$aVitoria-Gasteiz

- Toponimo errepikatuak edo ondo ezagutzen ez direnak daudenean, dagokion eremu geografikoa idatziko da gaztelaniaz, parentesi artean, aurrez idatzitako iturrian agertzen bada, edo kortxete artean, hartan agertzen ez bada. (Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoen kasuan: gaztelaniaren kasuan izen ofiziala erabiliko da, halakorik badago; eta euskararen kasuan, Euskaltzaindiak onartutako forma normalizatua, zeina “*Euskal onomastikaren datu-basean*” kontsultatu baitaiteke, helbide honetan: <http://www.euskaltzaindia.eus/eoda>)

- Argitalpen-lekuaren izena hainbat hizkuntzatan agertzen denean pareko aipuak egingo dira.

Adibidea:

T260 ## \$aDonostia = San Sebastián (*\$a ez da errepikatzen*)

- Dokumentuan argitalpen-lekua adierazten ez denean, baina zein den ziur dakigunean, kortxete artean jarriko da. Transkripzio forma katalogazio-hizkuntzak adierazten duena izango da.

Adibidea:

Katalogazio-hizkuntza: euskara

T260 ## \$a[Gasteiz]

Katalogazio-hizkuntza: gaztelania

T260 ## \$a[Vitoria]

- Argitalpen seriatuen kasuan, hurrengo faszikulu edo ataletan argitalpenaren, ekoizpenaren edota banaketaren lekua aldatzen bada, azken lekua ohar batez adierazi ahal izango da, soilik baliabidea identifikatzeko beharrezkoa bada.
- Argitalpen integragarrien kasuan, hurrengo iterazioetan argitalpenaren, ekoizpenaren edota banaketaren lekua aldatzen bada, deskribapena aldatu egin daiteke eta aurreko lekua ohar batean jasoko da, soilik baliabidea identifikatzeko beharrezkoa bada.

§b - Argitaratzailearen izena, banatzailearen izena, etab.

- Editorea argialetxe komertzial bat denean ahalik eta modu zehatzenean transkribatuko da, identifikaziorako beharrezkoak ez diren terminoak kenduz (argialetxea, edizioak, argitalpen-taldea, eta abar). Haatik, gramatika aldetiko loturak badaude, aurrez aipatutako terminoekin batera adjektiboak badaude edo anbiguotasuna gertatzen bada, ezingo da hitz bakar bat ere kendu.

Adibidea:

T260 ## \$aBarcelona : **\$b**Grijalbo
[Iturrian: Grupo Editorial Grijalbo, Barcelona]

- Editorearen izena ezin da soilik hizki edo zenbaki batekin islatu, horrek identifikazioa zailduko bailuke. Hori dela eta, kasu horietan ez da termino bakar bat ere kentzen. Halere, editorearen izenak bi hizki dituenean eta horiek aski badira identifikaziorako, gainerako hitzak kendu egin daitezke.

Adibidea:

T260 ## \$aBarcelona : **\$b**Ediciones B
T260 ## \$aMadrid : **\$b**SM

- Argitaratzailearen izen osoa jadanik izenburuaren eta erantzukizun-aipuaren eremuan jasoa badago, eremu honetan laburtuta edo siglen bidez eman daiteke, horretarako kortxetetik erabili beharrik gabe.

Adibidea:

T245 00 \$aBoletín de la ANABAD / **\$c**Asociación Nacional de Archiveros, Bibliotecarios, Arqueólogos y Documentalistas
T260 ## \$aMadrid : **\$b**ANABAD

- Erakunde batek haren mendeko beste baten bidez argitaratzen duenean, mendeko erakundea argitaratzaile modura adieraziko da, izenak behar bezala identifikatzen badu. Erakunde nagusia beharrezkoa denean mendeko erakundearen identifikaziorako, tarteko erakundeak ez dira adieraziko, nahiz eta iturrietan agertu. Transkripzioaren hurrenkerari dagokionez, datuak hartzeko erabilitako iturrian agertzen dena hartu behar da kontuan, eta iturrian gramatikalki elkartuta agertzen badira, kokapen bibliografikoan ere horrela adieraziko dira.

Adibidea:

T260 ## \$aSalamanca : **\$b**Departamento de Filología Clásica e Indoeuropeo, Universidad de Salamanca
(Atarian: Departamento de Filología Clásica e Indoeuropeo, Facultad de Filología, Universidad de Salamanca)

- Argitaratzailearen izena hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan azaltzen denean, izenburu nagusiaren hizkuntzarekin bat datorrena jasoko da. Halakorik egin ezin bada, tipografikoki nabarmentzen dena jasoko da, eta halakorik ere ez badago, lehendabizi ageri dena. Pareko aipamenak egin daitezke, euskarazko eta gaztelaniazko editoreen kasuan izan ezik, horietan bi izenak islatuko baitira.

Adibidea:

T260 ## \$aVitoria-Gasteiz : **\$b**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (*\$b ez da errepikatzen*)

T260 ## \$aDonostia : **\$b**Eusko Ikaskuntza = San Sebastián : Sociedad de Estudios Vascos (*\$a eta \$b ez dira errepikatzen*)

- Argitalpen seriatuen kasuan, hurrengo faszikulu edo ataletan editorearen, ekoizlearen edota banatzailearen izenean aldaketak egiten badira, aldaketa horiek **T596** eremuan islatuko dira, ohar bidez.

Adibidea:

T260 ## \$aDonostia-San Sebastián : **\$b**Financial & Tax

T596 ## \$aEditor < oct./nov. 2007>: CISS

- Baliabide integragarrien kasuan, hurrengo iterazioetan editorearen, ekoizlearen edota banatzailearen izenean aldaketak egiten badira, deskribapena aldatu egingo dugu azken iterazioa isla dadin, eta **T596** eremuan aurreko izenak adieraziko dira baliabidea identifikatzeko beharrezkotzat jotzen denean.

- Erakundearen izenean argitalpen-lekua gehitzen bada, datu hori osorik agertu behar da erregistro bibliografikoan, informazio hori berreskuratzen saiatzean galerarik gerta ez dadin.

Adibidea:

T260 ## \$aBilbao : **\$b**Ayuntamiento de Bilbao, Secretaría General

- Argitalpen faksimileen kasuan, **T260** eremuan adierazitako datuak edizio modernoari dagozkionak dira. Jatorrizko lanari dagozkion datuak **T534** oharrean jasotzen dira.

Adibidea:

T260 ## \$aDonostia : **\$b**Eusko Ikaskuntza, **\$c**1996

T534 ## \$pReprod. de la publicación mensual : **\$c**Pamplona : Imprenta de Joaquín Lorda, 1878-1883

- Argitaratzailea zein den ez dakigunean, **“s.n.”** laburdura jarriko da kortxete artean.

Adibidea:

T260 ## \$aVitoria-Gasteiz : **\$b**[s.n.]

\$c - Argitalpenaren data, banaketaren data, etab.

Eremu hau kasu guztietan bete behar da, geroago argitalpenari serieen moduluan alta ematen zaionerako.

- Amaituta dagoen argitalpen seriatu bat deskribatzeko orduan, lehen eta azken faszikuluak edo zatiak argitaratu ziren urteak adieraziko dira, marratxo batez bereizita eta tarterik gabe. Amaituta dagoen argitalpen seriatu bat deskribatzeko, lehen faszikulua edo zatia izan ezean, azken faszikulua edo zatia argitaratutako data adieraziko da, baldin eta zein den badakigu, aurretik marratxo bat duela. Argitalpen-datek **T008/07-10** eta **T008/11-14** eremuetan adierazitako berberak izan behar dute, eta **T362** eremuko datekin bat etor daitezke edo ez.

Adibidea:

T260 ## \$aMadrid : **\$b**CSIC, **\$c**1965-1998

T260 ## \$c-1978

- Baliabidearen lehen eta azken ale, iterazio, liburuki, atal edo faszikulua urte berean argitaraturik daudenean, data hori behin bakarrik adierazten da.

Adibidea:

T260 ## \$aVitoria-Gasteiz : **\$b**EUSTAT, **\$c**1962

- Argitalpen seriatua oraindik argitaratzen ari bada, lehen faszikulua edo zatia argitaratu zen data jarriko da eta, ondoren, marratxo, zuriunerik gehitu gabe.

Adibidea:

T260 ## \$aBadajoz : **\$b**Diputación Provincial de Badajoz, **\$c**1997-

- Lehen edo azken faszikuluan edo atalean argitalpen-datarik ageri ez denean, horren orde inprimatze-urtea, Lege-gordailuaren urtea edo copyright urtea erabiliko da (hurrenkera horretan), aurretik **inp., L.G.** (hizki larritan eta zuriunerik gabe) eta **cop.** jarrita. Lege-gordailuaren (**L.G.**) siglak (gaztelaniaz **D.L.**) hizki larritan transkribatuko dira, eta puntuaren atzean zuriunerik utzi gabe. Bata hala bestea erabiliko da, dokumentua katalogatzeko hizkuntzaren arabera.

Adibidea:

T260 ## \$aMadrid : **\$b**Asociación Madrileña de Antropología, **\$c**D.L. 1991-

- Deskribapena egitean lehena edota azkena ez diren faszikuluak edo atalak erabiltzen badira, lehen edota azken faszikuluaren edo atalaren argitalpen-data(k) kortexete

artean jarriko dira baldin eta bibliografia nazional batean edo beste iturri batean aurkitu badira edo erraz jakin badaitezke.

Adibidea:

T260 ## ,**\$c**[1990]-1995 (*Lehen faszikulu edo atalaren data kanpoko iturri batetik hartuta. Amaitutako argitalpen seriatua*)

T260 ## ,**\$c**1984-[1992] (*Azken faszikulu edo atalaren data kanpoko iturri batetik hartuta. Amaitutako argitalpen seriatua*)

T260 ## ,**\$c**[1973-1996] (*Lehen eta azken faszikulu edo atalaren data kanpoko iturri batetik hartuta. Amaitutako argitalpen seriatua*)

T260 ## ,**\$c**[2001]- (*Lehen eta azken faszikulu edo atalaren data kanpoko iturri batetik hartuta. Argitaratzen ari den argitalpen seriatua*)

- Ez argitalpenaren datarik, ez **copyright**-datarik, ez **inprimatze**-datarik eta ez **Legedordailu** datarik ez badago, gutxi gorabeherako data jarriko da kortxete artean.

Adibidea:

T260 ## ,**\$c**[1989?]-

T260 ## ,**\$c**[198]-

- Informazio-iturrian ageri den argitalpen-data oker dagoela jakinez gero, datorren bezala transkribatuko dugu, ondoren data zuzena kortxete artean gehituta.

Adibidea:

T260 ## ,**\$c**1905 [i.e. 1950]-1970

- Argitalpen-dataren akatsak T596 ohar batean adieraziko dira.
- Faksimileen kopien kasuan, argitalpen-eremuan (**T260**) kopia egindako lekua, argitaratzailea eta data adieraziko dira. Jatorrizko edizioaren argitaratze- edo inprimatze-datuak **T534** eremuan jasoko dira.

Adibidea:

T245 00 \$aEuskal-erria : **\$b**reprod. facs. de...

T250 ## \$aEd. facs

T260 ## \$aBilbo : **\$b** La Gran Enciclopedia Vasca, **\$c**1979

T300 DESKRIBAPEN FISIKOA (E)

Dokumentuaren deskribapen fisikoa jasotzen da, hau da, dokumentuaren tamaina, dimentsioak, bai eta, hala badagokio, dokumentuaren beste ezaugarri fisiko batzuk eta material gehigarriari buruzko informazioa ere.

Adierazleak

Lehena # *Zehaztugabea*

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpieremuko kodeak

§a *Tamaina (E)*

§b *Beste ezaugarri fisiko batzuk (EE)*

§c *Dimentsioak (E)*

§e *Material gehigarria (EE)*

Argitalpen inprimatuak

Paperean argitaratutako argitalpen seriatuen deskribapen fisikoa jasotzeko eremurako, katalogazio-arauen 12.5. arauan ezarritakoari jarraituko diogu.

§a – Tamaina

Azpieremu honetan dokumentuaren tamaina jartzen da, argitalpen seriatuen kasuan liburuki kopuruari dagokiona.

- Materialaren izendapen espezifiko modura, “*volumen*” hitza erabiliko dugu, “v.” laburduraz ematen dena, katalogazio-hizkuntza gaztelania bada; eta liburukiaren “libk.” laburdura, euskara bada.

Adibidea:

Argitaratzen ari den argitalpen seriatuaren adibidea:

T300 ## §av.

- Argitaratzen ari den argitalpen seriatuak edo amaitutako argitalpen seriatuak zenbat unitate bibliografiko dituen ez dakigunean, materialaren izendapen espezifikoaren besterik ez da adieraziko.
- Amaitutako argitalpenen kasuan, materialaren izendapen espezifikoaren aurretik unitate bibliografikoen kopurua adieraziko da zenbaki arabiarrez, zenbat izan dituen ziur jakinez gero.

Adibidea:

Amaitutako argitalpen seriatuaren adibidea:

T300 ## §a30 v.

- Argitaratzen ari den baliabide jarraitua orri solte **eguneragarri**z osatuta dagoenean, “**libk. (orri solteak)**” erabiliko da deskribapenean. Amaituta badago, “**X libk. (orri solteak)**” idatziko da.

Adibidea:

T300 ## \$a3 v. (hojas sueltas)

§b – Beste ezaugarri fisiko batzuk

Azpieremu honetan dokumentuen gainerako ezaugarri fisikoei buruzko informazioa jasotzen da, hala nola irudiak.

- Irudiak argitalpenaren funtsezko elementua direnean, aipatu gabe ez uztea gomendatzen da. Egokia iritziz gero, zer irudi mota dituen adieraziko da. Ez da zehaztuko irudiak koloretakoak diren ala ez.
- Nagusiki irudiz osatutako argitalpenen kasuan, hauek erabiliko dira: “**nagusiki ir.**” edo “**guztiak ir.**” edo “**batez ere ir.**”

Adibideak:

T300 ## \$av. : \$bil.

T300 ## \$a20 v. : \$bgráf.

T300 ## \$a8 v. : \$bprincipalmente il.

§c - Dimentsioak

Azpieremu honetan dokumentuaren dimentsioak jasotzen dira, argitalpenaren altueraren zentimetroak adierazita:

- **cm** az da laburdura bat, unitate-ikur bat baizik. Ikurrak amaieran punturik gabe idazten dira. DRAE hiztegiaren arabera: “*Ikurra: Izaera zientifiko edo teknikoa duen laburtzapen mota, alfabetatik ez daitezkeen zeinuekin edo hizkiekin eratuak, eta laburduratik bereizten direnak punturik ez izateagatik*”.
- Zentimetroaren frakzioak zentimetro oso modura zenbatzen dira (19 cm *nahiz eta argitalpenak 18,4 cm neurtu*)
- Zabalagoak diren edo altueraren zabalera berekoak diren aleen kasuan, lehendabizi altuera eta ondoren zabalera adieraziko da.

Adibidea:

T300 ## \$a14 v. : \$bil.; \$c21 x 30 cm

- Argitalpenean zehar baliabide jarraitu baten dimentsioak aldatzen badira, deskribapenean oinarri modura hartu dugun faszikuluaren neurria hartuko dugu, eta **T597** eremuan ohar hau adieraziko dugu: “Formatuak aldatetak ditu” xehetasun gehiagorik gabe.

§e - Material gehigarria

Azpieremu honetan material gehigarriaren deskribapena jasotzen da. Halaber, lotutako deskribapen fisikoaren edozein aipu ere jaso daiteke, parentesi artean. Material gehigarri bat baino gehiago edukiz gero, azpieremu berean kodetzen dira denak.

- Material gehigarria adieraziko da soilik ohikotasunez argitalpen seriatuarekin batera agertzen denean eta hari dagokion zenbaki espezifikoa adieraziko dugu soilik amaitutako argitalpen seriatuen kasuan. Material gehigarriari dagokion aipua deskribatutako baliabidean agertzen den moduan adieraziko da, materialaren izaera adierazteko hitz edo esaldi batekin, edo materialaren izendapen espezifikoko egoki baten bidez.

Adibidea:
<p>T300 ## \$alibk. : \$bargk.; \$c24 cm + \$eeskuko programa T300 ## \$av. : \$bil.; \$c30 cm + \$eguía + discos compactos (CD-ROM)</p> <p><i>Argitaratzen ari den argitalpen seriatua:</i> T300 ## \$av. ; \$c25 cm + \$emikrofitxak</p> <p><i>Amaitutako argitalpen seriatua:</i> T300 ## \$a26 v. T300 ## \$a26 v. ; \$c25 cm + \$e50 microfichas (11 x 15 cm)</p>

- Beste euskarri batean dauden lanak dituzten argitalpenen kasuan –esate baterako, Arartekoaren txosten inprimatu bat, CD bat duena–, atxikitako euskarria forma inprimatutik apartatuko dugu eta **T775** etiketa batean beste euskarriari dagokion informazioa adieraziko dugu lehendabizi; ondoren, bigarrenik, **T777** etiketa batean elkarrekin argitaratu direla adierazteko informazioa, eta, azkenik, lan bakoitzaren erregistroak estekatuko ditugu euskarri bakoitzean.
- Argitalpen seriatu batzuekin gaineratzen diren soinu-gehigarriak eta ikus-entzunezkoak modu independentean katalogatuko dira eta argitalpenaren erregistro nagusiarekin estekatuko dira. Argitalpen nagusian gehigarrirako esteka “**Honekin batera argitaratua**” **T777** eremu batean egingo da, bilaketa-prozedurari eta ohar horretan jasotzen diren esaldiei jarraituz (ikus **T777** etiketa).
- Argitalpen seriatua erregistratzeko orduan ez da **T774** eremua erabiliko material gehigarriaren izenburuetako bakoitza zehazteko, eraginkortasunagatik, oso ugari baitira.

Adibidea:
<p><i>Argitalpen seriatuaren erregistroan:</i> T245 00 \$aSpeak up T300 ## \$av. ; \$c 25 cm + \$ebideoak T777 08 \$nDocumentos anejos en formato «LK_»videograbación«LK=g.Id06. Y "0214-1418"»</p> <p><i>Material gehigarriaren erregistroan:</i> T245 00 \$aCisne negro [\$hVídeo] T773 0# \$t«LK_»Speak up (Bartzelona) . \$xISSN 0214-1418«LK="323371".TITN.»</p> <p>* Bi erregistroak estekatu egin behar dira “Lotu dokumentua” botoiaren bidez.</p>

- Argitalpen seriatuaren eta hari dagokion material gehigarriaren arteko lotura “*Dokumentuen arteko loturak ezarri*” prozedura erabiliz gauzatuko da (Ikus Prozedura Orokorrak).

■ Euskarri elektronikoa

Euskarri elektronikoan argitaratutako baliabide jarraituen kasuan, katalogazio-arauan ezarritako 11.5.3 arauari jarraituko diogu ezaugarri fisikoak betetzeko.

§a – Tamaina

Eremuko lehen elementu honek dokumentua osatzen duten gailu fisikoen kopuruari egiten dio erreferentzia. Zenbaki hori zifra arabiarrak erabiliz adieraziko da. Hau da gaztelaniaz eta euskaraz erabil daitezkeen material motaren zerrenda⁶: “*carrete*” edo “*txirrika*”, “*cartucho*” edo “*kartutxo*”, “*casete*” edo “*kasete*”, “*disco flexible*” edo “*disko malgu*” eta “*disco compacto*” edo “*disko trinko*”.

ISBD (CF) deskribapenean jasotako material gehienak zaharkituta daudela kontuan hartuz, berezko irizpide bat aplikatzea erabaki dugu, beste katalogo batzuen behaketa oinarritzat hartuta. Modu horretan, materialen zerrenda hau erabiliko dugu:

<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
Carrete	Txirrika
Cartucho	Kartutxo
Casete	Kasetea
Disco (CD-DA)	Diskoa (CD-DA)
Disco (DVD-vídeo)	Diskoa (DVD-bideoa)
Disco compacto (CD-ROM)	Disko trinkoa (CD-ROM)
Disco compacto (DVD-ROM)	Disko trinkoa (DVD-ROM)
Disco flexible	Disko malgua
Disquete	Disketea
Fichero	Fitxategia
Memoria USB	USB memoria

⁶ *Ikus* Liburutegien eta Liburuzainen Elkartearen Nazioarteko Federazioa. ISBD (CF): ordenagailuko artxiboetarako deskribapen bibliografiko nazioarteko normalizatua. Argit. Ber. Madril: ANABAD, 1994. C gehigarria.

Adibideak:

T300 ## \$a1 disco compacto (CD-ROM)

T300 ## \$a disquetes

T300 ## \$a3 USB memoria

T300 ## \$a8 disko konpaktu (CD-ROM)

T300 ## \$a1 fitxategi (5 MB), (240 or.)

\$b – Beste ezaugarri fisiko batzuk

Bi kolore edo gehiagoan bistara daitezkeen euskarri elektronikoko argitalpen seriatuen kasuan, ezaugarri hori col. edo kol. laburdurarekin adieraziko da. Artxiboa zuri-beltzean edo kolore bakarrean bistaratzen denean ez da ezer adieraziko.

Adibidea:

T300 ## \$a1 disco compacto (CD-ROM) : \$b col.

T300 ## \$a8 disko konpaktu (CD-ROM)

\$c - Dimentsioak

Dokumentu baten tamaina edo formatua zehazteko erabiliko da; oro har, cm-tan erabili ere. Eremu honetan jasotako informazioa argitalpen seriatuaren euskarri fisikoaren ezaugarriei egokituko zaie.

Adibideak:

T300 ## \$a3 USB memoriak : \$b kol. ; \$c 2 x 4 cm
--

T300 ## \$a discos compactos : \$b col. ; \$c 12 cm
--

\$e - Material gehigarria

Ordenagailuko artxiboarekin gaineratzen den materiala zehazteko erabiliko da, betiere material hori eskuliburua, instalaziorako argibidea edo beste edozein material nabarmen bada. Transkripziorako modua liburu-materialean adierazitako bera da.

T310 EGUNGO ALDIZKAKOTASUNA (E)

Dokumentu baten egungo aldizkakotasuna **T310** eremuko informazioa erlazionatuta dago **T008/18** (Aldizkakotasuna) eta **T008/19** (Erregularitasuna) eremuetako informazio kodetuarekin. Egungo aldizkakotasunaren datak jarriko dira soilik egungo aldizkakotasunaren hasierako data ez bada argitalpenaren hasierako data bera. Dokumentua argitaratzeari utzi bazaio, egungo aldizkakotasunaren data itxi egingo da, baina mantendu egingo da **T310** eremuan.

Adierazleak

Lehena # Zehaztugabea

Bigarrena # Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

\$a Egungo aldizkakotasuna (EE)

\$b Egungo aldizkakotasunaren hasiera-data (EE)

\$a – Egungo aldizkakotasuna

Azpieremu honetan egungo aldizkakotasunaren aipu osoa jasotzen da, datarik gabe.

Adibideak:

T008/18 Periodicidad: a (Anual)

T008/19 Regularidad: r (Regular)

T310 ## \$aAnual

T008/19 Regularidad: # (Irregular)

T310 ## \$aIrregular

- Maiztasuna izenburuari dagokion eremuan eta erantzukizun-aipuan aipatzen denean, eremu honetan errepikatu egingo da.

Adibidea:

T310 ## \$aTrama : \$brevista mensual del cómic

T321 ## \$aMensual

- Baliabide jarraitu baten maiztasuna zein den ez dakigunean, etiketa honetan zera idatziko dugu: “Periodicidad desconocida” / “Aldizkakotasun ezezaguna”, katalogazio-hizkuntzaren arabera. **T008/18** eta **T008/19** posizioetan “u” ezezaguna hautatuko dugu.

§b – Egungo aldizkakotasunaren hasiera-data

Egungo aldizkakotasunaren hasiera-data jasoko da, baldin eta argitalpenaren hasiera-datatz bestelakoa bada eta **T321** eremuan lehenagoko aldizkakotasun bat ageri bada. Azpiero honetan jarritako datak, ahal dela, zenbakiaren eremuaren arabera izango dira, eta ez argitalpen-eremuaren arabera. **T321** eremuan lehenengo maiztasuna adierazi behar da beti.

Adibideak:

T310 ## \$aMensual, **\$b**1987-
T321 ## \$aQuincenal, **\$b**1983-1986

T310 ## \$aDiaria, excepto lunes y domingo, **\$b**nov. 2008-

Adibideak:

T310 ## \$aDiaria, excepto lunes
T310 ## \$aDiaria, **\$b**12/09/1983-
T310 ## \$aDiaria, excepto domingo
T310 ## \$aEgunkaria, astelehenak izan ezik
T310 ## \$aEgunkaria, asteazkena eta larunbata izan ezik, **\$b**2014-
T310 ## \$aMensual (excepto jul. y ag.).

T310 ## \$aUrtean bi zk.

T310 ## \$aDiez n. al año

(Zenbakia *hizki* bidez adieraziko dugu **beti**)

T310 ## \$aHiruhilabetekaria

T310 ## \$aIrregularra

T310 ## \$aIrregular

T310 ## \$aBimestral

T310 ## \$aBimensual

T310 ## \$aPeriodicidad desconocida

T321 LEHENAGOKO ALDIZKAKOTASUNA (E)

Dokumentu baten edo haren eguneratzearen aurreko aldizkakotasuna, **T310** eremuan egungo aldizkakotasun bat agertzen denean.

T321 eremu bat baino gehiago badago, kronologikoki jarriko dira zaharretik berrienera.

Adierazleak

Lehena # *Zehaztugabea*

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpieremuko kodeak

\$a *Lehenagoko aldizkakotasuna (EE)*

\$b *Lehenagoko aldizkakotasunaren datak (EE)*

\$a – Lehenagoko aldizkakotasuna

Dokumentuak lehenago izandako aldizkakotasunaren aipu osoa jasotzen da, datarik gabe.

Eremu honetan “*Aldizkakotasun aldakorra*” esaera erabil daiteke, baldin eta badakigu hiru aldizkakotasun baino gehiago izan direla lehenago.

Adibidea:

T310 ## \$aMensual, **\$b**1984-

T321 ## \$aLa periodicidad cambia, **\$b**1966-1983

\$b – Lehenagoko aldizkakotasunaren datak

Azpieremu honetan lehenago aldizkakotasunaren hasierako eta amaierako datak jasotzen dira.

Adibidea:

T310 ## \$aMensual, **\$b**1985-

T321 ## \$aDiez n. al año, **\$b**1982-1984

Azpieremu honetan jarritako datak, ahal dela, zenbakiaren eremuaren arabera izango dira, eta ez argitalpen-eremuaren arabera. Hileak zehaztu behar badira, dagozkion laburdurak erabiliz zehaztuko dira, T362 eremuan egin bezala.

Adibideak:

T321 ## \$aMensual, **\$b**jun. 1978-dic. 1980

T321 ## \$aMensual, **\$b**1978-dic. 1980

T321 ## \$aQuincenal, **\$b**jun. 1, 1978-abe. 15, 1980

T362 ARGITALPEN-DATAK EDOTA IZENDAPEN SEKUENTZIALA (R)

Zenbakiaren eremuan, **T245** eremuko izenburu nagusiaren lehen edota azken faszikulu edo atalaren zenbakiak edota datak jasoko dira. Eredu honetan argitalpen baten hasierako eta amaierako data(k) edota atal bakoitzean erabilitako sekuentziaren aipuak jasotzen dira. Eredu honetan erabili beharreko datak argitalpen seriatuaren faszikulu bakoitza identifikatzen duten aipu kronologikoak dira.

Sekuentzia-aipuak, oro har, zenbakiak izan ohi dira, baina letrak ere izan daitezke.

Ahal den guztietan, eremu hau bete egin behar da, geroago argitalpenari serieen moduluan alta ematen zaionerako.

Deskribapena argitaratutako lehen faszikuluan edo atalean oinarrituta ez badago, **T590** eremuan adieraziko da deskribapenerako erabilitako faszikulua edo atala.

Adierazleak

Lehena	<p>0 Normalizatu. Data forma normalizatu batean dago testu-forman egon beharrean</p> <p>1 Normalizatugabea. Data normalizatu gabeko ohar modura ematen da</p>
Bigarrena	# Zehaztugabea

Azpieremuko kodeak

§a Argitalpen-data edota izendapen sekuentziala (EE)

§a – Argitalpen-data edota izendapen sekuentziala

Izendapen sekuentziala izan daiteke liburukiaren zenbakia, edizioaren zenbakia, faszikulua zenbakia, liburukien hainbat zenbaki edota argitaratzaileak erabilitako bestelako sekuentzia baten azalpenen bat. Data izan daiteke urtea, hilabetea edo eguna; hilabetea edo urtaroa eta urtea; edo soilik urtea, argitalpenaren aldizkakotasunaren eta argitaratzailearen erabileraren arabera. Sekuentziaren aipuak eta datak dokumentuan ageri diren bezala adieraziko dira. Zenbaki bidezko aipu bat eta izendapen kronologiko bat batera ageri direnean, azken hori parentesi artean jarriko da. Argitalpenaren amaieraren izendapena hasierakoaren ondoren adierazten da, marratxo bidez berezita.

Azpieremu hau betetzeko orduan, arau hauek hartuko dira kontuan:

- Zenbaki-datuak faszikuluan edo atalean ageri diren forman eta hurrenkeran transkribatuko dira, betiere zenbaki arabiarrek ez badira, halakoetan zenbaki arabiarrez emango baitira. Zenbaki-datuak faszikulua edo atalaren izendapenarekin, halakorik badago, edo haren baliokidearekin batera adieraziko

dira, izendapenok betiere laburdura normalizatuen bidez emanda. Ahal dela, beti **katalogazio-arauetan jasotako** laburdura normalizatuak erabiliko dira, eta ez hitzak.

- **Iturrian** zk., libk., zenbaki edo antzeko laburdura edo hitzik **ageri ez bada, ez ditugu asmatuko**. Transkribapena ahalik eta leialena izango da.
- Deskribapena egiteko tarteko faszikulu edo atal bat erabiltzen denean, kanpoko iturrietara joko dugu lehen edota azken faszikulu edo atalaren zenbakiari buruzko informazioa lortzeko; informazio hori kortxete artean jarriko dugu, **salbu eta bibliografia nazionaletatik ateratakoa bada**.
- Eremu honetako datek ez dute zertan bat etorri **T008/07-10** eremuan (Lehen data) edota **T008/11-14** (Bigarren data) eremuan jasotakoekin, ez eta argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremuan (**T260**) jasotakoekin ere.
- Zenbaki arabiarrek erabiliko dira, kardinalak (1, 2, 3...) nahiz ordinalak (1., 2., 3...) Argitalpenaren aurkezpenaren forma aipatu beharra dagoenean (zenbakia, tomoa, liburukia, eta abar), laburdurak erabiliko dira (zk.fn, t., libk., fasz., eta abar). Ahal dela, laburdura normalizatuak erabiliko dira gainerako hitzetan ere. zk. laburdura erabiliko dugu (HAEE erakundeak gomendatua), eta ez zenb. edo bestelako aldaeraren bat, eta aipu baten hasieran **Libk.** laburdura.
- Zenbakikuntza hizki bidez adierazten bada, hitzez hitz emango da (zero zenbakia agertzen bada, 0 ipiniko da).

Adibidea:

Argitalpenean: Zero zenbakia, 1991ko urria-azaroa
T362 0# \$aN. 0 (oct.-nov. 1991)-

- Zenbakiak urte naturalarekin bat ez datorren urtebeteko denboraldia hartzen duenean, edota deskribatu beharreko unitateak urtebete baino gehiagoko denboraldia hartzen duenean, data adierazteko, barra (/) erabiliko da.

Adibideak:

T362 0# \$a1980/81-
T362 0# \$a1980/1982-
T362 0# \$a2004-

- Zenbakien edota hilabeteen aipuan barra edo marratxoa erabiltzeko orduan, iturrian erabiliari jarraituko zaio.

Adibideak:

T362 0# \$aVol. 1, n. 1 (en./marzo 1954)-v. 7, n. 4 (oct./dic. 1960) ; n.s., v. 1, n. 1 (mayo 1962)-
T362 0# \$aUrtea 1, 1. alea (mai-eka. 2005)-
T362 0# \$a2005-04-22-
T362 0# \$aN. 1 (abr.-mayo 1999)-n. 4 (2000) ; [2ª época], n. 1 (abr./mayo 2003)-n. 2(jun./jul. 2003)

- Hilabeteak idazteko orduan **katalogazio-arauetako laburdura normalizatuak** erabiliko dira, baina urtaroen izenak osorik transkribatuko dira.
- Lehen eta azken faszikulu edo atalaren zenbakien edota daten artean marratxoa (-) jarriko da, **zuriunerik gabe**. Argitalpen seriatua argitaratzen ari bada, lehen faszikulu edo atalaren zenbaki edota dataren ondoren jarriko da marratxoa, argitaratzen ari dela adierazteko.

Adibideak:

T362 0# \$aN. 0 (oct.-nov. 1991)-

T362 0# \$aN. 1 (en. 1969)-n. 120 (dic. 1978)

- Argitalpen seriatu batek zenbaki-sekuentzia berri bat hasten duenean izenburu nagusia aldatu gabe, lehen sekuentziako zenbakiaren ondoren transkribatzen da berria. Oro har, argitalpenak izendapen bat izaten du –adibidez, “*serie berria*”, “*bigarren seriea*”, eta abar–, argitalpen berria ez baizik zenbaki-sekuentzia berria dela adierazteko. Sekuentzia berriaren aipua, baldin eta halakorik badago, zenbakiaren aurrean transkribatuko da.

Adibidea:

T362 0# \$aN. 1 (abr. 1979)-n. 12 (feb. 1980) ; 2^º trim. 1980-

T362 0# \$aVol. 1, n. 1 (Jan. 1934)-v. 4, n. 16 (Dec. 1937) ; n.s., v. 1, n. 1 (Jan. 1938)-

T362 0# \$a[0. alea (1996.go eka. 28an-176. alea (2003ko urr. 28an) ; 2. garaia], 1. zk. (1994ko abe.)]-

T362 0# \$aN. 10 (en. [19]87)-n. 19 (oct.-dic. [19]87) ; [ser. b.], 1 (urt.-mar. [19]88)-4 (urr.-abe. [19]88) ; 1989-1993

T362 0# \$aAño 1, n. 1 (15 abr. 1952)-año 3, n. 9 (1955) ; 2^ª época, n. 1 (1985)-

- Argitalpen batek izenburua aldatzen duenean baina lehenagoko zenbaki-sekuentziarekin jarraitzen duenean, erregistro berria egiterakoan, izenburu berriari dagokiona soilik adieraziko da.

Adibidea:

T362 0# \$aN. 75 (1976)-n. 125 (1995)

- Datu osatu gabeak (nahasmena sortzen dutenean), okerrak edo gaizki transkribatuak osatu edo zuzendu egingo dira, falta diren elementuak sartuz edo bertsio zuzena emanaz, kortxete artean ([]).

Adibideak:

Iturrian: 76

T362 0# \$a[19]76-

Iturrian: 76-77

T362 0# \$a[19]76/77-

Iturrian: Vol. 1 ,83

<p>T362 0# \$aVol. 1/19(83) <i>Iturrian: 1986</i> T362 0# \$a1986 [i.e. 1968]-</p>
--

- Argitalpen seriatu baten faszikuluak edo atalak zenbaki edo data batez identifikatzen direnean, lehen faszikulu edo atalaren zenbakiak edo datak jartzen dira.

Adibideak:
<p>T362 0# \$aVol. 1- T362 0# \$a1925-</p>

- Argitalpen seriatu baten faszikuluak edo atalak zenbaki batez eta data batez identifikatzen direnean, lehen faszikulu edo ataleko biak jartzen dira. Zenbakia dataren aurretik jarriko da.

Adibidea:
<p>T362 0# \$aVol. 1, n. 1 (en. 1935)- T362 0# \$aN, 1 (en. 2000)-n. 24 (dic. 2002) <i>(24 ale baino ez bere ibilbide osoan)</i></p>

- Aitzitik, zenbakia dataren atal bat denean, zenbakia dataren ondoren jarriko da.

Adibideak:
<p>T362 0# \$a1995, n. 1 (en. 1995)-2005, n. 12 (dic. 2005) (urtero 12 faszikulu argitaratu ziren, 1etik 12ra zenbakituak. Horrenbestez, aldizkarik iraun zuen 10 urteetan 120 ale argitaratu ziren) <i>Iturrian: 1-80)</i> T362 0# \$a[19]80, 1-</p>

- Faszikuluan edo atalean izendapenak daudenean hizkuntza edota idazkera batean baino gehiagotan emanak, eremu honetan izenburu nagusiaren hizkuntzan edota idazkeran dagoen izendapena transkribatuko da edo, irizpide hori erabili ezin ezean, lehendabizi agertzen dena. Halaber, pareko izendapenak transkribatzea gomendatzen dugu, aurretik zuriunea, berdin ikurra eta zuriunea ipinita.

Adibideak:
<p>T362 0# \$a1. zk. (1982.eko urt.)- = N. 1 (en. 1982)- T362 0# \$aVol. 20- = T. 20- = Bd. 20-</p>

- Deskribatzen ari garen faszikuluan edo atalean zenbaki-sekuentzia bakar batek zenbaki edota data bat baino gehiago dituenean egutegi desberdinen arabera,

eremu honetan transkribatuko dira zenbaki eta izendapen guztiak, aurretik zuriunea, berdin ikurra eta zuriunea jarrita.

Adibidea:

T362 0# \$aT. 1, n. 1 (Jan. 6, n. 4 (1)- 1973)-n. 24 (oct. 1978)

- Argitalpenaren sekuentzia zenbaki edo data bidez adierazten ez denean, bertan erabilitako adierazpidea erabiliko da zenbaketa adierazteko.

Adibideak:

T362 0# \$aEntrega A (en. 1970)-entrega H (jun. 1975)

T362 0# \$aGros 1-

- Amaituta dagoen argitalpen seriatu bat deskribatzerakoan, lehen faszikulu edo atalaren zenbakiaren edota dataren ondoren azken faszikulu edo atalarena jarriko da. Lehenaren datuak ezagutzen ez direnean, azkenaren zenbakia edota data jartzen da.

Adibideak:

T362 ## \$av. 47 ,1965

T362 0# \$a[19]85, 1-[19]93,3

T362 0# \$aVol. 1, pt. 1 (Dec. 1989) (*ale bakarra argitaratu zen*)

- Argitalpen seriatuaren lehen faszikulu edo atalak izendapenik ez duelarik hurrengo faszikuluetan eredu bat agertzen bada, lehen faszikulua deskribapenean eredu hori jarriko da kortxete artean ([]). Beste faszikulu edo atal batzuen izendapenari buruzko informaziorik ez badago, lehen faszikulu edo atalean [*1. zk.*]- (edo izenburu nagusiaren hizkuntzako baliokidea) jarriko da kortxete artean edo izendapen kronologiko bat [1968]- gehituko da.

Adibidea:

Lehen faszikuluan: Winter 1985

Bigarren faszikuluan: Volume 1, Number 1

T362 0# \$a[Vol. 1, no. 1] (winter 1985)-

- Beste izendapen kronologiko mota bat:

Adibidea:

T245 00 \$aBeste bat

T362 0# \$a2005/04/22-

- Faksimileak edo kopiak deskribatzeko orduan, eremu honetan jatorrizko edizioaren zenbakiak edota datak jarriko dira, kortxete artean, baldin eta kopian ageri ez badira.

Argitalpenaren, banaketaren eta abarren eremuan (**T260**) kopia faksimilearen datuak adieraziko ditugu.

Adibidea:

T245 00 \$aEuskal-erria

T250 ## \$aEd. facs

T260 ## \$aBilbo : **\$b**La Gran Enciclopedia Vasca, **\$c**1979

T362 0# \$aT. 1, n. 1 (20 jul. 1880). 25)-n. 413 (dic. 1891)

- Lehen faszikuluaren aipua ez dugunean eta zehaztasunez ez dakigunean, eremu hori normalizatu gabeko ohar batekin adierazten saiatuko gara.

T362 1# \$aComenzó con 1950/51?

T362 1# \$aComenzó con n.1 (1994)

T362 1# \$aCesó con 1965/1966

T362 1# \$aCesó en 1960

T362 1# \$aCesó con no. 65 (Jan. 1995)

HILABETEA

Enero: en.	Urtarrila: urt.	ilbeltza, izotzilla, urtaila, urtebarrilla, loilla, urtaila ;⁷urtatsil, ilbaltza, beltzilla, izotz-il, il-zuri
Febrero: feb.	Otsaila: ots.	barantailla, katail, il-txiki, otzaila, zezila, zezeila, zezeilla, zezila
marzo	Martxoa: mar.	epailla, marti, martia, martxu
Abril: abr.	Apirila: api.	abereilla , aprilak, apiribil, jorrailla, opailla, urrilla⁸
mayo	Maiatza: mai.	Epaila (<i>Bertsolariya</i>), loraila, loreilla, lorei-il, maiatz, maietza, orrilla, ostaroa, ostarua, ostoilla
Junio: jun.	Ekaina: eka.	are-maiatz, arramaiatza, bagil, bagila, bagilla, bagiril, ebaki-illa, ereiaroa, garagarrilla (Gipuzkoa eta Nafarroan, ekaina), garagarzaroa, maiatz-berri
Julio: jul.	Uztaila: uzt.	garilla, uztaila, uztarila, garagarrila (Bizkaian, uztaila)
Agosto: ag.	Abuztua: abu.	agorrilla, agoztua, dagonilla, garilla, tilistaro
Septiembre: sept.	Iraila: ira.	agorrilla (<i>Bertsolariya</i>), buruila, buruilla, garoilla, irila, setemerra, urrilla⁹
Octubre: oct.	Urria: urr.	bildilla, lastail, urrilla
Noviembre: nov.	Azaroa: aza.	abendu¹⁰, azilla, gorotzilla, gaztañazitu, hazaroa, hazila, zemendia, zemendija, zumendia

⁷ Urdinez Jacinto Gómez Tejedor *El calendario vasco*, (Serie verde, Naturaleza y paisaje; 49, 1979ko urtarrila), [s.l.]: Caja de Ahorros Vizcaina, deituriko lanetik aterata daudenak.

⁸ Op. cit.: "(...) urrilla ("uraren hila"). Hile honetakoa soilik ez den esakunea..." 19-20. or.

⁹ Op. cit.: "Iraila adierazteko beste ele bat (urrirako ere erabiltzen dena) urrilla da; "ur" (ura), hitzetik eratorrita, hil honetan euri asko izaten dela eta. Ez beti, izan ere, soberan ezaguna da "Irailan iturrietan lehorteak iritsi edo zubiak eraitsi", plubiometroari dagokionez hilearen erregulartasunik eza adieraziz; horregatik izendatzen zuten hil hori Gipuzkoan "agorril" (hil agor) elearekin, abuzturako izen espezifikoko modura ikusi duguna." 35. or.

¹⁰ (Abenduaren inguruan aipatzen diren izendapenei buruz zera adierazten da: (op. cit.: (...)) Dena den, ez legoke soberan esatea Erronkari Haranean sinpleki abendu esaten dutela.

Diciembre: dic.	Abendua: abe.	abendoa, gabonile, gabanilla, gabonilla, illul, lotazilla, neguilla, otzaro,
trimestre	hiruhilekoa	hiruhilabetea, iruilabetea

LABURDURA OHIKOENAK

Gaztelania	Laburdura	Euskara	laburdura	Frantsesa	Laburdura	Ingelesa	Laburdura	Alemana	Laburdura
Urtea	Ez da laburtzen	Año	Ez da laburtzen	Année	Ez da laburtzen			Jahrgang	Jahrg.
Fascículo	fasc.	Fazkikua	fasz.	Fascicle	fasc.	Fascicle	fasc.	-----	-----
Libro	l.	Liburua	-----	Livre	l.	Book	bk.	Buch	B.
Nueva serie	n. s.	Serie berria	ser. b.	Nouvelle série	Nouvel sér.	New series	n. s.	Neue Serie Neue Folge Neue Reihe	N. S. N. F. N. R.
Número	n.	Zenbakia	zk.	Número	n.	Number-s	no.	Nummer	Nr.
Separata	sep.	Separata	sep.	----	----	----	----	-----	-----
Serie	ser.	Seriea	ser.	série	sér.	series	ser.	Serie	Ser.
Suplemento	supl.	Gehigarria	geh.	Supplément	suppl.	Supplement	suppl.	Ergänzung	Erg.
Tomo	t.	Liburua	libk.	Tome	t.	----	-----	Teil	T.
Volume n	Vol. * ó v.			Volume	Vol. ó v.	Volume n	Vol. ó v.	Band, Bände	Bd., Bde.

*(Vol. aipu baten hasieran erabiltzen da eta zenbaki erromatarren aurrean)

HILABETEEN IZENETAN ERABILITAKO LABURDURAK

Gaztelania	Euskara	Frantsesa	Ingelesa	Alemana	Katalana	Italiera	Latina	Portugaleria
en.	urt.	janv.	Jan.	Jan.	gen.	genn.	lan.	jan.

feb.	ots.	févr.	Feb.	Feb.	febr..	febbr.	Febr.	fev.
marzo	mar.	mars	Mar.	März	març	mar.	Mart.	março
abr.	api.	avril	Apr.	Apr.	abr.	apr.	Apr.	abril
mayo	mai.	mai	May	Mai	maig	magg.	Mai.	maio
jun.	eka.	juin	June	Juni	juny	giugno	lun.	junho
jul.	uzt.	juil.	July	Juli	jul.	iuglio	lul.	julho
ag.	abu.	août	Aug.	Aug.	ag.	ag.	Aug.	agosto
sept.	ira.	sept.	Sept.	Sept.	set.	sett.	Sept.	set.
oct.	urr.	oct.	Oct.	Okt.	oct.	ott.	Oct.	out.
nov.	aza.	nov.	Nov.	Nov.	nov.	nov.	Nov.	nov.
dic.	abe.	déc.	Dec.	Dez.	des.	dic.	Dec.	dez.

T4XX SERIEAREN AIPUAREN EREMUAK

Serieen kasuan **T490** etiketa erabiliko dugu eta **T830 eremuan edo T800** eremuan bigarren mailako sarrera bat egingo dugu.

Eremu hau oso gutxitan izaten da argitalpen seriatuetan, eta argitalpen baten zenbaki guztiak serie edo azpiserie berean argitaratu direnean soilik erabiliko da. Gainerako kasuetan, aipua ohar bidez egingo da.

T490 SERIEAREN AIPUA (E)

Serie-izenburu baterako seriearen aipamena

Serie-izenburu baterako seriearen aipamena

T490 EREMUA BETETZEN DEN GUZTIETAN, DAGOKION SERIE-SARRERA GEHIGARRIA (T800 EDO T830) JARRI BEHARKO DA.

Adierazleak

Lehena

0 Berreskuratzetik gabeko seriea. Serie-sarrera gehigarria ez da beharrezkoa.

1 Seriea berreskuratzearekin. Serie-sarrera gehigarria ematen duen **T800** edo **T830** eremu bat duela adierazten du (*Lehenetsita*)

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpieremuko kodeak

§a *Seriearen aipua (E)*

§v *Liburukiaren edo sekuentziaren izendapena (E)*

§x *Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (E)*

Eremu hau betetzeko orduan hainbat jarraibide hartu behar dira kontuan:

- a) Seriearen edo azpiseriearen gako-izenburua dagokion izenburu nagusiarekin guztiz bat ez datorrenean, ohar batez adieraziko da.
 - b) Serie-zenbakia eremu honetan jarriko da, baldin eta faszikulu edo atal guztiek berbera badute.
 - c) Serie-zenbakia faszikulu edo atal guztietan berbera ez denean, seriearen eremuan jaso gabe utziko da eta ohar batean azalpena egin daiteke.
- Seriearen izena iturrian agertzen den moduan idatziko da. Haatik, hainbat hitz (esate baterako, bilduma edo serie hitzak) ez dira adieraziko sarrera-balioa baino ez dutenean. Lau baldintza ezartzen dira hitz horiek ez agertzea erabakitzeko:
 1. Hitz horiek ez direnean agertzen gainerako izenburuko tipografia berarekin.
 2. Lerro berean agertzen ez direnean.
 3. Kolore ezberdina dutenean.
 4. Hitzen eta gainerako izenburuaren artean bi puntuak tartekatzen direnean.
 - Haustura bat dagoenean, tipografikoa edo gramatikala, sarrera-atal hori kendu egingo dela esan daiteke.
 - Seriea hizki xehez idatziko da beti, lehen hitzeko lehen hizkia izan ezik, edo izen bereziak agertzen direnean salbuetsita.

Adibidea:
T490 1# \$a Observatorio de personas mayores

- Iturrian seriea eta azpiseriean agertzen badira, **\$a** errepikatu egingo da.

Adibidea:
T490 1# \$a Colección Documentos. \$a Serie Documentos estadísticos

\$a – Seriearen aipua

- Seriearen izenburua, zeinak erantzukizun-aipu bat edo izenburuari buruzko beste informazioen bat ere izan dezakeen: liburukien datak edo zenbakiak, izenburuaren aurretik edo haren atal modura. Azpiero horretan, izenburuaren atal eta sekzioetako zenbaki edo izenak ez dira modu independentean kodetzen, **\$a** azpieroan baizik.

Adibidea:
T490 1# \$a Serie divulgativa T830 #0 \$a Serie divulgativa (Castilla y León. Consejería de Medio Ambiente)

- **\$a** azpiero errepikatu egin daiteke azpiero bat serie nagusitik bereizten denean serie nagusiko zenbakikuntzarekin **\$v** azpieroan edo ISSN bidez **\$x** azpieroan, edo serie batek pareko izenburua duenean. Kasu horretan, bigarren **\$a** azpieroaren aurretiko puntuazio-zeinua katalogatzaileak bete beharko du, aldakorra baita (berdin “=” edo puntua “.” ipinita).

Adibidea:
T490 1# \$a Liburutegi bilduma = \$a Colección bibliotecas ; \$v2

\$v - Liburukiaren edo sekuentziaren izendapena

- Seriearen aipamenean erabilitako liburukiaren zenbakia edo sekuentziaren beste izendapen bat. Zenbaki hori zifra arabiarren erabiliz adierazten da beti, aurretik (“;”) puntuazioa izaten du eta dokumentuan erabilitako hitza izan dezake aurretik edo atzetik, behar bezala laburtuta.

Adibidea:
T490 1# \$a Ingurugiro estrategiaren agiria saila = \$a Serie Programa marco ambiental ; \$v2 T830 #0 \$a Ingurumen estrategiaren agiria saila

\$x – Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (ISSN)

Seriearen aipu batean emandako seriearen izenburu baterako Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (ISSN).

\$a ostean doa **\$x**.

- Azpieremuko hiru kodeak batera ageri badira, honako hurrenkera honetan idatziko dira: **\$a**, **\$x** eta **\$v**.

Adibidea:
<i>MARC formatuko adibidea:</i> T490 1# \$a Actualités scientifiques et industrielles, \$x 0365-6861 T830 #0 \$a Actualités scientifiques et industrielles



Adibidea:
<i>Bistaratzearen adibidea:</i> (Actualités scientifiques et industrielles, ISSN 0365-6861)

T5XX OHARREN EREMUA – INFORMAZIO OROKORRA

- **T5XX** eremu guztiak errepika daitezke.
- Ohar gehienetan adierazleak ez daude zehaztuta (##), kontrakoa adierazi ezean.
- Oharrak gainerako deskribapenaren osagarri dira; izan ere, bertan ematen den informazioa ezin da gainerako eremutan sartu, baina beharrezkoa edo komenigarria da dokumentua behar bezala identifikatzeko.
- Oharrak idazteko, katalogazio-arauetan ezarritakoari jarraituko zaio.
- Ahal den guztietan, laburdura normalizatuak erabiliko dira.
- Ez da ale jakin baten ezaugarri zehatzei buruzko oharririk idatziko (esate baterako, “dedikatua”, “ataririk gabeko alea”...); izan ere, datu horiek Aleak ataleko “Testua” eremuan jasotzen dira.
- Mota bereko oharrak batera jarri behar direnean, katalogazio-arauetan ezarritako hurrenkerari jarraituko zaio.
- Oharrean argitalpen seriatu baten izenburuari buruzko informazioa adierazten denean, gako-izenburua ISSNrik gabe jasoko da, betiere baldin eta **erlazionatutako sarreretan (T76X-T78X)** adierazten bada. Zein den ez badakigu eta jakiteko modurik ez badugu, izenburu nagusia jarriko dugu, baldin eta izenburu hautatu bat erabili behar ez bada.
- Oharren eremuan faszikulu edo atalean zenbaki edota datak aipatzeko orduan, honako jarraibide hauek beteko ditugu:
 - Zenbakiaren eremuko arauari jarraituz transkribatuko ditugu.
 - Argitaldarien eta korporazio erantzulearen aldaketari, argitalpenaren etenaldiari, izenburuaren edota azpiizenburuaren aldaketari eta abarri dagozkien zenbakiak edota datak zenbakiaren eremuak ezarritakoak izango dira, eta ez argitalpenaren eremuak ezarritakoak.

Adibidea:

T550 ## \$aEditor <1988->: E.I.Z.I.E.

T590 0# \$aaño 1, n. 2 (en. 1987) 1987)

T594 ## \$aA partir de n. 4 (1995), el subtít. es: anuario de humanidades

- Zenbaki edota data okerrak transkribatzeko orduan, zenbakiaren eremuko arauari jarraituko zaio eta, hortaz, datu zuzena kortxete artean jarriko da, aurretik **“i.e.”** laburdura duela.

Deskribapen bibliografikoan hurrengo ohar ohikoenak lehenetsiko dira.

T500 OHAR OROKORRA (E)

T5XX ohar-eremu jakinik zehaztua ez duen informazio orokorra.

Adierazleak

Lehena # *Zehaztugabea*

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpihermuko kodeak

\$a *Ohar orokorra (EE)*

\$a – Ohar orokorra

Honetarako erabiliko da:

- izaera orokorreko oharretarako.

Adibideak:

T500 ## \$aEn el lomo:

T500 ## \$aEn la cub.:

T500 ## \$aEn la pantalla inicial:

T500 ## \$aDesde el n. 120 (8 marzo 2002) adopta formato de revista

T500 ## \$aLos lunes se publica ed. única

T500 ## \$aDatos tomados del cuaderno

- beste hizkuntza batzuetako edizioei buruzko oharrak, edizio horien izen espezifikoak zein den ez dakigunerako edota asko izanik halakoak badirela besterik adierazten ez dugunerako.

Adibideak:

T500 ## \$aSe publica en varias lenguas

T500 ## \$aSe publica también en francés e inglés

Aldizkari bateko liburutegi batek dituen funtsei buruzko “Barneratzen du” batean aurkitutako informazioa kendu egingo dugu; izan ere, liburutegi batzuek Serieak modulua erabiltzen dute beren funtsak iraultzeko eta beste liburutegi batzuk T999 etiketa erabiliko dute.

Adibidea:

Serieak modulua erabiltzaile ez diren liburutegietarako adibidea:

T999 #5Código de Biblioteca :\$a Fondo / Liburutegian

T999 #5B0098 :\$aLiburutegian

Tokiko etiketa honetako hurrenkera mantenduko dugu liburutegiaren kode alfanumerikoaren arabera.

T515 ZENBAKETAREN BEREZITASUNEI BURUZKO OHARRA (E)

Urteko txosten baten azalean, berrikusitako edizioetan edota ataletan argitaratutako edizioetan zenbakikuntzari edo argitalpenaren formari buruzko irregulartasun eta berezitasunen berri ematen duen ohar ez normalizatua.

Adierazleak

Lehena # *Zehaztugabea*

Bigarrena # *Zehaztugabea*

Azpieremuko kodeak

§a *Zenbaketaren berezitasunei buruzko oharra (EE)*

§a – Zenbaketaren berezitasunei buruzko oharra

§a azpieremuan honako irregulartasun eta berezitasunak adieraziko dira:

- Zenbakikuntzaren zenbait irregulartasun edo berezitasun, hala nola zenbakikuntza bikoitzak, faszikulu edo liburuki konbinatuak, zenbakikuntza aniztuneko serie edo sistemen zenbakikuntzaren erabilera nahasia, zenbakikuntza erregularraz kanpo argitaratutako aurretiko faszikuluak eta lehen liburukian hasten diren zenbakikuntzak.

Adibideak:

T515 ## §a1er fasc. sin numerar

T515 ## §aLehenengo alea paperean ez zen argitaratu, web orrian bakarrik

T515 ## §aPosteriormente mantiene una doble numeración, una correlativa y otra anual

T515 ## §aLehenengo alea paperean ez zen argitaratu, web orrian bakarrik

T515 ## §aVariaciones en la designación numérica

T515 ## §aIrregularidades en la numeración

T515 ## §aContinúa la numeración de: Sekzioko koadernoak. Hedabideak

T515 ## §aPublicación sin numerar

T515 ## §aLa designación numérica comienza con: año 1, n. 0

T515 ## §aIrregularidades en la numeración

- Argitalpen-ereduaren irregulartasunak edo berezitasunak.

Adibideak:

T515 ## §aInterrumpida la publicación de 1950 a 1953

T515 ## §aEl n. 5 no se publicó

Interrumpida la publicación en: 1950, 1953-1957 eta 1960¹¹

- Zatika argitaratutako argitalpenak edota edizio bateratuak edo berrikusiak dituztenak.

Adibideak:

T515 ## \$aEditado en dos partes en 1987, en tres desde 1991

T515 ## \$aPublicación acumulativa trimestral y anual

T515 ## \$aPublicación acumulativa, el último disco recoge el contenido de los anteriores

- Argitalpen seriatuen faszikulu edo atal guztiak monografikoak direnean, ohar hau jarriko dugu:

Adibidea:

T515 ## \$aSerie de números monográficos

- Urteko txostenen estaldura

Adibidea:

T515 ## \$aSe publica anualmente durante la celebración del Festival Internacional de Cine de San Sebastián

¹¹ Elkarren segidakoak ez diren datak bereizteko koma (,) erabiliko dugu, eta ez puntu eta koma (;). Elkarren segidako sekuentzia kronologikoetan marratxo bat (-) erabiliko da.

T516 ORDENAGAILUKO ARTXIBO EDO DATU MOTAREN OHARRA (E)

